



Aimar OLAIZOLA

Lau terdian,

5garren zapela → 46

2012ko urtarrilaren 12a | XXXII. urtea | 557. zenbakia

www.ttipi.net

## Inauteriak

Leitzako ihoteak → 11-14

## BERA → 15

Merkataritzari buruzko gogoeta abiatuko da

## ELGORRIAGA → 22

Egutegia argitaratu dute gurasoek

## LEITZA → 34

3.738.850 euroko udal aurrekontua onartu da

## BAZTAN → 37

Fabaren Erregea koroatuko da Amaiurren

Mari Jose ERASO | Neke Kronikoaren Sindromea

## «Nik dudana ez da ikusten eta aunitzek ez dute sinisten»


Medikutan mila buelta eman ondotik, azkenean azaldu zioten zer zuen: Neke Kronikoaren Sindromea (*Encefalomielite miálgica*). Medikuek zera erran omen zion: «ez da hiltzeko zerbait baina bai sufritzekoa». Oraingoz ez dago sendabiderik eta Iruritako emakume hau bezala, gure inguruan ehunka lagun daude fibromialgiarekin zer ikusia duten gaixotasunen bat dutenak.

ERREPORTAJEA → 4-5

ELKARRIZKETA → 3

## Etxetik Plazara liburua argitaratu du IKAK, euskara ikasten ari direnen lagungarri izateko

Orain arteko aleetatik aukuratutako bilduma da, atalka sailkatua: oinarriko gramatika azalpenak eta ariketak, irakurgaiak eta lanketak, esamolde eta esaera zaharrak...



## Espainiako Loteriako sari nagusitik 4,8 milioi euro Lesakara

Huescan saldu zen sari nagusia osorik baina inguru haietan ehizean ibiltzen diren lesakar batzuk 12 dezimo eskuratu zituzten. → 55



ZOKKETAK → 56



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58 telefonora



# ttipi-ttapa liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan  
CIESeK **Nafarroa Garaiko  
mendialdean**  
hartu duen  
111 udalerrien eremuan ere



Beste batzuk	EL PAIS	MARCA	BERRIA	GARA	D. NOTICIAS	D. NAVARRA	TTIPI-TTAPA
5.000 irakurle	1.000 irakurle	1.000 irakurle	2.000 irakurle	6.000 irakurle	9.000 irakurle	16.000 irakurle	29.000 irakurle

mila esker ttipi-ttapa irakurtzen duzuen guztiel

#### SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%48,90
EMAKUMEAK	%51,10

#### ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%13,60
25-34 URTE	%18,60
35-44 URTE	%18,30
45-54 URTE	%28,20
55-64 URTE	%10,30
+ 64 URTE	%11,00

#### IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE	%3,20
LEHEN IKASKETAK	%14,90
LANBIDE HEZIKETA	%20,80
BATXILERGOA	%27,40
UNIBERTSITATEA	%33,70

Etxetik Plazara liburua argitaratu du IKAK abenduaren erdialdean eta mila ale atera dira, 10 eurotan salgai daudenak. Nafarroako mendialdean zabaldu da. Malerrekako eta

Bortzirietako IKA euskaltegieta bi irakasle aritu dira liburuaren prozesuan eta laguntza ekonomikoa ezinbertzekoa izan da liburua argitaratzeko, «batez ere, mendialdeko

Euskara Mankomunitateena. Horretaz gain, Nafarroako Kutzaren (*Zuk aukeratu, zuk erabaki*), Euskadiako Kutzaren eta Euskarabidearen laguntza ere» izan dute.

IKA | Etxetik Plazara liburuaren egileak

# «Liburuaz gozatu eta segi euskara erabiltzen, zaintzen eta maitatzen!»

Aitor AROTZENA | LESAKA

## Nolako izan da Etxetik Plazara liburuaren egiteko prozesua?

Gure euskaltegiko lanaren tartetxoetan egin den bezala, bizpahiru urte kosta zaigu ahal bezain ongi moldatzea. Behin bilketa eta moldaketa lana eginda, Joseba Larratxe Joseviskyren marrazki eta diseinu xarmantek biribildu dute azken emaitza.

## Zein da Etxetik Plazara aldizkariaren helburua? Liburuak ere helburu bera du?

1994an sortu zelarik, euskara etxean eta paper gainean pixka bat lantzeko aukera ematean zen helburu nagusia, eta bereziki, euskaltegira etortzen ez ziren erdaraz ikasitako euskaldunengana hurbildu nahi genuen. Geroztik, euskararen egoera eta beharrak azkarki aldatu dira, baina oraindik ere bada euskaldun franko alfabetatzea deitzen den prozesua egin gabe duena. Segur aski, gaur egungo aldizkariaren jarraitzaile gehientsuenak ikasketak euskaraz egindakoak izanen dira. Hala ere, lehen bezalaxe, gure nahia irakurmena, idazmena eta gramatika ahalik eta arinen eta atseginen lantzen laguntzea da, beti ere, gure inguruko euskalkien eta euskara baturaren arteko zubi-lana



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Beñardo Goietxe, Marga Erdozain eta Joseba Larratxe «Josevisky».

eginez. Liburuak helburu berberak ditu, baina orri gehiagorekin. Jakina, gure lanaren funtsa erakustez gain, animatzen diren guzientzat, euskaltegirako zubi lana ere egin nahiko luke.

## Orain arteko ale guztiak bilduma da edo nolabaiteko aukeraketa egin duzue?

Bai, goiti-beheiti, orain arteko 125 aleetatik aukeraturako bilduma da atalka sailkatua. Liburuak bortsu ataletan banatuta dago: *Lan eta Lan* (oinarriko gramatika azalpenak eta ariketak), *Irakurlan* (gai ezberdinetako irakurkagaiak eta lanketak),

## ETORKIZUNAZ ZALANTZA

«Geroa, zoritxarrez, diru-laguntzen baita dago. Hori dela eta, joan den urtetik alea hilerok ateratzen dugu. Nafarroako Gobernutik euskarari emaniko diru laguntzak dauden bezala eta egoera ekonomikoa ikusita, etorkizuna ikatzaren koloretsukoa ikusten dugu».

*Esamolde eta Esaera* zehar harrak gaika lantzeko, *Hitzak dantzan* (irudi bidezko hiztegi lanketa) eta *Jolas Nahas* (denbora-pasak).

## Euskara etxetik mugitu gabe lantzeko sortu omen zenuen Etxetik Plazara... Ez al da, alde batetik, euskaltegiarentzako kaltegarri?

Ez, gure ustez ez da kaltegarria, osagarria bai zik. Dударik gabe, aldizkaria eginez ezin dute ikasketak prozesurik osatu, horretarako euskaltegira etorri beharko lukete. Badira egile aunitz hasieratik zintzo ari direnak eta arrazoi ezberdinen-

gatik euskaltegira etorriko ez direnak. Gainera, arestian erran bezala, jarraitzaile aunitz alfabetatuak dira jada, eta errepaso moduan erabiltzen dute. Ikasten ari direnek, tarteko mailetatik goiti, beti ere, klasekoa osatzeko erabil dezakete.

## Zer izaten da zailena Etxetik Plazarako ale bakoitza osatzeko orduan?

Hainbertze aleren ondorioz ezinezkoa da hainbat kontu errepikatu gabe izatea. Orain, lehen bezala, garaieraren arabera edo gizarte gai bati zukua ateratzen saiatzen gara, horren inguruko lanketak proposatuz. Jendea, berriz, gehien kostatzen zaiona idaztea izaten da. Ariketa gramatikak ere zailagoak egiten zaizkie ohituraren arabera. Hala ere, zerbait zaila eginez gero, etxeko guztien artean egiteko aukera dute. Hori da politena, denen parte hartzea.

## Nolako erantzuna jasotzen duzue irakurleentzat?

Kontuan hartuz Nafarroako mendialde osoan bantzen dela, batez beste alero 100-150 egile izan ditugu azken urteotan. Ale bakoitzeko sariaren amutxoa ere hor dago, jakina. Sariaren eta bete beharreko lanaren arabera, harrera desberdina izaten du.

OSASUNA → GAIXOTASUN KRONIKOAK

# Fibromialgia duten ia 700 lagun daude Baztan-Bidasoaldean eta Leitzaldean

Fibromialgiarekin lotura zuzena duten bertze bi gaixotasun daude: Neke Kronikoaren Sindromea eta Sentikortasun Kimiko Anizkoitzaren Sindromea

Fibromialgia dutenak gehiago badira ere, eritasun horren familiakoak dira Neke Kronikoaren Sindromea

eta Sentikortasun Kimiko Anizkoitzaren Sindromea. Maiz horietako bat duenak bertzeak ere baditu.

## G. PIKABEA

Oinazea bai eta haundia, baina ikusezina. Hori xe da fibromialgia. Eritasun erreumatikoa da, gihar, tendoi, artikulazio eta gorputzeko bertze hainbat zuntzetan mina eragiten duen sindromea, eta gogortasunaren eta nekearen sentazioa sortzen duena. Bereziki 30-60 urte arteko emakumezkoetan agertzen da. Ikerketen arabera, kasuen %75ean behintzat bai.

Jatorri ezezaguneko gaixotasuna da, baina, minaren pertzepzioan eragiten duen transtorno delako uste da. Eritasun berria ere bada. Osasunaren Munduko Erakundeak ez baitzuen 1992ra arte gaixotasun gisa onartu. Herritarren %2-4ri eragiten die, eta Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Urdazubi-Zugarramurdi aldean 690 lagunek dute gaitz hori.

Fibromialgiarekin batera, familia bereko hiru eritasun desberdintzen dira: fibromialgia bera, Neke Kronikoaren Sindromea eta Sentikortasun Kimiko Anizkoitzaren

Sindromea. Neke Kronikoaren Sindromearen ezaugarriak adimenneke eta neke fisikoa dira, eta ez dira arintzen atsedena hartu arren, eta areagotu egiten dira ariketa fisikoa eta mentala eginez. Honen jatorria ere ezezaguna da baina Osasunaren Munduko Erakundeak eritasun bezala onartu du. Eta gaitz hau duten batzuek, indarrik eza, lo egiteko arazoak eta memoria eta kontzentrazio galera ere izan dezakete.

Neke Kronikoaren Sindromeak eta fibromialgiak zerikusi haundia dute, maiz batera agertzen baitira. Baita adar berekoa den Sentikortasun Kimiko Anizkoitzaren Sindromea ere. Gaitz hori duten pertsonen intolerantzia diete ingurumenean dauden

hainbat gai eta konposatu kimikori: metaletik hasi eta botiketara, lurrinak, intsektizidak, kea... Hiru eritasunak adar berekoak izanda, ikerketek dioenez, eritasun hauek bat duten gaixo gehienak bertzeak ere badituzte, neurri haundigoan edo tikiagoan.

Gaixotasun ikusezina diren horretan, diagnostiko zaila dute, ez baitira ez odol analisietan, ez erradiografietan eta ez erresonantzietan ere ageri. Hilabeteak edota hiruzpalau urte ere pasa daitetzeko norbaitek eritasun horiek dituela aurkitzeko. Inguruan ulertuak ez direla ere maiz sentitzen dute.

Hain zuzen, hiru eritasun horiek dituztenei laguntzeko sortu zen duela hamahiru urte AFINA Nafarroako Fibromialgia Elkarteak. Gaitz horiek di-



AFINA elkartearen eskutik, argazkiko emakumeak ariketa fisiko espezifikoak egiten dituzte.

tuztenei tailer psikologikoak, ariketa fisikoa edo elikadura terapeutikoren inguruan laguntza ematen die. Eskualdean, Elizondo eta Leitzan eskaintzen du zerbitzua.

## LEITZAN ETA ELIZONDON

Elizondon, urtebete darama lanean AFINAK, eta COCENFE ezintasun fisiko eta organikoa duten Nafarroako erakundearen egoitzan laguntza eskaintzen du. 40-60 urte arteko hamar bat emakumezko biltzen dira asteartero eta ortzegunero Mikel Iantzi fisioterapeuta elizondarrarekin, ordu bat eta erdiko saioak egiteko. Hiru fase-tan banatuta egiten dute saioa: hasieran beroketa, gero mugimenduak eta bukaeran erlaxazioa. «Garrantzitsuena tarteko zatia da eta azke-

na deskonektatzeko da», azaldu digu Iantzik, «burrari buelta aunitz ematen dioten gaixotasunak baitira». Gisa honetara, «hobeki sentitzen direla», dio Iantzik. «Goitibeheiti haundiak izaten dituzte, eta nahiz eta batzuetan animo aldetik nahiko baxu egon, etorri egiten dira, ariketa eginda hobeki sentitzen direla badakitelako».

Eskaintza hobetzeko bidean, batetik, fisioterapeutek prestakuntza hobea jasoko dute eta bertzetik, zerbitzua Baztan-Bidasoaldera hedatu nahi da: «Jendea ez dago informatua eta bertze herrietara zabaldu nahi da», erran digu Iantzik. Gauza berriak egiteko aukera ere eskaini nahi diete gaixoei eta adibide bat aipatu digu: «ur beroak aunitz erlaxatzen ditu eta ur berorako aukera izanda, ongi legoke noizbehinka igerilekuan ariketak ur azpian egitea».

Leitzan, berriz, hamahiru lagun elkartzten dira Ane Egizabal fisioterapeutarekin, ariketa espezifikoak egiteko. Astelehen eta ostegunetan iza-

### INFORMAZIO ESKASIA

«Landa eremuetako gaixoei zerbitzu eta batez ere, informazio guttiago dute»

Jokin ESPINAZO  
AFINAko lehendakaria

### LAGUNTZA

«Etetik atera eta ez daudela bakarrik ikusten dute eta horrek asko laguntzen die»

Ane EGIZABAL  
Leitzako arduraduna

### ARIKETAREKIN HOBEBE

«Nahiz eta batzuetan animo aldetik baxu egon, ariketa eginda hobeki sentitzen dira»

Mikel IANTZI  
Elizondoko arduraduna



UTZITAKO ARGAZKIA  
ezpezifikoa egiten ari dira Leitzan. Astean bi egunez elkartzen dira.

ten dute hitzordua kiroldegian eta 60-80 urte arteko emakumezko leitzararak dira guztiak. Ez dira denak fibromialgia dutenak, baina denei laguntzen die ariketa egiteak. Elizondoko bezala, Leitzan ere hiru zatitan bereizten dituzte lansaioak: beroketak, ariketa konkretuak eta erlaxazioa. Saioak psikologikoki «asko laguntzen» diela uste du Egizabalek: «etxetik atera eta ez daudela bakarrik ikusten dute». Inguuruan ez direla ulertuak izan sentitu baitute noiz edo noiz: «alferrak zirela, beti kexaka ari zirela...».

AFINA duela zortzi urte hasi zen Leitzan zerbitzua eskaintzen, zortzi lagunekin. Urteekin, gehiago apuntatu dira, eta Leikunberrin bertze talde bat sortu behar izan dute. Ariketa fisikoa eginez, gaixoek hobera egin dutela nabaritu du fisioterapeutak: «batzuk medikazio batzuk kendu dituzte, eta uda saiorik gabe pasatu ondotik, okerrera egiten dutela esaten dute».

Eta orain, Leitzan eta Elizondoko zerbitzuak zabalteko asmoa du

AFINAK, «patologia hauetako pertsonak ez direla ulertuak, eta hori gainditu eta bizitza kalitatea hobetzeko», azaldu du Jokin Espinazo AFINAKo lehendakariak. Hala, diziplina-anitzeko tratamenduarekin hastekoak dira, ariketa fisikoa espezifikoa, elikadura ekologikoaren zerbitzua eta laguntza psikologikoa eskainiz.

AFINAKo lehendakariak baieztatu duenez, «hilabeteak pasa daitezke gaixotasuna zuzen diagnostikatu arte eta, urtean, batzuetan, sei botika hartu ohi dituzte hainbat espezialistengandik pasatuta, emaitzik gabek. «Minak eta nekeak eguneroko jarduerara aunitz egiteko zailtasuna sortzen dute maiz, erosketen poltsa hartzeko ezintasuna, adibidez».

Gaur egun sendabiderik ez duten gaitzak izaki, sintomak arintzea da erronka nagusia, baita gaixoa egoera berrira egokitu eta aitzinerasegitzeko motibatzea ere. Ulertuak sentitzeak ere aunitz lagunduko lieke.

MARI JOSE ERASO, NEKE KRONIKOAREN SINDROMEAREN SINTOMAK NABARITZEN, AMAIURKO ESKOLAN IRAKASLE ZELA:

«*Nik dudana ez da ikusten eta gogorra da aunitzek ez dutelako sinisten*»

Orain dela bozpasei urte hasi zen Mari Jose Eraso iruritarra Neke Kronikoaren Sindromearen sintomak nabaritzen, Amaiurko eskolan irakasle zela: «nekea somatzen hasi nintzen. Igerilekuan hiru luze eginda, flakiarekin bezala sentitzen nintzen. Menopausia ote zen pentsatu nuen eta medikuak ere bai. Ikasturte bukaeran gertatu zen. Irakasleok udan normalki atsedan hartzen dugu, baina urte hartan ez zen horrela izan. Irailean ekainean bezala nengoen, nekatua. Frogak egin zizkidaten, baina deus ere ez. Abenduan sukarrarekin hasi eta hiru hilabetez segidan hiru egunez sukarra eduki nuen. Arraro xamarra iruditu zitzaidan eta medikuarengana gan nintzen. Baina analisisetan dena ongi ateratu zen». Horiek izan ziren hasierako sintomak. 2007ko maiatzean, ordea, erosketa batzuekin ari zela, bat-batean gaizki sentitu zen: buruan presioa, gorpuzta gaizki, izerdia... Larrialdietan ibili zen, baina frogak guztietan ez zen deus ateratu. «Eta bitartean, ni ezinean. Uda bajaran pasatu nuen, mediku batetik bertzerera. Irakaslea izanda, mediku batek estresa izan zela erran zidan. Lasaigarri batzuekin udan zerbait hobera egin nuen eta irailan lanera itzuli nintzen. Ez nengoen %100ean, baina horrela egotea gogorra zen!».

Urrian, aldiz, bertze kolpe bat hartu zuen eta «geroztik ez naiz erreperatu. Espezialistetan ibili nintzen, baina frogak ongi ateratu ziren». Azkenean, Bartzelonara jo zuen, medikuak zerbaiten susmoa hartuta. Estatu espainiar osoan bi unitate dauka gaixotasunok neurtzeko, eta 2008an kontsulta pribatua eskatu zuen. «Zalantzarik gabe, *Encefalomieltis Miálgica* edo Neke Kronikoaren Sindromea nuela azaldu zidaten. Hauxe erran zidan medikuak: 'ez da hiltzeko zerbait, sufritzeko zerbait baizik'». Ez dago sendabiderik: «nekearen aitzinean, zer egin eta zer ez erraten dute». Hainbertze bueltaren ondotik, Bartzelonan jakin zuen zer zuen. Eritasun «arras gogorra» dela aitortu digu: «nekatua jeikitzen naiz, eta ez da ohiko



Mari Jose Eraso.

nekea. Sentsazioa ulertzea zaila da». Behardialdia arras fuertea ez bada, ordu batzuetako kontua omen da, baina fuertea bada, erreperatzen egunak edo hilabeteak pasa ditzake. Inguuruan ez dela ulertua ere sentitu izan du. «Jendeak aurpegi ona dudala erraten dit. Nik dudana ez da ikusten, eta gogorra da aunitzek ez dutelako sinisten». Sukarra, nekea, indarrak ez, egunean 500 metro baino gehiago oinez ez, lo hartzeko arazoak... Guztiak ditu. Eta hasieran memoria eta kontzentrazio arazorik ez bazuen ere, orain bai. Hori ere gaitz honen parte baita: «dena buruan, disko gogorrean grabatua banu bezala dut, baina ezin dut nahi dudanean ateratu. Ezin dut libururik ere irakurri, kontzentrazioa galdu zuten baitut».

**ETENGABEKO NEKEA**  
«Nekatua jeikitzen naiz, eta ez da ohiko nekea. Sentsazioa ulertzea arras zaila da»

Erasok, batez ere, Neke Kronikoaren Sindromea duen arren, fibromialgia ere badu, maila moderatuan, eta Sentikortasun Kimiko Anizkoitzaren Sindromea maila arinean: «karrikan gurutzatzen dudana edozeinen lurrina ezin dut jasan, komunetako aire-freskagariak ere ez...». Eta etxean desodorante eta gai kimikodun garbiketako produktuak ere baztertu behar izan dituzte. Jatekoa ere dena ekologikoa. Urte gogorrek pasatu dituela aitortu digu. «Mediku gehienek eritasun psikosomatikoa dela diote, eta ez da hala. Ez dute sinisten». Are gehiago, lau urte eman ditu lanerako ezintasuna lortu ezinik, abokatuarekin epaitegietan. Estatu mailan oraindik gaiaren inguruan egiteko «aunitz» dagoela uste du, eta zer duen badakienetik, «horrekin bizitzen ikastera ohituratzen ari dela», aipatu digu. Bertzetik, pozik hartu du Bartzango Udalak Ezintasun Bartzordea sortu izana. Eta eritasuna dutenei gaixotasunarekin lotutako elkarteren bateko kide egiteko aholkatu die.



**Nire txanda**  
Joseba URROTZ

## Eguberriak

Honez gero nekatu izanen ginen elkarri *Eguberri on* erranez, baina zer da bada opatzen duguna? Zer arraio dira bada Eguberriak? Bistan da ospakizuna dela, baina zer ospatzen dugun jakin gabe zerbait ospatzearen adibide garbia dugu hau. Bistan da kristaua denak Nazareteko Jesusen jaiotza ospatzen duela, baina gainerakoak, zer? Kristauek besta hori ospatu aitzinetik, besta paganoa omen zen, *egun berrien* ospakizuna, alegia, eguna luzatzen hasten den garaia, lurrarentzat aro berria hasten den garaia. Hala bada, oraindik eguberri gaudela! Gaur egun Eguberriak *El Corte Ingles*ek ekartzen ditu edo *Simply* supermerkatuek 'Zuk nahi duzun eguberria' ematen. Telebista espainiar batean ere zera entzun nuen: Eguberrien benetakoa hasiera Loteria Nazionalak iragartzen zuela. To! Eta maitasuna, elkartasuna eta bakea adierazteko egunak badira, zergatik mugatu bi astetara? Ezin da eguberri izan urte osoan?

«Maitasuna, elkartasuna eta bakea adierazteko egunak, zergatik mugatu bi astera?»

## Ezpala

Aitor AROTZENA

## Erregeak zer ekarri dizu?

Begietako beltzatua txuritu eta eskiatzen ari zela izandako azken erorikoaz errekupekatuta hor sartu zaigu etxe gutzietan (hori baita demokrazia) bere diskurtsoarekin. Lehenago, suhi eskuluzea etxetik bidali eta haren kontra eskubaloian aritutakoari muttur egin dio harrera, azken hau herriak aukeratua eta bera Patxi zenak hautatua dela ahantzita. Beharrik Olentzero gelditzen zaigun!

## Nabarmentzekoak



Aimar OLAIZOLA  
Retegiren marka hobetu du

Hatz-haustura eta aita-ren heriotza gainditu eta lau terdiko bosgarren txapela jantzi zuen goizuetarrak, Irujori 22-12 irabazita finalean. Julian Retegiren marka hobetu du kaiolan.



Xuban ZALDAIN  
Fabaren Erregea

Abenduaren 17an egin-dako ekitaldian, Amaiurko mutikoa izendatu zuten 2012ko Fabaren Errege eta larunbat honetan, urtarrilak 14, eginen da koroatzea Amaiurren.



Pedro Mari ESARTE  
Kontrabandoa hizpide

*El contrabando en Baztan contado por sus protagonistas* liburua argitaratu du Pamielarekin historialari elizondarrak, «garai bateko Baztango industriarik handienaren» pasadizoekin.

Atzera begira → 2001.01.11 / TTIPI-TTAPA 293. zbk



## Euskal zerri pintto beltza berreskuratzeko saioa Oronozen

Joan den mendera arte gure inguruan hedatuena zegoen zerri arraza zen euskal zerri pintto beltza (argazkian, 1907ko Elizondoko ferian ageri da buru bat, Baztango bi zerri xurirekin batera), baina bertze arrazakoekin konparatuz produktibitate tikiagokoa izanik, kasik desagertu ere egin zen. Duela 17 urte berreskuratzeko saioa hasi zuen ITGk eta Oronozko Zubialdean zazpi zerrama eta aketz batekin hasi ziren. Sei urte beranduago 40 zerrama eta 4 aketz zituzten. Zubialdeko Vicente Goñik aipatu zigunez, «errentagarria izateko laguntzak behar ditu zerri arraza honek»



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Publizitatea Usua Vicente, Kulturkari SLU Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mibeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea, Joana Guerediain, Martin Bertiz...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....38€	Europa	.....56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....32€
Ipar Euskal Herria	.....56€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitza	.....16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Dietak

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

**G**u bizi garen gizarte moderno ustezko honetan, gero eta ohikoagoa da dena transformatu eta eraldatu behar izatea, besteak beste, kontsumitu behar ditugun elikagaiak. Hemen ez da libratzen ia-ia inortxo ere. Egia da, bai, gero eta produktu biologiko edo ekologiko gehiago kontsumitzen direla, baina, beti ere, oraindik neurri oso txiki batean, batez ere, ekologikoak ez diren beste produktu horien kontsumo kopuruarekin alderatzen baditugu. Dieta mediterraneoari buruz hitz egiten ere entzuten edo ikusten dugu, baina oraindik nahiko gutxiengo txikia da. Hala eta guztiz ere, bide horretan barna joan beharko genuke, gure osasuna pixka bat zaindu nahi badugu behinik behin. Gainera, garai batean, gure arbasoek eta baita guk gerok ere, txikitan ezagutu genuen elikatzeke modua, Euskal Herrian bertan ere, oso antzekoa zela, dieta mediterranea horrekin alderatuta, alegia, elikagaiak industrialki manipulatu gabeak, intsektizidarik, herbizidarik, koloragarririk eta kontserbagarririk gabeak, eta abar, besteak beste.

Ulertzen dut gizarteak aurrera egiten duela, eta horrela egin beharko duela gainera, baina, beti izanen da ezinbestekoa minimo batzuk errespetatzea arlo guztietan, eta baita elikaduraren alorrean ere, bestela, gero eta agerikoagoak dira, gure gaurko gizarte honetan, sortzen ari diren gaitz eta arazo berri, moderno eta larriak, bizimodua gero eta sedentarioagoa den honetan, konparaziora, minbizi gaizto berriak, gizenkeria, eta bat eta beste.

Horiek horrela, beganoen bizimodua ere gomendagarria da, hau da, erabat begetarianoak direnena. Alde batetik, berriek modu osasungarrian elikatzen dira, eta, bestetik, animalien eskubide unibertsalak bete-betean errespetatzen dituzte (...) Azken ideia horrekin lotuta, gaur egun mundu osoko edozein sendagile eskudunek esanen digu, pertsona guztientzat erabat gomendagarria dela, osasuntsu bizi ahal izateko, kirola praktikatzea, soinketa egitea, oinez ibiltzea, bizitza patxadaz hartzea, erlaxatzea, bizimodu orekatsua eramatea, ongi lo egitea, eta abar. Eta era berean, ez direla batere gomendagarriak honako produktu hauek, batez ere kopuru handitan, hots, tabakoa, alkohola, azukre zuria, itsasokoa ez den gatza, ogi zuria, irin osokoak ez diren janariak, gozoki finduak, kafea, tea, txokolata, beste droga mota asko, eta abar.

Laburbilduz, esan liteke, hemen azaldu dudan moduan bizi izanez, elikatuz, ibiliz eta jokatzuz, askoz ere aukera handiagoa dugula osasuntsuago bizi izateko eta, aldi berean, arazo gutxiago edukitzeko gaixotasunak direla-eta.

Baina, goiburuari ongi erreparatu baldin badiozu, irakurle horrek, erraz konturatuko zinen pluralean jarri dudala, eta zergatik?, ba, beste mota bateko dietak ere badaudelako, besteak beste, Yolanda Barcina Angulo andreak, Nafarroako Foru Erkidego honetako lehendakari buruargiak, eta beste pertsona buru azkar batzuek ere hartu-lapurtu?-dituztenak. Dieta horiek ez dira lehengoak bezain gomendagarriak, hasieran gizenarazten dizute poltsa, baina, gero murritzen dizute boto kopurua eta, gainera, denen aurrean gelditzen zara lotsagarri.

Bizi ongi, osasuntsu, zoriontsu eta ahal bada, euskaraz.

Elur kontuak

Mikel TABERNA «KAPI»

**G**aur goizean argitu duelarik, Larun gaina xuri ikusi dugu. Ukitu nahiko genuke, baina sobera urrun gelditzen da, eta ez du balio nekatzea besoa luzatzen. Haurrak ginen denboran, frankotan inbidia ematen ziguten herritik aparte bizi ziren baserritarrek, haien etxeetara elurra ailegatua zela erraten baziguten harro-harro. Bidasoaren arrimuan bizi gineno! hagitz bakan baino ez zigun halako oparirik egiten zeruak. Gero, eguraldia epeltzearekin, xuritasun hura akabo ez genuen gehiago ikusten, eta gure ibaia gizendu egiten zen. Batzuek erraten zuten *“Horra non dagoen elur eder hura!”*. Baina guk ur uherra bertzerik ez ikusten, eta jainko-jainkosen erregaluak manera hartan ez zigun grazia sobera egiten.

Izanez ere, hameka itxura klase hartzen ahal du negu parteko bisitari misterioitsuak: elur-bustia, elur-luma, elur-pikorra, elur-zopa... Lizarran, *“euli xuriak”* direla aditu nuen! Eta Zalain Zokon erran zahar bat ikasi nuen, hiru elur diferente bereizten dituen: **ilbeltzekoa, burnia; otsailekoa, egurra; eta martxokoa, ura.** Baina gaurko jainko-jainkosen erregaluak manera hartan ez zigun grazia sobera egiten. Izanez ere, hameka itxura klase hartzen ahal du negu parteko bisitari misterioitsuak: elur-bustia, elur-luma, elur-pikorra, elur-zopa... Lizarran, *“euli xuriak”* direla aditu nuen! Eta Zalain Zokon erran zahar bat ikasi nuen, hiru elur diferente bereizten dituen: **ilbeltzekoa, burnia; otsailekoa, egurra; eta martxokoa, ura.**

Nolanahi ere, elur kontuetan etxean kontatu ditugun istorio politena Martintxeberriko Joxantonio Haundirena da. Izengoitiak erakusten du nolakoa bide zen gizon hura, eta Iraola bat omen zuen hagitz laguna, tamainaz puska apalagoa zena. Behin joaki omen ziren elkarrekin oinez, eta, zerua arrunt goibel baitzen, Iraolak erran omen zuen *“Elurra in bihar dik!”*, eta Joxantoniok *“Nahi nike nire gerritako itten balu!”*; orduan gizon tikiak *“Hire gerritako? Orduan, niri noño?”*. Jende xelebrea! Kantetan eta solas-jokoetan ere dexente aipatu da beti. Hain zuzen ere, Urtezahar gauean, destenorez, xerbeltzen hasiak ziren Diostesalbeko koplari batzuei hauxe aditu nien: *Goiko mendian elurra / Atean hotzak xakurra / Espainiako presidentea / Ez izan horren makurra!* Zer eginen ote digu Marianok?

(E)urte berri on!

## Irakurleak mintzo

## Gure txanda da

Trinidad MIRANDA FUNES  
(Jone Lozano Miranda  
preso politikoaren ama)

Ama izatearen sentimenduak eraman nau boligrafoa eskuetan hartzera eta, amorruek eta haserreak lotsa guztiak kendu dizkidatenez, idatzi hau argitara ateratzera ausartu naiz.

Nire alaba espetxean dago. Espetxeetan 700etik gora dauden euskal preso politikoe-tako bat da. Gertakari hori nire bizitzan errotu da, eta den-dena baldintzatzen du. Astea joan eta astea etorri, berarengandik banantzen nauten 950 km horiek nola egingo ditudan pentsatzea da nire lehen-tasuna, egia esan garra-iobide publikoek ere ez baitute gauza asko erraz-ten.

Egiteko horretan jar-tzen dugun maitasun eta elkartasun guztian pentsatzen dudak bakoitze-an, bihotza samurtzen zait eta emozioak har-tzen nau. Izan ere, abi-an jartzen gara astero-astero, borondate izu-garriz eta salbuespenik gabe, batez beste 700 km egin eta gure jendea-rekin egon ahal izateko. 45 minutu izaten dira eta, onenean, ordu eta erdi. Denbora gutxi da! Baina zentzumen guztiak martxan jartzen ikasi du-gu, denbora tarte labur horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko.


Iritsi da ordua, amai-tu da bisita, eta nire ba-r-ruan, sentimenduak bo-rrokan: indartsu dago!,

pentsatzen dut, berak badaki zergatik dagoen!, Baina esaldi horiek bes-te galdera batzuk sor-tzen dizkidate aldi bere-an: Zergatik itzuli behar dut bakarrik? Zergatik etorri behar dut hain urru-tiraino nire alaba ikuste-ra? Zergatik dago he-men? Etxean hain han-dia izanik haren beharra eta utzitako hutsa, hain handia izanik bere he-rriarri, bere jendeari egin diezaiokkeen ekarpena?

Mendearen gaituzten gobernu horiek, ordea, bizkarra ematen diote merkantilismoa ez den beste edozein baliori, go-razarre egiten diete es-pekulatzaileei eta ban-keroei, gure gaitz guzti-en salbatzaileak balira bezala. Eta nire ustez, ni-re alaba bezalako per-sonak, ausartak, esku-zabalak eta idealistak, erreferente izan behar dute, gizarte osasuntsu eta zintzo bat lortu nahi badugu.

Esan dezaket, lekuko bainaiz, gogo eta ahale-gin guztiak jartzen di-tuztela Euskal Herriak le-gitimoak dituen askata-suna eta demokrazia lor-tzen laguntzeko eta Eus-kal Herri hobea baten alde lan egiteko, espetxe-an oso-osito bitarteko gu-txi baldintzate ere. Horrek ematen die zentzua, ha-in zuzen, egiten dituzten eginahal guztiei eta as-katasun faltari. Eta, jaki-na, erabatziur daude he-rriak lortuko duela es-petxeetako ateak ireki-tzea.

GURE HERRIAK ATE-RAKO GAITU HEMEN-DIK. Azken aldian, esal-di hori dabilkit buruan bueltaka, eta haiekin



**Bota bertsoa**  
Igor LASAGA (Berako bertso eskola) • Doinua: Loreak udan ihintza bezala

## Urtarrileko malda

<p>Eguberriak pasa ziren bai Urtezahar ta Gabon Gaba Ospakizunak eta opariak Hartuak ditugu jada Ta bereziki aurtengo hontan Zerk kezkatu bada Berrito ere hemen daukagu Urtarrileko aldapa.</p>	<p>Urte hasierak erakusten dun Itxura dugu makala Dena garesti, langabezia Hola zerrenda zabala Baina gerria ongi estutu Ta eginez eginahala Pasatuko da urtarrileko Kilometro bertikala.</p>
--	---

guztiekin erantzukizun eta konpromiso bat du-gula adierazten du. Gu-re presoak etxean nahi eta behar ditugulako.

Gure txanda da! Eta hor egon behar dugu, helburu horretan denon indarrak bilduz. Eta il-beltzaren 7an, konpro-miso bateratu horren era-kusgarri izango da Bil-bo.

ASKO IZAN BEHAR DUGUGURE ALDARRIA MADRILEN ETA PARI-SEN ENTZUN DADIN: horretarako, gutako ba-koitzaren ahotsa ezin-bestekoa da.

## Mariano Rajoy eta urtarrileko beharpenak

Koldo SAENZ (LAB)

Hauteskuendak joan dira, eta jadanik osatu da Madrilen gobernu berria eta noski parlamen-tu berria. Lehendakari berria daukate espainiarrek; aurretik bi hautes-kunde galduak zituen Mariano Rajoy berbera. Badirudi Maoista egin

zaigula PP-ko lider be-rria, bere egin baitu porro-tetik porrotera, garaipe-nera arte leloa.

Ez gaitezen engaina ordea, bere krisia gain-ditzeko formulak denok ezagutzen ditugu eta. Kri-sitik ateratzeko langile-ok ordaindu behar du-gu, sistema finantziero-ak sortu duen krisia.

Jadanik pista batzuk eman ditu Rajoy-k; enpresetan flexibilitatea aplikatzeko baldintzak hobetzea, kaleratzea merketzea, aurre jubila-zioak bertan behera uztea, langile publikoen soldatak murriztea... Pa-tronalak lasai ospatu di-tzake eguberriak, bere nahi guztiak beteko bai-titu lehendakari berriak.

Jadanik iragarri dute, sindikatuekin negoziatze-a saioa eginen duela (noski UGT eta CCOO-taz solasten dugu), bai-na adostasunik ez bada-go gehiengo absolutua erabiliko duela parlamen-tuan legeri berria onar-tzeko. Beraz galdera bat sortzen zait nere buruan egoera honen aintzine-an: zer eginen dute UGT-CCOO sindikatuak egoe-ra berri honetan: aldake-taren alde borrokatu eta

patronalari kobertura eman?

Euskal Herrian egoe-ra ezberdina dugu, eta aldaketa politiko eta so-zialaren ateak zabalik di-tugu. Argi daukagu Madrilen murrizketak in-posatu eginen dizkigu-tela baina gero eta gar-biago gelditzen ari da, Euskal Herriak subira-utza behar duela bere etor-kizuna erabaki ahal iza-teko; lan arloan ere, gu-re politika sozio-labora-lak Euskal Herrian era-baki behar ditugu.

Zentzu horretan hau-teskuendek esperantza sortzen dute Euskal He-rrian, Amaiurrek lorturi-ko emaitzek erakusten baitute, Espainiako ar-gazkia ez dela Euskal Herriko argazki berdina, eta aldaketa politiko eta so-zialaren alde indarrak batzen dituen koalizioa (Amaiur), Hego Euskal Herrian parlamentari gehien lortu dituen da. Be-raz badago esperantza, baino hortarako langile eta aldaketaren alde gau-den sindikatu guztiek gu-re indar guztiak paratu behar ditugu, Euskal He-rriak subira-utza lortu ahal izateko, inoiz baino be-harrezkoagoa dugu eta.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)  
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**  
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Txirringularitzako etapa ia ahantzia da-go. Txirringulari bezala, bi egun izan zirela dirudi, eta orain ari naizen honetan [Chi-kung egiten] bizitza guztia daramadala. Oroitzapen onak gelditzen zaizkit, oroitzapen gogorrek eta batez ere, lagun aunitz, txirringularien artean lotura handia dagoelako (...) Baliteke nire bizitzako urterik onenean egotea, garairik onenean».

**Jon BRU**

Berako txirringulari ohia  
D. NOTICIAS, 2011.12.05



«Plazaola Partzuergo Turistikoan zenbat eta herri gehiago izan, orduan eta hobe. Krisi ekonomikoaren aurrean, gurea [Leitza] bezalako udal txikien besteek baino gehiago sufritzen dute eta elkartuta indar gehiago izanen dugula uste dugu. Horregatik, Goizueta partzuergoan sartzearen alde eginen dugu, Imotzekin berriki egin dugun bezala».

**Aitor ETXARRI**

Leitzako zinegotzia eta Plazaolako lehendakaria  
D. NOTICIAS, 2011.12.06

**11 galdera labur**

**Nola aurkeztuko zenuke nor den Miren Goñi?**

Neska alai, lotsatia...

**Oronoz edo Mugaire. Oronozkoa izatea Mugairikoa izatea baino hobe al da?**

Nahiz eta batzuek bereizketa egin, ni Oronoz-Mugairekoa naiz. Nire kasuan, Oronozkoa izatea edo Mugairekoa izatea berdina da.

**Zer du Oronoz-Mugairik Aurtitzek ez duena?**

Koartela kenduta (kar kar kar) bi herriak antzekoak dira. Bietan herri giro ona dago.

**Eta alderantziz?**

Agian Aurtizko iñauteak...

**Oronoz-Mugairiko inauterriak, bestak ala Baztandarren Biltzarra duzu nahiago?**

Baztandarren Biltzarra. Baztandar guztiak biltzen garen besta ederra da eta ederki pasatzen dugu. Hala ere, bestek eta iñautek ere badute beren xarma! Zertarako bat aukeratu hiruak egitea posible izanta? kar kar kar!

**Irakasleak erraten den bezain ongi bizi al dira?**

Gauden egoeran

egonta ez naiz kexatzen hasiko. Baina gaur egun hezkuntzan egiten ari diren murrizketak direla eta, ikasleen heziketa hankaz gora jartzen ari da. Eskola publikoaren alde, Murrizketarik ez!!

**Eskola ttiki batean edo haundi batean. Zein duzu nahiago?**

Eskola handietan, normalean, adin bereko talde batekin lanean aritzen gara. Eskola ttikietan berriz, adin desberdineko ikasleak dituzu gelan. Eskola ttikiak nahiago ditut. Harremana hurbilagoa da eta adin desberdinetako ikasleak elkarrekin egoteak bere xarma du.

**Zein afizio dituzu?**

Bidaiatzea, akordeoia jotzea, dantzatzea, parranda, hondartza, zinema...

**Besta egiteko toki bat?**

Konpainia ona bada, edozein tokitan.

**Bisitatu duzun tokirik ederrena?**

Menorkako Makarelleta kala.

**2012. urteari eskatuko zeniokeen zer bait?**

Hezkuntzan, osansubidean... eta hainbat esparru publikotan egiten ari diren murrizketak gelditzea.



**Miren GONI → Oronoz-Mugairiko gaztea**

**ANTZUZELAKI S.L.**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tel: 948 631 317 • Fax: 948 631 367  
Iranga erria: BERA  
www.antzuzelaki.com  
info@antzuzelaki.com

Antzinadeak, angeluak, oma antzinakook, lehoak, atsek, arkuak, pianoak, biniak, edazkak, mozturak, zokaloak, hilaak, marmazkak

**BERA**  
Zere inguruen klase guztietako inakletak (espetroa, zioarra, arriarria, kaxaka...) eta urritai sagetuz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamendurik

**GOI EKU** Inbarnazioa, Pintaketa, Pintaketa  
Tel: 948 631 367 • Zuzen: 40 6 • BERA

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colin Fax. E - Itzea • Tel-Fax: 948 632050 • IRUJAN

**udana salazones**

LINE-EN-ISO 9001  
**LAC**  
SOC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztius  
Bakailu gaztiusa eta kongelatuia, erabiltzeko prest

Kalategi no. Berants. 8 • 23-poboa • LESAKA • Tfno: 948 631 536 • Fax: 948 631 600

## BORTZIRIETAKO KONTZILIAZIO ITUNA

# Ezagutzen ditudan emakumeendako eta ondoan dituzten gizasemeendako

**B**asamortuko lore guziak argitik hurbil daude. Emakume eder guziak nik ikusi ditudanak dira, karrikan beroki luze eta minigonarekin dabilzanak, garbi usaia dutenak eta begiratzerakoan iribarre egiten dutenak. Neurri perfekturik gabe eta bertigoa ematen duten takoirik gabe. Emakumerik ederrenak nere auzoko autobusaren esperoan daude, edo saldo dendetan erosten dituzte poltsoak. Begiak gustatzen zaien bezala eta ezpainak txinoetako karminarekin margotzen dituzte.

Basamortuko loreak begietan irribarreak dituzten emakumeak dira, triste zaudenean eskuak laztantzen dizkizutenak, berokiaren beheko aldean giltzak galtzen dituztenak, lagun taldeetan pizza afaltzen dutenak eta gutti batzuekin bakarrik negar egiten dutenak, ilea garbitu eta haizearekin idortzen dutenak. Egiazko ederrak gara-



gardo hartzen dutenak dira eta zenbat patata jan dituzten neurten ez dutenak, parkeetako bankuetan pipa-boltsekin jartzen direnak, usaintzera datozen zakurrak goxoki laztantzen dituztenak. Igandeko txandaleko dama xarmangariak. Masusta eta erregaliz goxoki usaia

dutenak.

Emakume ederrak ez dira aldizkarietan ateratzen, medikura doazenean begiratzen dituzte aldizkariak, eta nobioaren zain egoten dira marrubi jantziekin. Eta telebistako txisteeekin libre irri egiten dute eta futbola irensten dute, muxu baten truke.

Emakume arrunteei edertasuna darie, ez glamourra, begietara begiratu irribarreak desgastatzen dituzte eta hankak gurutzatzen dituzte eta bizkarra okertu. Argazkietan erretokerik gabeko jendeaz inguratuak agertzen dira, irri karkailaka, beraien inguruakoak besarkatuz talde haundien botilatutako zoriontasunarekin.

Emakume arruntak dira egiazko ederrak, gomarik eta arkatzik gabe. Basamortuko loreak zure ondoan daudenak dira. Maite zaituztenak eta maite ditugunak. Bakar bakarrik tipoz azharatago begiratzearekin aski da, begi ederrez haratago, ongi egindako izterrez haratago, bertigozko bularrez haratago. Pitxi iragankorrek, denboraren aztarnak, formaren arerio eta arimaren arerio. Diben bertigoa eta printzesaren negar.

**Egiazko edertasuna zoriontasunaren zimurretan datza.**

Mario VARGAS LLOSA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak • [ssb@lesaka.net](mailto:ssb@lesaka.net) • Tel: 948 635036

## NOVOPRINT

IKUSI [www.novoprintinformatica.com](http://www.novoprintinformatica.com)

943 610 042 943 612 783

Lucas de Berroa, 18 - behea • IRUN

NAFARROARAKO MATERIAL INFORMATIKO  
ETA ELEKTRONIKOEN KONPONKETA.

BILKETA, ERAMATEA ETA AURREKONTUA DOAN.

ORDEZKAPEN MODULARRIK EGIN GABE, KONPONKETAK  
OSAGAIEN MAILAN EGITEN DITUGU PREZIO OSO ONEAN

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

**Javier Manterola**  
Taldeko zuzendariak  
buruzagia • gero  
kaleak zuzen  
Tlf: 948 630 902 • BERA

erropak • merkadik  
bontak • merkadik  
toslak • bontak  
alfubrak  
**Goya**  
Kortatu 11 - 48100 BERRIO  
Tlf: 948 630 902 • BERA

**ARTEKARI TALDEA**  
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratuetarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta atzerpenak
- Eberritasun eta jubilazio espedientiak
- Bidegaitasun planak eta aurrekontuak

[artekari.com](http://artekari.com)

LESACA: Siltzio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050  
BERRIO: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713



ihateak

ihateak

ihateak

ihateak  
L E I T Z A



2012

**DENAUTO SAGASPER**  
**Tallerra**  
ongi pasa ihoteak!  
Aste honetarako • Gura zerbitzua  
Elusadar Ind. • ARESO • T 948 510 810 • F 948 510 817

**IRUSO**  
Ostakua  
Aresoa • LEITZA  
Haberrea  
T. 948 507 000  
M. 600 073 204  
ONGI PASA IHOTEAK!



**LEITZELARREA S.L.**  
Aroztegi eta Galdereria  
Landa Beikoa Industrialdea, 20  
Tel: 948 510 598 • 609 368 991  
LEITZA

**Eguzkitza**  
GOZOTEGIA  
Eibarren • LEITZA  
T. 948 510 641 • 948 510 646

**Olala**  
**Bazin**  
ONGI PASA IHOTEAK!  
LEITZA • Eibarren, 20. 21. beheko • 948 510 607

**LEIZA ANAIK**  
ERAIKUNTZAK  
ONGI PASA IHOTEAK!  
Lizarraga, 17 • LEITZA  
609 231 961 • 600 334 302



**EZKAIN** eraikuntzak S.L.  
ongi pasa ihoteak!!  
Lizarraga, 3 • LEITZA  
M. 650 910 868 • 650 910 867  
T/F. 948 610 956 • 948 610 956




**Fernando OIARTZUN** | Leitzako inauteri zalea

## «Aurrerapausoak ematen ari gara herriko bertako ihoteriak berreskuratzeko»

Bete-betean gozaten ditu ihoteak Fernando Oartzunek. «parrandan atsareturik fuego», baina antolatzaile lanean ere aritzen da, «bertakoa berreskuratzeko lanetan jo eta su».

### Informazio asko landu duzu inauteriei buruz. Zer aurkitu duzu?

Informazio asko, gerra-aurrean ihoterik nola ospatzen ziren garbi samar jaso dugu. Oroimen kultural hori galtzeko zorian zegoen eta gauza asko aurkitu ditugu. Harrigarria da garai haietako ihoterien aberastasuna. Gainera, elementu eta gauza asko oso bizirik izan ditugu herrian, gure xaharrek bederen bai; eta guri gauza gehienak etorri zaizkigu kanpokoak balira bezala.

### Bitxikeriaren bat?

Bat bakarra bereiztea zaila da. Hauek nabarmenduko nituzke nik: Plazaola, Erreka, Sakulu eta inguru horietako baserrietatik herrira etortzen ziren gazte asko sailean, Berastegikoak eta Leitzakoak nahasian, joare eta kulunka, kulun-kulu-kulun soinu pausatua ateraz erdi lasterrean erdi oinez, herrira etorri aurretik, Aresora edota Berastegira bisita eginda eta otordua eginda. Goitik behera atsareturik etortzen ziren eta ahalik eta dotoreen jantzita: soineko ikusgarria luzea, eskularruak, buruan tuturru luze ikaragarria putre, zapelatz eta oilar lumeeekin apainduta; aurpegia dena estalirik oihal koloretsuarekin; soinean soineko luzea jantzita ia lurrerainokoa, eskuetan eskularruak, esku batean maskuria edo lumeeekin egindako isatsa; gerrialdean txintzarriak eta... Herrira iristerako jendea zain egoten omen zen haien kulunka soinu eta dotorezia urrutitik ikusteko zoragarria baitzen. Gainera, nondik etorriko ziren ere ez zen jakiten eta. Gurdia ere asko ateratzen ziren eta oso ikusgarriak: gizakiak gurditik tiraka behi parean bailiran atsareturik, eta gurdian barrenean astoa apaindurik, putrea apaindurik bizirik... Erljioa eta apaizak irrigarri uzteko antzezpenak ere ohikoak ziren: txakurtxo baten bataioa, elizkizun gisako bat baina lizunkeriaren bat eginda...


### Zein eboluzio izan dute inauteriek Leitzan?

Atsaretzea eta eskean ibiltzea izandu dira ezaugarriak aipagarrienak eta horiek izan dira azken 20 urtetan gehien aldatu direnak. Eskeak bere horretan segitzen du, nahiz eta gaur egun berezko eskerik ez den, egun osoko parranda egiteko beste era bat baizik... Eta atsaretzea, hots, aurpegia estalita zirika-mirika ibiltzea maskuri edo luma-isatsakin, galduxea dago, jende gutxi ateratzen baita tipo horretan. Gaur egun horren orde hiritako moduan disfrazatzen da jendea igandean batez ere. Orain hirikoa bihurtu zaigu eta herrikotik gutxi du, Nafarroako herri dezentetan ez bezala. Dena dela, aurrerapauso zenbait ematen ari gara herriko bertako ihoteriak berreskuratzeko.

**AiNART**  
ILEA PAINDEGIA  
ongi pasa ihoteak!!  
Eibarren, 47 beheko • LEITZA • 948 610 107




**PERITZA TABERNA**  
ongi pasa ihoteak eta txakurtxo baten bataioa!  
LEITZA • 948 610 648





### Garai bateko atsaretzeko erak

Fernando Oartzunek aipatu digunez, «begira zein itxuratako zomorroak ateratzen ziren gure xaharren garaietan, betiere, denak aurpegia estalita»:

- **Neska jantzien edo:** etxekoei edo ahaideei eskatuta emakumeen jantziek estimazio izugarria zuten. Batzuek ilea ere egiazkoa egiten zuten ihoterietarako, arabei ilea mozten zietenean jasota. Ahal zutenek dotore jantzen ziren arropa onekin edo, alegia, zapatak eta goitik behera behar den bezala jantzita.
- **Xarpaxu-xarpaxuk edo:** *sobrekama* edo maindirea edo nolabait gorputz osoa tapatuta. Besterik ez zutenak zakua ere erabiltzen zuten eta zaku-jantzian ibili, goitik behera patuta zakua. Besteren batzuk inon bazen larru zaharren bat edo, hura gainetik jarrita, zomorro-zomorro...
- **Unidez jantzita:** ateratzen omen ziren tipotsu horretan ere, umea balute bezala eta zurezko karroa eta janzkera bereziarekin...
- **Brusek eta koloretakoak botobe haundiekin edo pailazoak edo bailiran:** Herrian saila ateratzen omen ziren horrela: bruxe antzekoa urdina edo gorria eta botoi zuriak goitik behera goian handia eta beherantz txikiagoak patuta, mahuketan ere berdin, eta baita tuturruan (txano kukurutxoduna) ere.
- **Zakukin, zakuzaharrakin jantziak:** zaku-jantzian ibiltzen zirenen artean, oso ohikoa zen txanoa lastozkoa-eta erabiltzea. Eta belarraz edo txurikinez edo bete-beteak egitea. Batzuk lurrera erori eta ezin goratuz eta ibiltzen omen zien, laguntzaileak ondoan zituztela. Hala, batzuk hagitz potzoloak ibiltzen ziren eta beste batzuk, berriz, gutxixeago betez eta gorputzaren forma okertuz edo...
- **Aziendak bailira bezala:** Asto edo zaldi jantzian, larruz estalita, isatsa egiazkoa erantsita; otso jantzian, jendeari hozkak botaz; hartz-jantzian, ahari edo behi jantzian, adar eta guzi; behi edo idi itxuran: uztarrian lotuak, kopetakoekin eta guzti, gurdia arrastan zeramatela eta ondoan beste lagun bat akuiluarekin...

*ongi pasa itxurak!*

**JAI-ALAI Hostala**

Landa Ind. • "LANDA" eraikina 2º  
31000 LEITZA (Nafarroa)

www.jai-alai.es • info@jai-alai.es

*OSPE PASA DUTEREA*

**Lizarraga**  
NARROGIA

"GUREA, KALITATEA"

Elbarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA

**Aliprox**

Tel: 948 510 007 - 948 610 857  
Elbarren, 20-71

*ongi pasa itxurak!*

*Ongi pasa itxurak!*

ENDELOTACIONEN FURGELN TALELS

**ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.**

Ofiz: aprobromentuek • Urarberite lanak  
Bentak eta zapatak azkiloak • Egur eta kate kate bota eta erremateak  
Zurak eta erremateak, gortak

T. 948 500 214 • F. 948 500 887 • M. 600 940 100 - 600 940 121  
Landa Ind. 144-2 • LEITZA • info@zubillagasaralegui.com

**OLIVEIRA - VICENTE**  
eraikuntzak

*ongi pasa itxurak!*

Amazalari 17 • LEITZA • 629 416 431 • 606 307 810

*ongi pasa itxurak!*

**MAIMUR**

Herriko Plaza  
LEITZA

Tfno-Faxo:  
948 510 148

Prentsa • opariak • lastu liburuak  
Plastifikatzeak • enkuadernatzeak  
Inprenta lanak • fotokopiatuak

**AMAIA**  
arraindegia

Elbarren, 72  
LEITZA  
948 510 590

**LEIMEN S.L.**

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz  
MENDILLORRI 628 725 397 david

*Itote zoritetsuak denon!*

*ongi pasa itxurak!*

**Aristela**

ENDELOTACIONEN TALLERNA

*ongi pasa itxurak!*

• Inauterietako telak  
• Kartak  
• Telak, karrik, makinamaria...  
• eta karrikak egiteko pizea guztiak  
• Ohe eta Etxeko proiektuak  
• Ezkai jantziak

T. 948 61 06 11 - 635 71 39 92  
Landa Industrialdia, Suazpi 3 LEITZA (Nafarroa)



**SAGASTI JATETXEA**  
ongi pasa ihoteak!

Elbarreri, 98 · LEITZA · ☎ 948 610 637

**Melo Pinturak**  
T. 009 675 170  
LEITZA  
www.pinturasmelo.com  
melopinturas@hotmail.com

**OGI BERRI**  
KAFETEGI OKINDEGIA  
948 610 974 | LEITZA

**FISIOETXEA**  
Aria Eguerdiko Liria  
Fisioterapeuta  
OPR-REGULADORA · 409 Euzkoako Unibertsitatea  
Bikertetas orrituak · Kirol eta Osasunak Murgak · Dantzaritza  
Lirikak · Aurrerakidetasunak · Erakundeak  
Tokiak · Auzoak · Argiaren  
Hizketa · Funtzioak

Huarte Orotan, 23 C · LEITZA · Tel. 948 610 720

**KIDE**  
aholkularitza

- Karrera-irratia
- Zergak
- Autonomia
- Enpresen azterketa
- Auzoaren transferentzia
- Enpresa-aitortzea
- Aholkularitza juridikoa
- Normak, kontratuak...

ongi pasa ihoteak

LEITZA: Landa Ind. Surope 3 • T. 948 510 990 F. 948 510 429  
DONOSTIA: Begoa 23 - Igo-Esk. • T.F. 945 42 03 48

**ONGI PASA IHOTEAK**

**MUSUNZAB**  
OSTATUAK

- Jatetxea
- Logelak

Elbarreri, 14 · Tel. 948 510 637  
LEITZA



**LEITZAKO INAUTERIAK** | urtarrilaren 21etik 24ra

# Larunbat eguerdiko bazkari eta eskearekin hasi eta astearteko atsaureen kalejirarekin bukatuko dira

**Hurrengo larunbatean**, urtarrilaren 21ean, hasiko dira Leitzako ihoteak, nahiz eta eskolako gaztetxoek **ostiral arratsaldean** hasiko diren atsaureen kalejirarekin. Larunbatean **eguerdiko 2etan** Aurrera elkartean **bazkaria** izanen da eskean ibiliko direnentzat. Gero, **arratsaldeko 4ak** aldera, trikitilari, gaitero eta txistulariz lagundurik, lerro hauek idazterakoan oraindik erabat zehaztu gabea dagoen egitaraua banatzen eta eskean hasiko dira mozorroak herriko etxeetan.

## Igandean atsauretuen kalejirak, bazkaria eta dantzaldia

Larunbateko juergatik deskantsatu ondotik, igande **eguerdiko 12etan** atsaureak Plazatik aterako dira kalejiran eta gurdiak industrialdetik. Etxeko txikienek ere izanen dute gozamenerako auker. Ohitura den bezala, eguerdiko **02:30ean atsauretuek bazkaria** izanen dute eskolako jangelan eta, **arratsaldean**, kalejira abiatuko da eskolatik. **Iluntzean eta gauean** dantzaldia izanen da Plazan. Ondotik txaranga ibiliko da.

## Astelehen eta asteartean puxka biltzea baserrietan

Lagun asko biltzen dira astelehen eta asteartean baserri baserriko eskean. **Astelehen goizeko 09:30ean** elkartuko dira Aurrera parean Gorritzaran, Arkiskil, Sa-



ARGAZIAK: FERNANDO OIARTZUNEN UTZITAKOAK  
Baserrian eta kalean, inauteri giroa Leitzan.

kulu eta Erreka auzoetara puxkak biltzera joateko. Baserrietan dabilzan bitartean, herrian, **arratsaldean**, gaztetxoentzat puzgarriak izanen dira. Gero, **iluntzean eta gauean** dantzaldia eta Incansables txarangen txanda etorriko da. Asteartean **goizeko 09:30ean** dute hitzordua mozorroek Erasote auzora abiatzeko eskean. **Eguerdiko 02:30ean** eskean ibilitakoek bazkaria izanen dute Aurreran eta **arratsaldeko 06:30ak** aldera, Leitzako Atsaureen kalejira izanen da.

**KOMERTZIOA → UDALAK ETA LARUN HAIZPE ELKARTEAK**

# Merkataritzari buruzko gogoeta prozesu parte-hartzailea irekiko da

Urtarrilaren 16an, 23an eta otsailaren 6an egingen dira lan saioak

## TTIPI-TTAPA

Berako merkataritzari buruzko gogoeta prozesu parte-hartzailearen paratu nahi dute abian Berako Udalak eta Larun Haizpe merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen Elkarteak. Horretarako 30 herritarrez, 5 udal ordezkari eta 15 dendariz osatutako lantaldeak eratu dira. Denetara, beraz, 50 beratarrek parte hartu ahal izanen dute prozesuan, Berako komertzioaren ahulguneak eta indarguneak zein diren, beratarren erosketa ohiturak eta nolako erosketa eremuak behar edo nahi dituzten aztertzeko.

Parte hartzeko izen ematea 012 telefonoan egin behar zen urtarrilaren 5a baino lehen eta parte hartzaile kopurua mugatua denez, antolatzailleek konfirmatuko dute izen-ematea, apuntatutako enpresen aukeraketa egingen bai-

ta, auzo eta adin ezberdinetakoak egon daitezkeen prozesuan.

## HIRU LAN SAIO

Prozesuko partaide izateak Beralandetan euskaraz eta gazteleraz egingen diren hiru lan bileratan parte hartzea eskatzen du. Lehenbizikoa urtarrilaren 16an egingen da, 19:30etik 21:30era, 'Berako merkataritzaren etorkizuna. Zein da hemendik 10 urtera Berako merkataritzarentzat nahi dugun geroa?' izenburupean. Urtarrilaren 23an, 'Zein da gaur egungo merkataritzaren egoera? Zein sendotasunak, ahultasunak, erronka nagusienak? Zein inertzia du?' galderari erantzuten saiatuko dira dendariak 14:30etik 16:30era eta gainerakoak 19:00etik 21:00etara. Otsailaren 6an, 19:30etik 21:30era 'Zein dira Berako merkataritzaren lehenetsunak? Zein egitasmoak behar dute bultzada nagusia?' galderari erantzun eta prozesuaren ondorioak lantzen saiatuko dira. Saio guztiak dinamizatzeaz Prometea taldea arduratuko da.



ARGAZKIA: ARITZ PEREZ

## Baratzea lantzen hasi dira Ricardo Baroja eskolan

Ricardo Baroja Eskolako Guraso Elkarteak *Baratzea* deituriko proiektu berria martxan paratu du. Proiektua ikasleak naturarekin harremana mantentzeko eta elikadurak gure bizitzan duen garrantziaz ohartarazteko helburuarekin jaito da. Gainera, behin martxan jarrita, ikastetxeko jangela hornitzea izanen da bertze helburuetako bat. Baratzearen muntaia guraso animatu batzuen kontura izaten ari da eta gero, baratzea lantzeko ardura, irakasle batzuen eta baratze lanetan aritutako aitatxi-amatxi batzuen izanen da. Azken hauek ikasleei erakusteko prest daude eta beraz, aukera ezin hobea izanen dute ikasleek, bertatik bertara baratze batean egin beharreko lanak ikusi eta egiteko. Aitzurrarekin gehien ariko direnak 5. eta 6. mailako ikasleak izanen dira, baina eskolako ikasle guztiak bertatik pasatzeko asmoa dago. Eskualdean betidanik ekoiztutako produktuekin ari nahi da: porruak, azak, azaloreak, letxugak... Horretarako, Toki Ona Institutuak utzitako lurak erabiliko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Kaxernakoen egutegia salgai

Kaxerna Gaztetxearen bostz urte hauetako hainbat momentu bilduz, 2012ko egutegia kaleratu dute gaztetxeko lagunek. Kaxernan, Katakun eta Botxon eskura daitezke, hamar euroren truke.



# LESAKA

UDALA → INFORMAZIO SAIOAK HERRITARREI

## 5,15 milioi euroko zorra duela jakinarazi du Herriko Etxeak

Egoera aunitz aldatzen ez bada, hurrengo 26 urterako zama izanen dela aurrikusten du

**Aitor AROTZENA**

Udalak bilera irekiak egin ditu herritarrekin Herriko Etxeko aferak zertan diren azaltzeko.

Lehenbiziko bilera abenduaren 15ean egin zuten baserriarrek. Biharamonean, abenduaren 16an, Alkaiaga eta Zalain Zokoko bizilagunekin izan ziren eta abenduaren 19an, herrian bizi direnekin eta bertze bileretara joateko modurik izan ez zutenekin izan ziren Udaletxeko batzar aretoan.

Gehien solastu zen gaia Herriko Etxeak daukan egoera ekonomiko larria izan zen. Udalak emandako informazioaren arabera, 2007tik hona 4,8 milioi eurotan zorpetu da Herriko Etxea, gaur egun zordituen 5,15 milioi eurora iritsi arte. Zorraren hirutik bi piszina estaliak eragiten du, 3.400.528,60 euro. Diruzaintza gordekin negatiboaren finantziazioan 680.542,12 euroko zorra dauka udalak (%13,20), 2008an egin dako inbertsioetan (jubilatuen lokalean, burdinaren etxean, piszinako ekipamenduak

egin ziren eta sarrerak espero zirenak baino tikiagoak izan ziren) 450.694,87 euro, saneamendu lanetan 298.213,35 euro, bertzelakoetan (Nabaz, Kartzapegi eta Izotzaldeako urak, Fraingo depositoa, Andra Mari Zahar Etxea eta Bittiriako urbanizazioa) 248.681,46 euro eta kanpoko piszina 76.629,08 euroko zorra eragiten du.

Arazoaren larritasuna ulertzeko, kontuan hartu beharra udalaren urteko aurrekontua 2,8 milioi eurokoa eta Espainiako legediaren arabera, zorpetze muga 1,7 milioi eurokoa dela, nahiz eta Nafarroan, Nafarroako Gobernuaren baimenarekin muga hori gaindi daitekeen, Lesakakokasun bezala. Beraz, egungo zorpetzea legegaren barrenean dago, Nafarroako Gobernuaren baimenaz.

Egoera aunitz aldatzen ez bada, hurrengo 26 urterako zama izanen da zor hau eta horregatik, ez dago apenas inbertsiorako gaitasunik. Joan den urtearen itxiera ez zen defizitario izan eta ez zen zorrik handitu. Udalaren ustez, «Euriborra egonkor mantentzen den heinean eta diru sarrerak eta gastuak egonkortzea lortzen badugu, inongo gastu haundietan sartu gabe, egoerak ez du txarrera egiten eta poliki-poliki zuzen lotik aterako gara».



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Eguberrietako 'Gordo'tik 4,8 milioi euro ehizatu dituzte

Eguberrietako gordoa oso-osorik Huescan saldu zen, baina herrian ere utzi zuen diru mordoxka bat. Izan ere, inguru horretan aspalditik ehizean ibiltzen den ehiztari koadrila batek hamabi dezimo eskuratu zituen eta lagun eta senideen artean banatu. Aski kontent ageri ziren ospakizunean.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### 30 taldek parte hartu zuten Olentzero eta jaiotza lehiaketetan

30 taldek parte hartu zuten jaiotza eta olentzero lehiaketan. Berrikuntza gisara, Olentzeroak plazatik kanpo paratu ziren eta horrek ikusgarriagoa egin zuen lehiaketa. Gainera, plazarako sarbidea autoentzatz itxia zegoen eta jendeak lasai ederrean ikusi ahal izan zituen olentzero eta jaiotzak. Helduen kategorian Ziharkak (eskuineko argazkian) irabazi zuen lehiaketa eta Añarrak taldeak jaso zuen olentzero onenari Esparza Saria (ezkerreko argazkian).



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### 68 haurrek parte hartu dute Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketan

68 neska-mutikok parte hartu dute Beti Gazte elkarteak antolatutako 2011ko Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketan. Haurrek eta gaztetxoek, herriari buruzko 30 galderei erantzun behar zioten eta abenduaren 29an egin zen sari banaketa elkartearen egoitzan. Saridunek, material didaktikoan erabiltzeko erosketa bonoak, errotuladoreak, USB memoriak eta koaderno bana izan zuten, baina parte hartzaile guzietan izan zituzten sariak.



# ETXALAR



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Unai Ubiria lesakarrak jarri du martxan negozio berria.



ARGAZKIAK: AMAIA ZELAIETA ETA JONE BIZENTE

**MERKATARITZA → DENDA BERRIA**

## Harategia zabaldu dute Xurienean

### Iruñe eta Itsaso

Heria bolada bat harategirik gabe egon ondotik, Jauregieta, 29an zabaldu da berria. As-telehenetik ostiralera goizetan 08:30etatik 13:00 etara eta arratsaldean 05:00etatik 08:00etara zabalik egoten da. Larunbatetan berriz, 08:00etatik 13:00etara.

### Mendi irteerak inoiz baino lehenago

Zanpingorri mendi taldea azken urteetan baino lehenago hasi da irteerak egiten sasoi honetan. Hurrengo, urte-



ARGAZKIA: JOSE MANUEL VICENTE

### 85 urtekoei omenaldia

San Frantzisko egunean iaz 80 urte bete dituzten herritarrei omenaldia egin zien Larraburuak. Omen-  
duak Teodoro Iribarren, Isabel Iturria, Pepita Iturria eta Lucio Arretxea izan ziren. Ondotik, giro ederean, 70 bat lagunek bazkaria egin zuten.

ro egiten dena, San An- rrilaren 22an. Plazatik  
tonera izanen da, urta- abiatuko dira 08:00etan.

### Giro ederrean joan dira Eguberriak

Abenduaren 24a arratsaldean hainbat lagunek txistulariek lagunduta, herriari itzulua eman zioten bi olentzeroren irudi eta olentzero bizidun batekin. Meza ondotik elizako atarian kantuan aritzeko aukera izan zen txistulari, trikitilari eta txalapartariekin. Urteroko luntxaz aparte aurtengoan plazan pintxoak eta txokolatea dastatzeko aukera izan zen gazteen eskutik.



ARGAZKIA: PATXIKU IRISARRI

### Euskal preso politikoen eskubideen alde

Abenduaren 17an preso eta iheslari politikoei elkartasuna adierazteko poteoa eta afaria egin zuten 23 lagunek. Ekimen horren antolatzaileek adierazi dutenez, afari hori ondotik egiten ari diren bertze ekimen batzuen barrenean egin zen. Urte-zahar arratseko kontzentrazioan, adibidez, 45 lagun bildu ziren eta urtarrilaren 7an Bilboko manifestaziorako deia egiten zieten herritar guzieri.

# ARANTZA

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK

## Antzezlanak, Olentzero eta Erregeak hurrengora arte agurtu ditugu

Eguberriak bukatu ondotik, urte berria sasoiari abiatu dugu

### Nerea ALTZURI

Urte zaharra ekitaldiz bete bukatu zen. Eskolako lagunak antzezlanek jendetza ederra bildu zuten eta urtero bezala, arratsalde polita igarozuten eguberri aitiziko larunbatean. Tiki tikitik koxkorretara, talde bakoitzak prestaturiko antzezlanekin irri ederrek ateratu zituzten.

Eguberri bezperan, ohi bezala, Olentzeroren kantari ibili ziren. Aurten ordea, goizetik kalejiran ibili ziren eta arratsaldean, Olentzeroren bisita jaso zuten. Gainera, Mari Domingik, bere andregaiak ere, egun horretako giroa eta haurren muxuak jasotzeko irrikazuenaz, denek ezusteko ederra eman zien.

Horrela, Olentzero eta Mari Domingik goxokiak eta muxuak banatu ostean, hurbildutako guzietan kantu eta kontu tartean merendu ederra egin zuten. Iaz ez bezala, aurten eguraldi ederra zen, ateri mantendu zen eta iragarritako giro ederrean bete ziren.

Biharamunean, Santaktan ibiltzeko intentzioa bazen ere, hondarreak ekitaldi hau ez zen egin.

### FUTBITO

Urte Zahar egunean, egun osoan futbito partidak jokatu ziren. Txapelketa honetan bortz taldek parte hartu zuten. Arratsaldean, finalaurreko eta finaleko partidak jokatu ziren. Txapelduinak, Unai Iparragirre, Imanol Lukanbio, Alberto Fagoaga, Julen Oteiza eta Julen Oskozek osatutako taldea izan zen. Azpitxapelduinak beriz, Imanol, Jon, Xabi eta Borja Iturria, Ander Almandoz eta Jose-



ARGAZKIA: ANDONI ZULAIKA

Olentzero eta Mari Domingiri harrera beroa egin zitzaizen herri sarreran.

ba Pikabea izan ziren. Txapeldunek, herriko jabetxe batean afaria saria dute. Izen ematean bildutako diruarekin eta Udalletxeak eta Gazte Asanbladak emaniko dirulaguntzarekin afariak ordainduko dira.

Ilunarreko euri langarrak ez zituen herritarrak etxe zuloan geldiarazi. 50 inguru lagunek Euskal Presoak Euskal Herrira eskatuz kalejira egin zuten trikitilarien laguntzaz. Plazatik Aterpera eta Goiko Karrikatik bar-

na berriz ere plazara itzulia egin zuten. Gogoratu behar dugu era berean, Udalak, abenduaren leheneguneko plenoan, urtarrilaren 7an Euskal presoaren eskubideen alde egindako Bilboko manifestazioarekin bat egitea erabaki zuela.

Lerro hauek idazterakoan, ilbeltzaren 5ean urteroko Errege kabalgata, eta errege egunean beriz, Arantzako Aterpeak antolaturiko Mendi Mutil ohien besta egitekoak ziren.

### Zozketa

Guraso elkarteak antzezlanen saioan zozketa egin zuen. 1.saria, zaria, Mendialdeko Anttoniri, 3. saria urdaiazpikoa Barrazabalera joan zen eta 4.saria, presio-eltzea, Zuzaineko Maixeri tokatu zaito. 3.saria, Elgorriagako bainuetxean zirkuitu termala bi lagunentzat da eta 15 egun pasatuta atera ez denez, berriro egin dute zozketa: zenbakia 0073 izan da. 15 eguneko epea dago zenbakia agertzeko.



ELKARTEAK → BATZORDEAREN ERDIA BERRITUKO DA

## Igantzikoko Biltokik urteko batzarra egingen du hilaren 21ean

Mus eta partxis txapelketak asteburuan abiatu dira

### TTIPI-TTAPA

Igantzikoko Biltoki elkarteak urteko batzar orokorra egingen du urtarrilaren 21ean, larunbatarekin, arratseko 20:30ean lehen deialdian eta 21:00etan bigarren deialdian. Bileran honetan, elkartearen kontuak, bazkideen altak eta bajak eta urteko programa aztertuko dira, eskari-galderen txandaren aitzinetik.

Ondotik, 21:30 aldera, zuzendaritza batzordea berritzeko ez ohiko batzarra egingen da. Hamabi lagunek osatzen dute batzordea eta ur-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Beratik Goizuetara urtarrilaren 15ean

Azken 20 urteetan bezala, Beratik Goizuetara ibilaldia antolatuko du Agerra mendialdeko taldeak. Elkartetik edo Agiñatik oinez edo autobusean Goizuetaraino joan eta bertan bazkaltzeko aukera ematen du.

tero erdia berritzen da. Aurten, Idoia Urtxegi presidentea, Rosa Sein diruzaina eta Jabier Telletxea, Miren Mitxelena, Aitor Almandoz eta

Xabi Almandoz bokalak juntatik ateratzekoak dira eta hauen ordezkotak aukeratu beharko dira. Beraz, presidentea berria izanen da.

Bertze alde batetik, ilbeltzaren 7an hasi zen Biltoki elkarteak antolatutako mus txapelketa eta 8an berriz, partxis txapelketa.

### BERA

Mugikortasuna landuz Ekintza Plana onartu du Udalak

### TTIPI-TTAPA

Abenduaren 22ko udalbatza ahobatez onartu zuen Berako Udalak Mugikortasunerako Ekintza Plana. 2010eko uztailean mugikortasunerako diagnostikoa aurkeztu zenetik, herrian egindako partaidetza eta azterketa-prozesu oso baten emaitza da, herriko kirola, kultura, hezkuntza eta gizarte arloko hainbat eragilerekin landu da azkeneko hilabeteetan. Errazak direlako, kostu ekonomiko eskasa dutelako edo garrantzitsuak eta urgenteak direlako, epe laburrean abian jar daitezkeen neurriak identifikatu eta azpimarratu nahi izan dira.

expert

BORTZIRIAK

%20  
DESKONTUA  
SUKALDE  
ALTZARIETAN

Bidasoa, 45 · 31780 Bera · 948 630377 · 948 631091 · info@bortziariak.com · www.bortziariak.com

## BORTZIRIAK

GIZARTEA → BORTZIRIETAKO ALKATEEN SALAKETA

# Osasun zerbitzuak Irun eta Donostiatik Iruñera bideratzen ari direla salatu dute

Bilera eskatu diote Marta Vera Osasun kontseilariari

## TTIPI-TTAPA

Bortziritako herritarrek betidanik Irun eta Donostiako erietxeetan jaso izan duten mediku zerbitzuak Iruñera bideratzen ari direla salatu du bortz herrietako alkateek. Azkeneko asteetan hainbat herrita-

rrek euren kezka eta ezinegona agertu dute, orain arte Irunen eta Donostian jaso izan dituzten tratamenduak eta kontsultak bat-batean Iruñera bideratzen dizkietela jakinarazi baitiete. Alkateen erranetan, «ohikoak bihurtu zaizkigu dialisiak, espezialisten kontsultak, ebakuntza ondoko tratamenduak, transplanteak, eritasun degeneratiboak, errehabilita-

zioak... Iruñera bidaltzea. Kasu batzuetan baino ez dute garraiorik izaten horrelakoetan, garraio publikoa guztiz murrizta denean».

Gero eta argiago adierazten dute Osakidetza ez dituela Bortziritako eriak artatuko, bereziki eritetxeetatik bertze zentru batzuetara bideratzen dituenetan. Donostiako Onkologikoan tratamenduan edo segimendua egi-

ten ari zaizkion Bortziritako lau herritarri jakinarazi diete urte berriarekin Iruñean segitu beharko dutela euren tratamenduekin eta antzeko egoera bizi izan dute erditzea programatu dieten haurdunek ere edo transplanteak izan berri dituztenek.

Bortziritako alkateek salatu dute «Osasunbidea eta Osakidetza bakarrik irizpide ekonomikoak erabiltzen ari di-

rela». Bortziritako herritarrek Irungo eta Donostiako ospitale eta anbulategietan izan duten zerbitzua mantentzea eskatu dute eta kontuan har dezatela «Iruñeko ospitalera 70 kilometro ditugula, eta aldiz, Irungora 15, edo 35 Donostiakora». Arazoari irtenbidea bilatzeko, Nafarroako Gobernuko Osasun Kontseilari Marta Vera-ri bilera eskatu diote.

GIZARTEA → BORTZ HERRIETAKO EKIMENA

# Presoen eskubideak bermatzen lan egingen du Egin Dezagun Bidea Ekimenak

Presoak etxeratzen hasteko eta erabat aske izateko etenik izan ez duen bidea hasi dela adierazi du



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Presoen eskubideen alde lan egingen dute Egin Dezagun Bidea ekimeneko kideek.

## TTIPI-TTAPA

Bortziritako Egin dezagun Bidea ekimenak «lan tresna berri» honen aurkezpena egin zuen abenduaren 17an Lesakan. Talde berriaren erranetan, «garai berriak heldu dira, baina oraindik Euskal Preso Politikoei salbuespen ezartzen zaizen kartzela politika, errepresio eta erabilpen irizpideen arabera antolaturik dago». Horren adierazgarri dira, ekime-

naren ustez, «20 urtetik gora dirauen sakabana-keta politika, bai eta azken hamarkadan gogortu diren muturreko neurriak ere».

Neurri hauek aipatu zituzten: «kondena osoa betirik edo gaixotasun larria izanik preso mantentzea, askatasun kondizionala desagertzea eta behin behineko askatasuna apenas aplikatzea, isolamendua, presoen aurkako xantaia etengabea, bakartzea, urrun-

tzeak, lekualdatze erabat arbitrarioak, erasoak, jipoiak...».

Euskal presoek politikarekin eta ezberdindua aplikatzen zaiola gogortu ondoren, desberdintze honen oinarriak «euskal presoen jatorri politikoa eta izaera kolektiboan» dagoela erran zuten ekimenak.

Gisa berean, kartzela politika errotik aldatu eta konponbide klabeetara igaro behar dela adierazi eta zera aldarrikatu zu-

ten: «Eskubide guztiekin, Euskal Presoak Euskal Herrira; kondenaren hiru laurdenak bete dituzten presoak kalera, lñaiki kalera; bizi arteko doktrina indargabetu; gaixotasun larrian dauden presoak kalera eta isolamendu eta bakartzearekin amaitu».

Orain hasten den bidea «seguruena luzea» izan dela iritzi zioten, «baina lehenbailehen presoak etxeratzen hasi teko eta guztiak erabat

aske izatera ailegatzearaino etenik izan ez duena». Hor kokatzen da Bortziritako Egin Dezagun bidea.

Bortziritako instituzio, gizarte eragile, elkarre eta banakakoei auzolaneari aritzeko gonbitea ere luzatu zieten eta lehenbiziko aukera urtarriaren 7an Bilbon egiteko zuten mobilizazioa zela azaldu zuten: «euskal preso eta iheslariak etxera ekartzeko, denon artean lortuko baitugu».

**EGUBERRIAK → HAINBAT JARDUERA AURTEN ERE**

## Eguberriei dagozkien ohiturak bete dira aurtengoan ere

Ulibeltzak elkarteak ireki dute obrak akitu ondotik

### Maider PETRIRENA

Abenduaren 22an, eskolako azken egunean, Maridomingiren bisita izan zuten eskolako haurrek. Ondotik gosari goxo-goxo izan zuten eta horrekin akitu zuten ikasturtearen lehen hiruhilekoa.

Abenduaren 24an olentzero etorri zen. 15:30ean hasi ziren ibilbideak, bi taldeetan banatuta. Ulibeltzak elkarteak itxita zegoela eta, frontoian egin zuten berrendua, txokolatada, eta haurrek olentzerori eskutitza eta muxu emateko aukera izan zuten. Olentzerok bere aldeetik, goxokiz betetako poltsak banatu zituen.

Eguberri egunean, ohitura den bezala, gazteak arratsaldean el-

kartu eta egunari dagozkion kantu koplatan ibili ziren karrikan eta baserrietan barna. Karrika egin ondotik Itturburun afaldu zuten eta gauzez baserrietara joan ziren.

Urteberri egunean, aldiz, haurrek *Urte berri berri* kantatzera ateratzen dira herrian barna. Hauek ere auzoka banatu ziren, alde batetik errepide nagusiko auzoa, bertetik eskolako auzoa eta, azkenik, baserriak.

### Ulibeltzak

Bi hilabete eta erdi itxita egon ondotik, abenduaren 30ean ireki zuten berriz Ulibeltzak elkarteak. Egin diren berrikuntzak denen gustokoak izatea espero da.

### Euskal Herriko mus txapelketa

Aurtun ere Euskal Herriko mus txapelke-



ARGAZKIAK: ICIAR MIKELPERIZENA ETA MAIDER PETRIRENA

Goiko argazkian, Maridomingi LHKo 2. mailako ikasleekin eta Marta tutorearekin. Erdian, Olentzerorekin ibilbidea egin zuten neska-mutikoak. Behean, Urteberri egunean herriko bi auzoetan kantuan ibili zirenak.

taren fase bat herrian antolatuko da. Urtarrilaren 13an izanen da Ulibeltzak elkarteak.

Biketeko 20€ ordaindu behar da, eta aurtengoan, azken fasea Arbizun izanen da.

21:30ean hasiko da apuntatzeko epea eta 22.00etan hasiko da txapelketa.

**HERMANOZ TOLITUEN**  
**HC**  
**ERAKUNTZA LANAK OIORKORREAN**  
 Zuzenberritasun, sukakibak, komunik...  
 Alkatatasun, lertzak, garapen...  
**HC BERA (Nahasa)**  
 670 084 744  
 948 630 554  
 albertaloboa@gmail.com

**MERKEALDIA Martutzak-en**

- ♥ Kamisetak: bat -%20 | bi -%30
- ♥ Berokiak eta txamarrak -%50 arteko deskontuak
- ♥ Jertseak eta txaketak -%30
- ♥ Soinekoak eta gonak -%20, -%30 eta -%40
- ♥ Galtzak -%30
- ♥ Desigual haurrak: bat -%20 | bi -%30

HELBIDE BERRIA: Bidasoa, 12 | BERA • 948 631 425  
 ORDUTEGI BERRIA: Astelehena: 10:00-13:00 | 16:00-20:00 • Larunbata: 10:00-13:00  
 Asteartea, asteazkena, osteguna eta ostirala: 10:00-13:00 | 17:00-20:00

# ELGORRIAGA

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNEZ OSPAKIZUN

## Herriko haurren argazkia biltzen duen egutegia argitaratu dute

Gurasoek gauza andana antolatu dituzte Eguberrietan

**Jose Ignacio OLAZAR**

Haurrek ongi pasatzeko hainbat jarduera antolatu dituzte Elgorriagako gurasoek. Lehenik, herriko neska-mutikoekin argazkia egin dute eta argazki horrekin 2012ko egutegia argitaratu dute. Gero, abenduaren 17an hasi ziren pisuetako plazan Eguberrietako zuhaitzajartzen eta apaintzeko bildu zirenean, Gabon kantak ere entsaiaitu zituzten. Abenduaren 22an bainuetxera joan ziren neska-mutikoak, bainua hartu eta txokolatea dastatzera. Abenduaren 24an Eguberrietako sariaren

zozketa egin zen eta Olentzerori ongi etorria etxez etxe kantuan ibili ziren. Abenduaren 28an ateraldia egin zuten Iruñeko Itaroara. Koxkorrenak izotz pistan patinatzen ibili ziren eta ttikienak City-Parkera. Gero, Iruñean bertan berendatu zuten.

Urtarrilaren 5ean, azkenik, Zorroiloak elkartean bazkaria egin dute neska-mutiko eta gurasoek.

### Herriko batzarra urtarrilaren 14an herriko lanak erabakitzeko

Urtarrilaren 14rako, larunbata, batzarra deitu du Elgorriagako udalak 17:00etan. Nahi duten herritar guztiak parte hartzen ahal dute, 2012an eginen diren lanak batzar horretan bertan erabakiko baitira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko neska-mutikoekin argazkiarekin egutegia egin dute aurten ere gurasoek.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gazteak puxka biltzen ibiliko dira etxez etxe.

## Inauteriak urtarrilaren 20 eta 21ean

**J.I. OLAZAR** | ELGORRIAGA

Elgorriagako inauteriak urtarrilaren 20 eta 21ean izanen dira. Urtarrilaren 20an, ortziral arratseko 20:00etan inauteriak hasteko su-ziria botako da eta, he-

rriarn barna ibili ondotik, Hilarion jatetxean afora izanen dute, akordeolariak girotua.

Urtarrilaren 21ean, larunbata, Ostatuan go-saldu ondotik herriarn barna ibiliko dira gazte-

ak puxka biltzen. Hilarionen bazkaldu ondotik, mozorro lehiaketa eta zozketa eginen dira eta arratsean, gazte-ek eta nahi duten herriarnak afora eginen dute.

**ANSONEA** jatetxea  
Eguneko menua  
Menu begetarianoa  
Menu makrobiotikoa  
Plater konbinatuak  
Bakatak + Erraztasak  
999 231 991  
Bilbo, 2012, 11. 229 A

TTPI-TTAPA ALDEKARIA  
SARE SOZIALEAN  
**facebook**  
www.facebook.com/Tipi-Ttapa

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
www.zubiondo.com  
BAGRIZUENGA JAIETZAK  
Aljasta Karrika  
TEL: 945 20 20 20  
BERA NATARROA

Ospatu urte berria, ingurumenarekin bai  
yonolotiro.es zure lagun ikusezina

Elgorriaga Herriko Udala  
Nafarroako Gobernua  
Nafarroako Herriko Batzarreko Batzordeak

OTRANA

KIROLA → ERREKAK ANTOLATUA

## 175 korrikalarik parte hartu zuten VI. San Silvestrean

Goizean Mendaurrea igo ziren 60 bat mendizale

**Nerea TELLETXEA**

Seigarren edizioa bete zuen abenduaren 31n Erreka elkarteak antolatutako San Silvestre lasterketak. Marka berria ere egin du lasterketak, helduen kategorian 115 korrikalari atara baitziren eta bertze 60 neska-mutiko ttikienen kategorian.

Ohikoa denez, eguraldi kaxkarrari aurre eginez giro aparta izan zen. Helduen gizezkoen kategorian hirugarren urtez segidan Iñigo Arregi doneztebarra nagusitu zen, 4 kilometroak 11 minutu eta 21 segundutan eginez. Bigarren Xanti San Migel doneztebarra izan zen (11:35) eta hirugarren Patxi Irazoki igantziarra


(11:36). Emakumeen artean, berriz ere Maika Ariztegi iturendarrak irabazi zuen (14:10), Maria Telletxea doneztebarraren (14:44) eta Leire Telletxea beratararren (16:10) aitzinetik.

Probaren ondotik, herriko komertzioek eskainitako hainbat opari eta 15 produktu-lote zozketatu ziren.

Gainera, Errekak Leire Uterga Labianori ere oroigarria eta lore-xorta eskaini zizkion, esku-zabal egiten duen lan bikainarengatik. Berak eman zion hasiera lasterketari, Herriko Etxeko balkoitik suziria botaz.

**GOIZEAN MENDAURREA**

Baina Errekaren Urtezahar eguna goizean goiz hasia zen. Urtero bezala, mendizaleak Mendaurrea igotzera gonbidatuak zeuden eta 60 bat lagunek aurre egin zioten eguraldi kaxkarrari.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Futbol-zelai berria inauguratua eta lehen golegileei oroigarria

Iñaki Indart futbol-zelai berria abenduaren 8an inauguratu zuten ofizialki, nahiz eta Doneztebe Futbol Taldea osatzen duten 204 jokalariek denboraldi hasieratik erabiltzen ari diren. Inaugurazio ekitaldian, eskualdeko nahiz Nafarroako Gobernuko eta Futbol Federazioko hainbat agintariek parte hartu zuten eta Miguel Angel Pozueta Nafarroako Kirol Institutuko presidentek eta Jose Luis Diez Nafarroako Futbol Federazioko presidentek egin zuten ohorezko sakea, baita Doneztebe Futbol Taldeko presidente Jaime Seinek ere. Kontent ageri zen zuzendaritza batzordea, 2004an taldea sortu zenetik «etxeko» partidak Taxoaren, Uhartzen eta Elizondon jokatu behar izan baitituzte. Horiez gain, alkate eta zinegotziak eta Begoña Sanzberro eta Maria Isabel Garcia Malo kontseilari ohiak ere izan ziren. Taldeen aurkezpena, Aurrekua eta bedeinkazioaren ondotik, lagunarteko partida jokatu zen Doneztebeko erregionaleko taldearen eta Osasunako eta Realeko veteranoen artean. Geroztik, Doneztebe Futbol taldeak oroigarri bana eman diete kategorian ezberdinetan zelai berrian lehen gola sartu dutenei. Ezkereskuin: Jon Apeztegia, Ainhoa Larrea, Jon Sein; Mikel Retegi, Xabier Mariezkurrena, Asier Arozena eta Enaitz Iriarte.

### KOMERTZIOA

#### Tonbola eta erakusleiho lehiaketa egin ditu Eguberrietan Doneztebarrak Elkarteak

**Nerea TELLETXEA**

Eguberrietan Doneztebarrak merkatarik elkarteak tonbola antolatuta du. Sari banaketa abenduaren 30ean egin zen eliz atarian. Arrakasta handia izan zuen, baita ondotik emandako txistorradak ere.

Denetara 11.000 boleto inguru banatu dituzte elkarteak sartuak diren 49 asoziatuek abenduan. Boleto hauetako batzuk sari zuzena izan dute eta bertzeek zenbaki bat zozketan parte hartzeko. Azken hauek, abenduaren 30ean eliz atarian egon

behar izan dute bere zenbakiak saririk ote zuen jakiteko. Sari bikainak banatu dira oraingoan ere.

Eguberrietako erakusleiho lehiaketa ere antolatu du Doneztebarrak elkarteak eguberrietan. Lehiaketa honetan 13 bazkidez parte hartu dute eta garailea Belen Loradenda izan da, bigarren Kimetz Belardenda eta hirugarren Lakar Etxea.

Herritarrek botoa emateko aukera izan dute, eta hauen artean zozketatutako eguberrietako saskia Petra Jorajuriak eraman du. Zorionak!

### Olentzero arrakastatsua

Partaidetza handia izan zuen Olentzero eta Mari Domingiren etorrerak. Ibilbidea herriko txistulariek, akordeoilariek, trikitalariek eta Agorretako Musika Eskolako ikasleek animatu zuten. Zazpigarutze plazan dantzari txikiek beraien dantzak erakutsi zituzten. Ondotik, Santa Luzia plazan, Erreka Dantza Taldeak eta Mendi Abesbatzak emanaldia egin zuten eta txundituta utzi zuten herri guztia.

### Ibon Rekartek istripua mendian

Doneztebeko Ibon Rekarte mendizaleak istripu larria eduki zuen abenduaren 26an, Huescako Peña Forca mendia igotzen ari zela. Animo aunitz eta ahalik eta lehen errekupe ratzea espero dugu.

### Zillarrezko Titarea

Maria Jesus Elizondok jaso zuen 2011ko Santa Luzia egunean Zillarrezko Titarea, Ana Etxeberria eta Juana M<sup>a</sup> Muñoz zinegotzien eskutik.

## NARBARTE

**EGUBERRIAK → ZALDI GAINEAN ETORRI ZEN**

### Olentzerok ez dio hutsik egin bere hitzorduari

Eguberri egunean jaiotza biziduna prestatu zen

**Martin BERTIZ**

Ez dio hutsik egin bere hitzorduari eta urte-ro bezala menditik jaitsi zen Olentzero. Zaldi batek ekartzen zuen gurdi baten gainean jarrita agertu zen, bere ondoan astoa opariz beterik zuela. Herrian barna jendearen gutunak biltzen ibili ondotik, trinketea ogitarteko bat eta ardo tragoxka bat hartu eta bere martxa segitu zuen, jakina baita Olentzerok egun horretan lan aunitz izaten duela.

**Jaiotza biziduna**

Eguberri egunean meza ondotik jaiotza biziduna izan zen. Bere lekua hartu du herriko eguberrietan eta ohitura bihurtu da. Ez da errexa izan jendea biltzea, baina aurten ere hogeit bat bolondres elkartu eta ikuskizun polita eskaini zuten.

**Traktore eta motoen errebisio tekniko urtarrilaren 31n**

Nekazaritzako ibilgailuen eta ziklomoto- rren azterketa tekniko eginen dute urtarrilaren 31n, 10:00etatik 13:30- era, Narbarteko Plazan.



Goiko argazkian, Olentzeroa eta haurren ilusioa. Behean, jaiotza biziduna.

## URROZ

**AZPIEGITURAK → OIZKO ZENTRALEKO KANALA**

### Oizko zentralera ura daraman kanala konpondua oraingoz

**Joseba URROTZ**

Orain dela 110 bat urte egin zen Lesako iturburutik hartu eta Oiz-zen dagon argindar zentralera ura eramaten duen kanala. Garai hartako Mugica y Arellano enpresak (aspaldi Iberdrolan sartua) egin zuen obra.

Ageri denez hormigoiak ere bizi mugatua du eta kanal honek noiz nahi ur-darioak izaten ditu. Urteak joan ahala bere egoera okertzen ari da eta pasa den abenduaren 11ko goizalde-

an zulo haundi bat egin zitzaion. Horren ondorioz Beintza-Labaien aldera doaien errepeida moztua gelditu zen ura eta lohiarekin.

Geroztik, aste bat inguru moldatzen aritu ondotik aski ongi konpondu dute baina, seguraski, etorkizunean ere holako gauzak gertatzeko arriskua hortxe dago.

**Olentzerori harrera jendetsua**

Aurten ere agertu zen

Olentzero herrira, eta haurrei eta gaztetxoei opariak eskura eman zizkien. Iaz bezala, ume mordoak bildu zen, batzuk urduri, bertzeak beldurrez. Kantuz eta oihuz deika aritu ondotik, Olentzero goitik behera agertu zen manddoko gainean opariak ekarriz. Herriko karrika batzuetan barna itzulitxka egin ondotik, frontoian egin zuen opari banaketa. Haur gehienak pozik, baina ikatza ere ekarri omen zuen batzuentzat!



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Kanala hautsi eta errepeida moztu behar izan zen.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Olentzerori harrera ona egin zioten herritarrek.



## BERTIZARANA

ETXEBIZITZA → ORAIN SALTZEKO ASMOA DU

### Udalak moldatutako pisua ikusteko *ate erekien* eguna egingen da larunbat honetan

Neguko erreketen inguruko bilera ere larunbatean egingen da

**Miren URRIZA**

Gauza ezaguna da joan den urtean udalak pisu bat erosi zuela NARBARTEN. Etxebizitza oso osorik moldatu zuten eta orain salgai jartzea erabaki dute. Hori dela

eta, jendea etxebizitza ikustera etortzea nahi du Udalak eta hortarako *ate irekien eguna* antolatu dute, jendeak ikus dezan etxebizitza nola gelditu den.

Horrela, bada, interesatuta daudenak urtarrilaren 14an, goizeko 09:00etatik 11:00etara bertaratu daitezke. Norbaitek ezin badu joan, udaletxera deitzea bertzerik bertzerik ez du. Telefonoa hauxe da: 948592018.



ARGAZKIA: MIREN URRIZA

#### Erreparazeko zubia konpondua

Aspaldian hainbat harri mugituak zeuden zubian, batzuetan ugaldeta botariak agertzen ziren. Azkenean, bailarako udal langileak konpondu egin ditu.

#### Neguko erreketaz bilera

Urtarrilaren 14an, goizeko 11etan, neguko erreketen inguruko

hitzaldi informatiboa egingen da Udaletxean. Urtero, gaizki egindako erreketekin suteak sortzen dira, eta holakorik ez izateko, hitzaldia

ematera etorriko dira. Bertaratuko direnak, suhiltzaileak, oihantzainak eta EPRIF erakundeak (erreketak babes ten dituen taldea).

AZPIEGITURAK → MANTENU LANAK

### Legasako bidegurutzeko errotondak egoki moldatu dituzte

Kuku elkarteak kontuen bilera egingen du hilaren 14an

**Miren URRIZA**

Legasako sarbidean dauden biribilgune horiek garbitzeko behar handia zuten. Auniztan belar eta sasiz estaliak egoten ziren eta autoz joaterakoan traba handia egiten zuten. Orain harria eta legarra bota dute eta itxura berria

hartu du sarbideak. Konponketa hau Nafarroako Gobernuako enpresa batek egin du.

#### Olentzero

Olentzeroren panpina kontzejutik hartu eta txistularien laguntzarekin herriari buelta eman zioten gazte, haur eta helduek. Frontoian berrendu goxua zuten prest. Ilundu zenean, asto gainean menditik jeitsi zen olentzero eta herriko txikiei opari bana eman zien. Haurren

kopurua azkeneko urteotan aunitz handitu da eta 40 opari inguru banatu zituen.

#### Kuku Elkartearen bilera

Urtarrilaren 14an 2011ko kontuen bilera egingen dute. Ordua zehaztu gabe zegoen hau idazterakoan. Aurreko alean aipatu bezala, elkartearen garbiketa lanak hartzeko enkantea abenduak 31n egin zen. Eskaintza bakarra So-



ARGAZKIA: MIREN URRIZA

Herrik sarrerako biribilgune itxuraberrituak.

nia Andresena bazkidearena izan zen eta be-

rak garbituko duela 2012an elkarteak.



ARGAZKIA: MIREN URRIZA

Herriko neska-mutikoez ongietorri beroa egin zioten Olentzerori.

## ITUREN

OSPAKIZUNAK → EGUBERRIAK

# Joare soinuak eguberri eta errege bezperatan

## Arkaitz MINDEGIA

Pasatu dira olentzero eta erregeen bisitak. Eguberri bezperan, olentzero etorri baino lehen, gaztetxoek herrian barrena buelta eman zuten kantari, olentzero txikia astoarekin karro gainean zutela. Ilunabarrean, suziriak eskuetan zituztela, ongi etorria ematera hurbildu ziren Joaldunak.

Errege bezperan ere sekulako besta izan zen. Arratsaldean gaztetxoek joareak jo zituzten Aurtiz eta Iturenen. Gauean herri afaria izan zen eta ondotik, gazte eta zahar, neska eta mutilek joare soinuez bete zituzten bazterrak.

## Agur 2011

Aurreko urteetan bezala, neska-mutiko polit eta ederrak sortu dira, bertako eta kanpoko jendeak etxeak zaharberri eta berriak egin dituzte, mediku-kontsultaziteko mutikoen eskola konpontzen ari dira... udala ere azaroan aldatu zuen... orain 2012a dugu aurrean. Urte berri on!

## Egin dezagun bidea

Malerrekako Gazte Asanbladak Bilboko manifestazioari atxikimendua emateko bidea egin du. Malerrekako hainbat pertsona eta talderen atxikimenduak ageri dira, tartean Iturengo alka-



UTZITAKO ARGAZKIK

Neska-mutikoak eta joaldunak Olentzerorekin ibili ziren.

te eta zinegotziak, bertasolariak, txalapartariak,

joaldunak, herriko jende eta Trikidantzeko kide-

ak. Bideoa *youtube* n ikus daiteke.

**ttipi-ttapa**  
www.ttipi.net

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu,  
deitu telefono honetara:  
(0034) 948 63 54 58

**HARBIZTI**  
Bidasoan Bizi! **SUNBILLA**

www.vivienbidasoa.com

**PISUAK • GANBARAK  
GARAJEAK • LOKALAK**

Informazioa eta salmenta  
607 946 785 - 948 109 818

**BELURRA**  
Promociones y Construcciones, S.L.

**XATURETXEA**  
ZABALA  
JATETXEA

T: 948 637 260 - LESAKA

**IRU BIDE**  
Entregable - Asfalto

www.iru-bide.com  
T: 948 637 177

**ELKARTEAK** → LEIRE BAZTERRIKAK BERE BURUA ESKAINI DU

## Gaztegunea irekitzeko eskaintza egin dute

12 urtetik goitikoak beste txoko baten bila hasiak dira

### Fermin ETXEKOLONEA

Olentzero etorri zen Eguberri bezperan. Lehenbizi gazteak, gurasoak eta haurrak etxetik ibiltzen dira, turroia, xoxa, goxokiak eta beste bilduz. Gero menditik jausten da Olentzero eta herriko estalpera joaten da opariak banatzera. Denak kontent gelditu ziren. Errege bezperan, baserrian eta herrian ibili ziren gaztetxoak eskean joareekin. Gauean helduen txanda izan zen. Eguerriak pasatuta, San Anton egunari eta inauteriei begira daude herritarrak.

### Helduen bertso eskola

Abenduaren 16an hasi zen Malerrekako helduen bertso eskola. Eskolako beheko solairuan biltzen dira ostiraletan 20:30ean. Bost lagun bildu ziren lehen egunean, baina oraindik ere animatu nahi duenak atekak zabalik izanen ditu. Hurrengo saioa urtarrilaren 13an izanen da.

### Gaztegunea

Nafarroako Gobernuaren laguntzarik gabe, aurrera begira Gaztegunea nola antolatu aztertzen ari dira gurasoak. Ines Gerekak lehenbizi utzi eta Lourdes Santestebanek hartu du urte baterako. Lehendakari ordea Beatriz Babaze sartu da, Maria Salanuevaren lekua

hartuz. Idazkaritza eta diruzaintzan segituko dute Txasek eta Ferminak. Gurasoek ordaintzen duten kuotarekin ireki nahi da eta Leire Bazterrikak eskaintza egin du asteartetik ostiralera 17:00etatik 19:00etara irekitzeko. 12 urtetik goitikoek ere bazuten txoko bat, baina orain leku berri baten bila ari dira.



ARGAZKIA: AMAIA OTXANDORENA

Olentzeroak behar bezalako ongetorria izan zuen Zubietan ere.

## URTARRIL HONETAN. EZ ZAITEZ ETXEAN GELDITU

KANARIEN URTARRILAK ( 8 EGUN   70€ )			KARIKO ( 8 EGUN   6 SAH )		
<b>TENERIFE</b>	94€	310€	<b>PUNTA CANA</b>	80€	790€
<b>LANZAROTE</b>	94€	330€	<b>RIVIERA MAYA</b>	80€	790€
<b>KANARIA HANDIA</b>	92€	370€	<b>SALVADOR DE BAHIA</b>	90€	710€

**INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:**  
 Estreñak 22. katea, 31760 BERRIA Navarra  
 Tel: 941 631 000  
 E-mail: berr.31760@vialia.com

Aholkuen onarria ez bada, gureakak MAIORDIAK. Prezioak pertsona bakoitzak dute eta gita bitartean eta aurrezkoak erreserbatzen.  
 Urtarrilaren egun zaharri bakoitzeko kateko dute. Bakoitzeko dute zehatzak. Erreserbatu egunaren kalkulatu gaituz gero gabe. INC.  
 Datorren urtearen: MA: Lupaia Sakerrik; DE: Hira eta Zuzenka eta DE: Gena Berris.

## EZKURRA

MENDIA → AURREHISTORIA EZAGUTUZ

# Erakurri eta Iruñarriko ibilbideak seinalizatu dituzte

Beste harrespila bat eta kobazulo bertikala topatu dituzte

**Fernando ETXEBERRIA**

Ezkuratik eta Perralekutik Erakurri mendira (1.142 metro) igo eta Aurrehistoriako zenbait monumentu (harrespil, trikuharri...) ikusi ondotik Euskal Herriko garrantzitsuenetakoa kontsideratua dagoen Iruñarriko menhir edo iruinarrira hurbiltzeko dauden aukera eta ibilbideak seinalizatzeko lana bukatu berri du Beñat, Txukun, Tito eta Fernandok osatutako boluntario taldeak. Gehienetan gertatzen den bezala, hemen ere kritikak izan dira. Batzuentzat ez du balio ibilbideak kartel eta pintura bidez zehaztea, inork ez duelako kasurik ere egiten. Beste ekologista usate batzuen arabera, berri, pintura gehiegi era-

billi da, «natura kaltetuz». Hala ere, boluntarioak pozik daude, dagoeneko hainbat lagunek egin baitute ibilbidea eta batzuk seinalazioa eskertu dute. Hurrengo urratsa, ibilbideak eta horiek egiteko behar den denbora zehazten duten panelak jartzea izanen da. Abenduaren 31n, Aztun eta Maloan kartelak jarri ondotik, egoera oso onean dagoen harrespila eta kobazulo bertikala topatu zituzten eta aztertzen saiatuko dira.

### 2012ko egutegia

Ezkurra ostatuan salgai dago 2012ko Ezkurako egutegia, sei argazki biltzen dituena. Batean herria elurtua ageri da eta besteen artean, jubilatuen bazkaria, Amabirjin pestak eta balio handiko bat: 1965eko Arantzazurako erromesaldia erakusten duena, dagoeneko hilik dauden bizilagun asko ageri baitira.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Erakurri inguruko ibilbideak seinalizatzen aritu diren boluntarioetako batzuk.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Urte Berri On

Ezkurra, Eratsun eta Leitzako gazte eta ez hain gazteek Barranka Ostatuan ongi hasi dute urtea, pesta eder batekin. Lerro hauen bidez, Ezkurako eta beste herrietako irakurleei 2012 urte zoriontsua izan dadila opa diegu. Aurreikuspen politiko-ekonomikoak onegiak ez direnez, umore onari eutsi gutxienez, hori izanen baita suertatzen zaizkigun zaitasunei aurre egiteko oinarria.

## ERATSUN

INAUTERIAK → URTARRILAREN 13TIK 15ERA OSPATUKO DIRA

# Herri bazkaria izanen da larunbatean Peñagarikano eta Mendiluzerekin

**Maite TELLETXEA**

Ostiralean afari batekin hasiko dira aurten goinauteriak Eratsunen. Ondotik, Modesto eto-

rriko da bere akordeoiarekin kantari aritzeko.

Larunbatean bazkaria izanen da Peña eta

Mendiluze bertsolariekin, arratsaldean etxe ibiltzen dira gazteak, bakoitzean kantatu eta dirua eskatuz. Gaue-



ARGAZKIA: MAITE TELLETXEA

Aurten ere mozarrotuko dira herriko gazteak.

an afaria eta dantzaldia izanen da Modestorekin. Igandean, bazkal-

du ondotik, euskal kantatu zaharrak kantatzen ariko dira.

## BEINTZA-LABAIEN

AIZKORA → DESAFIOA

# Xabier Mindegia eta Julen Kañamaresen arteko aizkora apustua Donezteben

Otsailaren 19an eguerdian jokatu da frontoian



UTZITAKO ARGAZKIA:

Kañamares eta Mindegia gazteak, apusturako prestatzen ari dira.

### Amaia MINDEGIA

Abenduaren 16an Labaiengo Xabier Mindegia desafioa luzatu zion Arostegiko Julen Kañamares gazteari. Hitzordua Doneztebeko Titi ostatuan abenduaren 23an finkatua zuten. Horrela, aipatutako bi aizkolariak, beraien laguntzaileak ondoan zizutuztela, hantxe elkartu ziren. Xabierren proposamena lau kanaerdiko eta lau oinbiko lana zen, Julenek aldiz kanaerdi gehiago nahi zituen oin-

bikoen ordez. Hizketaldi luze baten ondotik eta lan bakoitza ongi aztertu ondotik, adostasun batera iristea lortu zuten. Azkenean, egin beharreko lana, zortzi kanaerdi eta bi oinbikoetan adostu zuten. Jokoan jarri beharreko



ARGAZKIA. FERNANDO ETXEBERRIA

### Etkez etxe kantuan ibili ziren Gabon gauean

Gabon gauean, etkez etxe ibili ondoren gabon kantak kantatzen, Labaiengo ostatuan berendua izan zuten herriko neska-mutikoeak. Ondotik Olentzerok goxokiak banatu zituen bertaratutako guztiei.

ditu kopurua ere hantbertan erabaki zuten, aizkolari bakoitzak 3.000 euro jokatzea erabakiz. Seinale gisa egun hartan 1.000 euro jarrituzen bakoitzak, eta diruzain Titi Ostatuak jabea izanen da. Gai nontzeko dirua apustua baino hiru egun lehenagotik jarri beharko dute bi kirolariak. Gaixotasunen bat izanez gero, 72 ordu lehenago aurkeztu

beharko dute sendagilearen agiria, eta gehienez ere astebete atzeratu ahal izanen dute, tarte horretan atzerapea eskatu duenak, bertzeari eguneko 50 euro eman beharko dizkio. Apustura kirolari bakoitzak bi laguntzaile eraman ahal izanen ditu. Aipatu ere, Nafarroako Herri Kirol Federazioak kontrolatuko duela apustua eta amaieran

dopinaren aurkatu proba pasatu beharko dutela.

Parekotasun handiko desafioa ikusi ahal izanen da datorren otsailean, duela gutti arte bi aizkolariak Nafarroako 2. mailan arituz baitira, nahiz eta Kañamaresek 2011ko irailan Uharten jokatu zen finalean txapela irabazi zuten Mindegia 20 segundu ateraz.

**GRUPO TANATORIO TALDEA**  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

**24 ORDUKO TELEFONOA**  
**948581959 | 948637404**

LEKUNDEHERRI | BERRAUSAN JOSE | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETITZA | BISTELU  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BAZTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLINGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

# SALDIAS

ONDAREA → PRESARIK GABEKO ERROTA DAUKAGU

## Bai ote dakigu errotako presa bota zutela?

Saldiasko eta Eratsungo presak aldi berean bota zituzten, 2009an

### Markel LIZASOAIN

Elizondoko urtegia kendu nahian dabilzan honetan, batzuek akaso ez dute jakinen Saldiasko errotaren presa txikitu zutela makina bat ekarrita 2009an. Ez inori abisatu ez herritarrei galdetu, baimenak erdietsi, etorri eta bota; beuna baliuz bezala. Gainera, Espainiako telebistan eman zuten gauza negargarri hori, gezurrak bat bestearen atzetik esanaz: presa horrek ehun urte zituela, amuarrainik ez zela presa horrengatik eta batek daki zer gehiago.

Errotako martxa eza gutu duen jendeak hartuko zuen penarik handiena. Haietako bat, Argineko bordako Migeltxo. Han zen joana bota zu-


ten egunean. Telebistako belarrimotz batzuk galdezka aritu zitzaizkion, eta ematen zuen adarra jotzen ari zitzaizkiola. Iku-si nahi duenak, Interneten dauka (<http://www.rtve.es/television/20091103/rios-sin-barreras-escarabajoverde/299054.shtml>).

Galdetu zioten ea noiztik ezagutu zuen presa, eta hark, zer esanzen zuen ba, beti ezagutu zuela hor eta 200n urte ere izanen zituela; konfederazioak ezetz, denik ere ehun izanen zituela. Izan ere, ez da zilegi herrietako gauza zaharrak hola eta hola botatzea. Konparazio: Etxalarkoa ez dute bota, aspaldikoa delako; gurea ere, ordea, ez zen oraintxekoa; harri pikatuarekin egina zen, erroa egin zuten garaiakoa. Eta, hamaika kontu zelebre ikusteko jaiotak baikara, 2008an sari bat eman zion Garalurrek Saldiasko Udalari, «Saldiasko irin-errotak herriaren gizarte- eta ekonomia-historiarekin zu-

Honela zegoen presa duela bi urte arte...



...eta horrela dator erreka gaur egun.



zeneko lotura duen toki-ondarea» izateagatik; alegia, ordurako aitortua ziguten errota aspaldikoa dela, eta horrentzat eman zuten saria. Dirutan: 6.000 euro. Diru hori errotako teilatua berritzeko gastuetarako ibili zuen udalak. Eta hor dago errota bat, martxan paratzeko balio ez duena, presarik ez baita!

Ez dago erraza asmatzen zer ote dagoen horren denaren atzean, baina nola liteke jendea hola engainarazi nahi izatea amuarrainaren kontu horrekin: gure adine-

ko jendeari aditu diogu lehen ez zela amuarrainaren eskasiarik, eta orduan orain baino maizago joanen ziren arrantzara, goseak bidalita. Orduan, nola liteke azken 200 urteetan akitu ez den gaur bat 20, 30 edo akaso 40 urtean hainbeste behetzea? Gainera, presarik ez den erreketan ere eskasia bera omen da.

Orain alferrik da hola aritzea; kendu digute beste gauza bat, eta ikusiko dugu presarik gabe ea amuarraina bueltan ugaritzen den Ezkurra-ko errekan.

### HAUTESKUNDEAK

Alkate berria dute Aranon, Donamarian, Elgorriagan, Iturenen eta lehengoa Urrozen

### TTIPI-TTAPA

Abenduaren 10az gerostik, alkate berria dute eskualdeko bartz herrik. Aranon aldeko boto guztiak jasota, Ainhoa Ansa da alkatea; Donamarian ere arazorik gabe izendatu zuten Mikel Arregi alkate kargurako; Elgorriagan Jose Ignacio Olazar izanen da alkate, baina gainerako zinegotziekin ardurak banatu egingen ditu; eta Iturenen Mari Jose Bereauk hartu du alkate ardura. Guztiak alkate lanetan lehenbiziko aldiz ariko dira. Urrozen, ordea, azken urte hauetan alkateztan aritu den Inaxio Urrozek segituko du karguan, abenduaren 10eko kargu-hartze egunean bartz botoetatik lau hartu ondotik.

**APARAN, S.A.**  
ERIKOLAILA eta ZURAK

Melamina taulak  
Taula hidrofugoak (uretik babesteko)  
Txapaz estalitako taulak  
Entzimerak  
Ate aruntak eta sukalde mobleendakoak  
Pintura eta bernitzak  
Bainurako mobleak eta osagariak  
KIT mobleak: esku-erremintak, itabi

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**Zalain**  
JATEXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa s/zg. 31760 Bera - Nafarroa  
T: 948 631 106 www.zalain.com

**PPSOE,**  
Euskal  
Telebista  
digitala  
Nafarroan  
orain!

Barria erosi taldea

**BEINTZAKO  
OSTATUA**

948 45 01 14

ORBELA

ARKUPEAK → URTEKO AZKEN BESTA

# Arkupeak elkarteak 583 bazkide bildu ditu urte bukaerako bestan

Agoizko adintuendako unibertsitatearen laguntza izanen dute

## TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak urte bukaerako besta ospatu zuen abenduaren 14an Donezteben eta 583 bazkide eta hainbat gonbidatu bildu zituen. Horrekin batera, 2012ra-ko prestatu dituen ekitaldien berri eman zuen.

Ekitaldiak hasteko, hildako bazkideen omenez, meza eman zuten Biain, Zugarramurdi eta Apeztexea apaizek. Pakita Mikelarenak ofertorioan kantatu zuen eta M<sup>a</sup> Isabel Mitxelorenak hildako bazkideen izenak irakurri zituen. Meza ondo-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Giro ederrean bazkaldtu zuten Arkupeakeko bazkideek Doneztebeko kiroldogian.

tik, Bittor Elizagoien bertsolaria aritu zen eta behin eliz atarian, lagunartean solasteko aprobe-txatu zuten erretiratuek.

Ondotik, bazkaria izan zuten kiroldogian. Aitzinetik, Pedro Mari Bañares presidentea, aurtengo

berrikuntzak azaldu zituen. Honela, bazkideendako zenbait ikastaro eta solasaldi egiteko asmoa dauka elkarteak. Bañaresek aipatu zuenez, «Agoizko Francisco Yndurain adintuendako unibertsitatea-

ren laguntza izanen dugu eta zenbait ekitaldi ekarriko ditugu Doneztebera. Beraiek etortzeko prest daude».

Bertzetik, elkarteak gehien kezkatzen duen gaitako bat autonomia pertsonala eta depen-

dentzien prebentzioa da. Presidentearen arabera, «adintuen Kontseiluko bilera batean, Gizarte Gaien Departamentuko kezka nagusietako bat ere horixe dela jakinarazi zuten eta horrek pozten gaitu. Horrek erran nahi du Departamentuaren lehentasunetako bat izanen dela dirulaguntzak ematerako orduan».

## 2012KO BIDAIAK

Bidaiei dagokienez, Apirileko Feriarekin bat eginez, Andaluziara joateko asmoa dute. Irailean Paris aldera joateko asmoa ere badute. Ordiziako merkatuaren bosgarren mendeurrenera ere joateko intentzia dute eta guttienez, hilabete behin egun bateko bidaiak ere egin gogo dituzte.

## Urteko azken bilera ere egin zuen zuzendaritza batzordeak

Uztailean Pirinioetara joanen dira mendizaleak

## Fernando etxe

Urteko azken bilera ere egin zuen Arkupeak elkarteko batzordeak abenduaren 28an. Bestan aipatutako kontuetaz gain, beste zen-

bait ere izan zituzten hizpide. Hala nola, bidaia berezien artean, uztailean mendizaleek eginen dutena aipatu zen, bost egunez segidan Artouste, Formigal (Roya kanalaren zeharkaldia), *ibon* edo aintzira urdinak, Midi D'Osseau eta Ordesako Cola de Caballo igoko baitituzte. Gainera, Larunera trenez igo ondotik,



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko zuzendaritza batzordea bildu zen abenduaren 28an Donezteben.

Sara eta Urdazubiko leizeak ere bisitatuko dituzte, Zugarramurdi bazkalduz. Herrietako delegatuek bazkideen kontu zenbakiak biltzen

egindako lana eskertu zuen batzordeak eta, aldi berean, delegatuek deus kobratzen ez badute ere, bazkideen zerbitzura egiten di-

tzuten kilometro eta telefono gastuak ordaintzen zaizkienez, kontu horiek txukun eramateko zerrenda bana eman zitzaizkien.

# GOIZUETA

TXAPELKETA → SARIKETAREN XI. EDIZIOA

## Aimar Karrika auriztarrak irabazi du Xalto sariketa

**TTIPI-TTAPA**

Xalto sariketaren hamakagarren edizioa abenduaren 17an jokatu zen Goizuetan. Nafarroako hamabortz bertolarik hartu zuten parte eta goizeko zein arratsaldeko saioen ondotik Aimar Karrika auriztarra nagusitu zen.

Goizez bi kanporaketa izan ziren eta horietan erabaki zen arratsaldeko finalera pasako zen seikotea. Hauek izan ziren arratsaldeko finalean aritu zirenak: Aimar Karrika (Auritz), Iker Tainta (Lesaka), Irati Majuelo (Iruñea), Iker Gorosterrazu (Ituren), Mikel Azpiroz (Leitza) eta Jose Luis Barberia Zili (Leitza). Arratsaldeko lanak eginda, Aimar Karrikak lortu zituen puntu gehien. Goizuetako udaleko ordezkari batek jantzi zion txapela txapeldun berriari, Oier Barroso lagunari eskaini ziona.

pela txapeldun berriari, Oier Barroso lagunari eskaini ziona.

**Haur Txokoaren loteria**

Haur Txokoak saldu-tako loteria partizipazioak badu saria. Hain zuzen, jokaturakoa haina bueltatuko da. Urtarrilaren 4tik aurrera kobratzen ahal da Nafarroako Kutxako bulegoan.

Gainerakoan, Eguerriak betiko martxan igaro dira herrian. Oporrak hartu aurretik Eguerrietako jaialdia egin zuten eskolan. Abenduaren 24an, goizez haurrak ibili ziren kalez kale eta arratsaldean, presoan aldeko Olentzerorekin kalejira egin zen. Ilunabarrean ongietorria eskaini zitzaizkien Olentzerori eta Mari Domingiri.



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA  
Xalto sariketan parte hartu zuten bertsolari gazteak.



ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA

**2011 bukaera garaipenez betea**

Garaipen ugarirekin joan zen 2011 bukaera herriko pilotarientzat. Horietan aipatuena, beharbada, Aimar Olaizolak jantzi zuen bosgarren lau t'erdiko txapela izan zen. Baina etorri ziren txapel gehiago ere. Burlatan, esaterako, Iker Salaberriak txapelketa irabazi zuen, Iraitz Zubizarreta ataundarra lagun zuela –goiko argazkia–. Eta Nafarroako Jolasen barne, alebinen hirugarren mailan, Manex eta Eñaut Apezetxea izan ziren txapeldunak. Alebinen lehenengo mailan, berriz, Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxea nagusitu ziren. Ez dakigu profesionaletara ailegatu eta Aimar adina txapel lortzeko aukerarik izanen ote duten, baina esku pilotak badu etorkizuna gurean.

**Ba al zenekien...**

80 bat lagun joan zirela urtarrilaren 7an Bilbo-ra autobusean, euskal preso politikoen eskubideen aldeko manifestazioarekin bat egitera. Horietaz aparte, autoz ere joan ziren batzuk.





# Bi Herriak

TABERNA - JATETXEA

EGUNEKO MENUA · PLATER KOMBINATUAK · OGITARTEKOAK · RAZIOAK...

Otordu goxoa egiteko, tragoxka bat hartzeko,...

LEXU PAREGABEA! Bixita gaitzazu!

Akarregi Ind. 1 · HERNANI | 943 331 228






OSPAKIZUNAK → EGUBERRIAK

## Olentzero aurten ere herriko baserrietan pasiatu zuten

Lasai abiatu baziren ere, herriko haurrek ederki eutsi zioten goiz guztiko bueltari

**Ainhoa ANSA**

Olentzero begi gorri... eta muturra ere gorritua, aulkian eserita eta gabonetako saski bat ondoan zuela pasiatu zuten herriko haur eta gurasoek herrian zehar. Kantari hasi eta bazkari goxo batekin bukatu zuten, nahiz eta etxez etxe eskainitako gozo guztiekin goraino aseta egon! Aurten, gainera, azken urteetan ez bezala, Benta Berrin eta Arranbiden ere izan ziren bertakoak ere bisitatzen. Ongi etorriak



ARGAZKIA: XABIER CUETO

Olentzerorekin baserriz baseri ibili zen koadrilla, Leontxon Bordako atarian.

izan ziren etxe guztietan eta jasotako diruarekin urtean zehar beharrezko jostailu eta materialak erosiko dituzte oraingoz Udaletxeko ganbaran duten txokoa hornitzen segitzeko.

### ZOKKETAK

Bazkal ondoan, berriz, Olentzeroren ondo saskia zozketatu zuten herriko txikienek, hau Arranbideko zentralera egokitu zen. Beste zozketarik ere

izan zen abenduaren 24an, izan ere, Kontsejun zozketatzeko zuten saskiaren sariduna ere egun horretan atera zuten. Saski hau Victor Gasconi egokitu zitzaion.

### MANKOMUNITATEA

Oinarrizko errenta jasotzeko aldaketen aurka kanpaina egin da

### TTIPI-TTAPA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak sinadura bilketa eta informazio kanpaina egin ditu abenduaren 14tik 19ra Nafarroako Gobernuak, oinarrizko errenta arautu eta hau jaso ahal izateko baldintzak jasotzen dituen lege proiektua salatuz. Mankomunitatearen ustez, «lege berriak, bizi baldintzak okertu besterik ez ditu egiten; egoera ekonomikoa konstantan izanda, laguntzak hobetu beharrean, oinarrizko errenta izateko baldintzak gogortu nahi dituzte».

**MERKEALDIA**  
ASTE TXURIA  
URTARRILAREN 12TIK AURRERA

edredoi fundak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · albormozak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRLINEA · 948 230 634

## LEITZA

UDALA → MILIOI TERDIKO INBERTSIOAK EGINEN DIRA

## 3.738.850 euroko aurrekontua onartu du Udalak

Bilduren aldeko bozkekin eta UPN eta DNEren abstentzioekin onartu ziren

(0-3), Okile tailerra, Gizarte Zerbitzua, Euskara zerbitzua, UEMA, Udalbiltza, Kultura zerbitzuak...». Dena den, aurrekontuen garapenean sarrera eta irteeren arteko oreka mantentzea ere ezinbesteko helburua izanen dela azpimarratu nahi du.

Aldaketa inbertsioetan dator eta gehienbat 2012an Azpiegitura Planaren barrenean hainbat inbertsio egin behar direlako. Hala, Amazabalen urbanizazio lanetarako 779.560 euro erabiliko dira eta edateko uraren tratamendu-estazioan 652.543 euro.

Azpiegitura Planetik aparte beste lan batzuk ere badaude aurrekontuetan: UE50ko urbanizazio lanetara 51.920 euro bideratuko dira eta mendiko garbiketa lanetarako 45.000 euro.

Bestelako lan eta inbertsio txiki batzuekin, 2012ko inbertsioak osotara 1.555.223 eurokoak izanen dira.

## TTIPI-TTAPA

Abenduaren 30eko batzarrean hainbat gai landu zituen Udalak eta horien artean garrantzitsuena, 2012ko aurrekontuak onartu zituen, Bilduko 9 zinegotzien aldeko bozkekin eta UPN eta DNEko zinegotzien abstentzioarekin. Urte honetarako aurreikusiak dauden gastu eta diru-sarrerak 3.738.850 eurokoak izanen dira.

Oier Eizmendi alkateak aipatutakoaren arabera, «gastu ordinarioak aurreko urtearekin konparatuz berdintsu mantentzen dira eta Udalak zerbitzu publiko guztiak mantentzeko ahalegina egingen du. Hala nola, Haur Eskola



UTZITAKO ARGAZKIA

### Urteko egutegia prest dauka Mendibil Mendi Taldeak

Urte berriarekin hilabeteroko ateraldiekin segitzeko asmoa azaldu du Mendibil Mendi Taldeak eta horretarako egutegia ere prestatuxea dauka. Lehenbiziko ateraldia urtarrilaren 28-29an egingen dute Arette-La Pierre St. Martinera, mendiko eskiaren hastapeneko ikastaroa egitera.

## PLANTILA ORGANIKOIA

Era berean, hurrengo urterako plantila organikoia ere onartu zuen batzarrak aho batez.

## ALKATEAREN DEDIKAZIOA

Honekin batera, Alkatearen dedikazioa egun erdikoa izatea erabaki zen eta horretarako aurrekontuetan partida egokitu da; urtean 12.800 euro (gordina), bere lantokian jasotzen duen soldataren erdia.

## ZINEGOTZIETAN ALDAKETAK

Jose Antonio Olaetxea Bilduko zinegotziaren kargu uztea onartu zen, lan arazoak direla medio eta ordezkioa izendatzeko prozedura abiarazi da.

## Kontsumismoaz ohararazteko

*Ez gaitzabela kontsumitu! Kontsumo aske, kritiko eta burujabe baten alde goiburuean, hainbat ekitaldi antola-*

tu ditu Atekabeltza Gaztetxeak Eguberrietan. Truke azoka, saskigintza eta eskulan tailerrak, eta *Comprat, tirat, comprat* dokumentala.

## TTIPI-TTAPAren kuota 16 eurokoa

2012an 16 euro kobratuko dira TTIPI-TTAPA urte osoan etxean hartzeko. Leitzako Udalak ere beste 16na euro ordaindu ditu harpidedun bakoitzeko, guztira 4.416 euro.

ETXEBIZITZA → BABES OFIZIALEKOAK ETA TASATUTAKO PREZIOKOAK

## Elgoiengo etxebizitzaren giltzak banatzen hasi dira

## TTIPI-TTAPA

Elgoien auzoko Goiko Landa inguruan eraikitako 48 etxebizitzaren giltzak banatzen hasi zen Uzti eraikina joan den urte bukaeran. Honela, etxe berrira aldaera egin ahal izan dute bizilagun berriek, Olentzeroko opari gisara. Erreklamazioak egiteko epea ere zabaldu dute.

Zehazki, 24 pisu babes ofizialekoak dira eta beste 24ak tasatutako prezioakoak. Pisuen prezioa diferentia da neurriaren eta izendape-

naren arabera. Esate baterako, 70 metro koadroko babes ofizialekoak 109.830 eurotan saldu dira eta handiak 133.365 eurotan. Tasatutakoak, berriz, txikiak 126.700 euro inguruan eta handiak 153.850 eurotan saldu dira. Hiru bloketako bizilagunak hasi dira bilerak egiten eta erabakiak hartzen.

Etorkizunean, Udalak Landa Behekoan ere 216 pisu egiteko asmoa dauka, baina plan hau gauzatzeko zazpi urte beharko omen dira.

**ERDIZ**

**ARKITEKTOAK + ABOKATUAK**

ANOLKULARITZA ARKITEKTONIKO ETA JURIDIKOA

TXOSTENAK · PROIEKTUAK  
OBRA ZUZENDARITZAK · ZAHARBERRITZIAK  
ANOLKULARITZA JURIDIKOA · ENPRETA MOTA GUZTIAK

TELEFONO ARRETA: 17.00etatik 20.00etara  
gastu horiek gaitzak dira **995 33 24 11**

Barrañan Etorbidea, 17 - 3. Bulegoa - IRUÑEA



ARGAZKIA: UXUE GOIKOETXEA

Udal ordezkariak Herriko Etxeko kontuen inguruko azalpenak eman zituzten.

**HERRIKO ETXEA → BILERA**

## Herritarrekin bildu da Udala azalpenak eman eta zalantzak argitzeko

Urte erdiko ibilbidea azaltzen duen eskupapera ere banatu da

**Juana Mari SAIZAR**

Udalak, urtea bukatzeko, lan balantzea argitaratu eman nahi izan zuen eta abenduaren 30ean, deia egin zien herritarrei, azalpenak eta zalantzak argitzeko, herri barna zabaldu zu-

ten eskuorrian, labur ikus zitekeen 6 hilabete-ko ibilbidea, bileran diru sarreraren eta irteeren xehetasunak eta etorkizunean nola jokatu nahi duten argitu zuten.

**Eguberriak joan Urte berria etorri**

Bada ia hilabete bat azken berriak ikusten ez ditugula, seguru hainbat gauza pasa direla bitartean baina errepa-soa emanez hau da nabarmena, eguberriak

protagonista, herriari apaintzen omentzeroren etxetxoa, jaiotza plazan eta haurren kantan herriari barrena eta nola ez eliz ospakizunetan.

Eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen alde batera edo bestera horretaz gozatu ahal dugunoi, esker-erak lan egin duen edonor, bai toki batean edo bestean, modu batera edo bestera, batzuek disfrutatzen, besteek lan egin behar baitute.



ARGAZKIA: ESTER TOLOSA

### 115 kiloko basurdea ehizatu dute

115 kiloko basurdea ehizatu zuen herriko koadrilla honek Aresoko mendietan. Herri askotan ibilia omen zen basurdetzarra, baita ikusia ere, baina Aresoko ehiza taldeak lortu zuen ehizatzea. Egunerok ez da horrelako pagotxa bilatzen.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Elizako jaiotza ikusten ahal dugu argazkian. Urteik urtera handiagoa eta ikusgarriagoa da




Miguel Astrain kalea 21 (atzekaldea) Iruñea - 948115727

LTDxo (TDT) instalatzaileak gara, baita seinale estaldurarik gabeko eremuetan (satelito bidez).

Canal+ plataformaren banatzaileak gara eta bideozaintzako sistemen instalatzaileak.

**CANAL+**



**QUANTIS Satellite**  
bidezko interneta jartzen dugun enpresa gara.

Internet estaldurarik ez duen eremu batean bizi zara? Hispasat satelitearen bidez, 4 Mega eskaintzen dizkizugu edozein tokitan (diru-laguntzarekin).

25 urte baino gehiagok, gure lana bermatzen dute.

[www.telesat.es](http://www.telesat.es)

# BAZTAN

SALAKETA → DISKRIMINAZIOA

## Gobernuak ez duela laguntzen diote herrietako alkate eta kuarteletako juntakideek



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Herrietako alkateak eta kuarteletako juntakideak kexu agertu dira Gobernuarekin.

Bertze gauzen artean, euskarazko hedabideen diskriminazioa salatu dute

### TTIPI-TTAPA

Baztanek eta orokorrean, eskualde osoak Nafarroako Gobernuaren eskutik jasaten duen diskriminazioa salatu zuten abenduaren 29an herrietako alkateek eta lau kuarteletako juntakideek. Bertze arrazoiaren artean, azken uholdeen ondotik hondamendi-eremu izendatu ez zelako arrenkura azaldu dute, baina herriei ematen zaien diru-sailen murrizketagatik eta euskarazko komunikabideei egiten zaien diskriminazioagatik ere kexu agertu dira.

Herrietako alkateak eta kuarteletako juntakideek gogorarazi dutenez, Baztan da Nafarroan eremu geografiko handiena hartzen duen herria eta hain sakabanutua dagoen populazioaren beharrak asetzeko zailtasun handia ekartzen du horrek.

Azaroaren 6ko uholdeek kalte handiak egin zituen Baztanen, azpiegiturei eta zerbitzu publikoei 150.000 euro

inguruko gastua sortuz. Arlo pribatuan izandako kalteak gehitu behar ziren. Hala ere, Nafarroako Gobernuak ez zuen hondamendi eremutat hartu eta horregatik, 100.000 euro baztandarrek ordaindu behar zituzte beren sakeletik. «Gauza bera Erriberan gertatu izan balitz, berdin jokatu ote luke Gobernuak?» galdegin dute.

Herriei bideratutako diru-sailen murrizketagatik ere arrenkura agertu dute, «ohiko kudea-

ketari ez ezik, uholdeen ondorioei ere aurre egin behar diegu eta oinarritzko beharrak asetzeko baliabide ekonomikoak eskastuko zaizkigu». Modu berean, saihebidia «oraindik akitu gabe fite ireki» dela gogoratu dute, Lekarozko altuerako pasabidea eta Elizondoko sarbideko zubia egin gabe daudelako.

Honi guztiari gaineratuz, osasun eta hezkuntz arloetan izandako murrizketak eta eus-

karazko komunikabideek sufritzen duten «diskriminazioa» ere salatu dute. «Gaztelaraz aridiren hedabideek lizentzia lortzeko arazorik ez duten bitartean eta milioitako dirulaguntzak hartzen dituzten bitartean, hurbilen ditugun Xalao, Xorroxin eta Tipi-Ttapari lehenetik eskasak ziren laguntzak ukatzen zaizkie». Hau, Baztan eta baztandarrentzat errespetu falta handia dela uste dute alkate eta juntakideek.

### Konpostagailuak eskatzeko aukera

Baztango Udalak, konposta bultzatu nahi du, hartara zabortegira eramaten diren hondakin organikoak gutituz eta baratzean erabiltzeko kalitatezko *humusa* lortzeko bide emanez. Hortarako, baztandarrek konpostagailuak eskatzeko aukera dute, Baztango Udaleko Bulegoetan edo telefonoz izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta lur sailaren azalera emanez.



ARGAZKIA: FOTO MENA

### Baztango XXX Pilota txapelketaren finalak jokatu ziren abenduaren 18an Elizondon

Txaruta Pilota Elkarteak, Baztango Udalaren, Elizondo, Amaiur, Oronoz, Aniz, Almandoz, Arizkun, Erratzu eta Arraiozko herrien eta Nafarmendi eta Galarregiren laguntzaz antolatutako Baztango 30. pilota txapelketaren finalak jokatu ziren abenduaren 18an Elizondon. Guztira 64 pilotari aritu dira, 6 kategoriatan banatuak. **Umeak B:** Ibai Ballarena eta Aritz Elizondo (Elizondo-Lekaroz), 18; Ane Casillas eta Xuban Iturregi (Irurita), 6. **Umeak A:** Ander Garmendia eta Iban Sagues (Lazkao), 18; Unax Apeztegia eta Aingeru De la Fuente (Elizondo-Eugui), 13. **Kimuak B:** Iker Aleman eta Imanol Casillas (Irurita), 18; Xabier Mitxelena eta Edu Zubikoa (Irurita-Elizondo), 9. **Kimuak A:** Ander Ruiz de Larramendi eta Arkaitz Baztarrika (Lazkao), 18; Unai Elizondo eta Oier Ariztegi (Lekaroz), 14. **Haurrak B:** Ander Zelaieta eta Ariz Merino (Elizondo), 18; Aimar Ariztegi eta Andoni Gaskue (Lekaroz-Larraintzar), 8. **Haurrak A:** Enaitz Antso eta Iker Espelosin (Ornoz-Sunbilla), 18; Aitor Azkonobieta eta Beñat Garmendia (Lazkao), 11.

HISTORIA → AMAIUR 1512-2012

# Nafarroako konkistaren 500. urtemugan hainbat ekitaldi egingen dira Amaiurren

Uztailean ikuskizun artistiko-musikala egingen da

## TTIPI-TTAPA

Fernando Katolikoa Aragoiko erregeak Nafarroa konkistatu zuenetik, 500 urte beteko dira aurtan. Amaiurko gaztelua izan zen independentziaren aldeko gerra horren azken lekukoetako bat eta gaur egun ere, Amaiur eta bere gaztelua sinboloak dira herriaren memorian. Bide horretan, Amaiurko Gaztelu Elkar-teak, amaiurtarrek eta bertze baztandarrek urteak daramatzate historia berreskuratu nahian.

500. urteurren hori gogoan, urte hau berezia izanen da. Abendu hondarrean eta urtarril hasieran hitzaldiak antolatu ziren Fabaren erregearen eta Azpilkuetarren familiaren inguruan. Aipatzekoa da Mu-

thiko Alaiak elkarteak egiten duen Fabaren Erregearen aukeraketa Amaiuren egin zela abenduaren 17an eta erroskoaren barnean zegoen baba Xuban Zaldain Arribillaga amaiurtarrari suertatu zitzaio-

nez, bera izendatuko dute larunbat honetan.

Iragarri duten bertze ekimenetako bat uztailean egingen den ikuskizuna izanen da. Pier Paul Berzaitzen zuzendaritzapean ikuskizun artistiko-musikala pres-

tatzen ari dira uztailearen 20 eta 21erako. Amaiurko gaztelu aitzinean egingen da eta dagoeneko ikuskizun honetako sarrerak salgai paratu dituzte. Sarrerak 12 eurotan egonen dira ekainaren 30era arte eta 15 eurotan uztailearen 1etik aitzinera.

Bertzalde, liburuxkan publizitatea egiteko aukera ere eskainiko da enpresendako eta jardueretarako. 60 euroko A bonoarekin bortz sarrera izanen dira; 120 euroko B bonoarekin hamar sarrera; 240 euroko C bonoarekin hoge sarrera eta 600 euroko D bonoarekin 50 sarrera. Harremanetarako edo eskaerak egiteko idatzi helbide honetara: [amaiur2012@hotmail.com](mailto:amaiur2012@hotmail.com).



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Fabaren Errege-Erreginarean aukeraketa parte hartu zuten neska-mutikoak.

**ferreteria**  
**Quevedo**  
TXERRI HILTZEAN  
ERABILTZEKO TRESNAK

Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxe: 948 581 210

# BAZTAN

ELIZONDO → BATZARRA

## Txokotoko presa eta zubia bere horretan uztea eskatu du Elizondok

Datue aldetik Errotara doan eremuan 104 etxebizitza egiteko beharrik ez dagoela uste du batzarreak

### TTIPI-TTAPA

Abenduaren 17an egindako batzarrean, Elizondoko bizilagunak Txokotoko presa eta zubia berdin mantentzearen alde agertu ziren. Garai bateko errotaren presa eta Txokoto auzoa eta herrigunea lotzen dituen Minuartea edo Antxitoneako zubia, moldaketa ttiki batzuk gorabehera, eraiki zirenetik berdin mantendu dira eta halaxe segitzea eskatu zuten elizondarrek.

Azaroaren 7ko uholdeen ondotik, Ríos con Vida de Navarra elkarteak Jorge Tenientek idatzia igorri zuen Fiskaltza Orokorerrera, zubiak eta presak arriskua sortzen dutela eta bi azpiegitura hauetan berriki egindako lanetan, herriko eta Nafarroako Gober-

nuko agintariek afera honetan utzikieriaz jokatuta dutela salatuz.

Aldiz, erreka inguruko bizilagunek ez dute berdin pentsatzen eta uholde arriskua eta sor daitezkeen kalteak gutitzeko neurriak hartzea (errekaren garbiketa, dragadoa...) bai, baina presa bere horretan mantentzearen alde agertu zen batzarrea.

### KONTRABANDISTARI MONUMENTUA

Bertze gaien artean, Iturri-Ederra plazan, Santiago elizaren parean, kontrabandistari eskainitako monumentu bat ezartzearen alde agertu zen batzarra. Pedro Mari Esarte historialariak monumentua finantzatzeko lagunduko du, berriki gai honen inguruko liburua argitaratu duenak. Herritarrek kontrabandistari errekonozimendua azaldu zieten, Baztango historian «lanbide garrantzitsua» izan delakoan.

Bertze aldetik, Elizondoko konpartsari herriarenak izanen diren bi erraldoi berri eskuratzeko 3.000 ematea erabaki zuen batzarreak. Erraldoien izaera de-



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Baztango kontrabandoaz liburua argitaratu du Pedro Esartek

Pedro Mari Esarte Muniain historialari eta idazle elizondarrak *El contrabando en Baztan contado por sus protagonistas* izeneko liburua argitaratu du. Bere lan literario mardulari gehitzen zaion lan hau, beharbada idazlanik pertsonalena da, bera ere kontrabando lanetan aritutakoa baita, «urtetan Baztango industriarik handiena izan zena». Liburuak, irudiz eta argazkiz ongi hornitutako 183 orrialde ditu, eta Pamiela argitaletxeak argitaratu du. Abenduaren 16an, Arizkunenea Kultur Etxeko sabaian egindako aurkezpen ekitaldian, egilearekin batera, Vicente Ballarena, Maitane Maritorea zinegotzia eta Ana Larruy kultur teknikaria izan ziren. Kontrabandoarekin lotutako hainbat anekdota eta kontakizun azaldu ziren, bere garaian muga, jendea eta herriak bereizten zituen lerroa baino gehiago, eskura zegoen negozioa izan baitzen baztandar aunitzentzat.

finitzeko herri galdeketak egitekoa zen abenduaren 31n, goiz-arratsaldean Udaletxeko gorapetan jarritako mahai batekin.

Datue aldetik Errotara doan eremuan 104 etxebizitza (32 familia-bakarreko eta 12 bloke) eraikitzeko Plan Urbanistikoa dagokionez, gaur egun ezagugarri hauetako hirigintza lanak egiteko beharrik ez dagoela erabaki zuen batzarreak

Elizondoko preso politiko senideek egindako proposamenekin bat eginez, batzarreak atxikimendua eman zion Egin Dezagun Bidea ekimenaren manifestuari.

### Komando Kastañaren agurra

Hiru urteko ibilbidearen ondotik, desegin egin da Komando Kastaña musika taldea. Taldea 2008an sortu zen Arizkun, eta geroztik hainbat kontzertu eskaini dituzte bai Baztango herrietan eta bai kanpoan ere: Beran, Zuzur, Donostian, baita Andaluziaren ere. Punk eta ska estiloko musika egiteagatik egin dira ezagun.

Joan den urte hondarrean, ordea, agur erratea erabaki zuten Zubiri (ahotsa), Agirre (tronpeta), Mattin (gitarra), Andoni (baxua), Xuba (gitarra) eta Albarok

(bateria). Ohar bidez jakinarazi dutenez, «2011 urte nahiko konplikatu izan da denendako. Bilerak batzuk egin eta gero, erabaki hau hartu dugu. Beti ere, tunelaren bukaeran, ate ttiki bat geldituko da zabalik».

### Amaiur Euskal Herriko txapeldua

Amaiurko sokatira taldeak ezuste ederra eman du Euskal Herriko 4x4 sokatira txapelketan. Bi talde sailkatuak zituen abenduaren 17an Bizkaiako Arrakundiaren jokatu zen 300 kiloko finalerako eta bi-biek lehenbiziko bi postuak eskuratu zituzten.

Sutea-Zaldain  
Instalazioak

IGOGAILUEN INSTALAZIOA  
AROTEGI METALIKOA  
TOLDOAK

Santiago, 71  
31700 ELIZONDO  
T. 948 580 166  
F. 948 452 557  
M. 619 424 999 - 649 699 820

GIZARTEA → HARROBIA EZTABAIDAN

# Zilbetiko harrobiaren alde eta kontrako iritziak plazaratzen ari dira asteotan

Urtarrilaren 2ko Batzar Orokorrean 17 batzarkide herrilurrak desjabetzearen kontra azaldu ziren eta 13 alde

## TTIPI-TTAPA

Magna enpresak Zilbetin egin gogo duen harrobiak zer erran aunitz sortu du eta sortuko du. Urtarrilaren 2ko Batzar Orokorrean Kintoako 1.600 metro koadro herrilurren desjabetzeaz aritu ziren berriz ere, inguru horretan tunela egiteko asmoa baitu Magnak, kamioiak Zilbetitik ez pasatzeko. 17 batzarkide (Bilduko 5 zinegotziak eta 12 herrietako alkate eta kuarteleko ordezkari) desjabetzearen kontra agertu ziren berriz ere eta bertze 13 (UPNko 5 zinegotzi, Baztango Ezkerrako 2 eta 6 alkate eta kuarteleko ordezkari) desjabetzearen alde. Abstentzio bat ere izan zen. NaBaiko zinegotzia ez zen batzarrean izan, bai ordea Magnako 8 langile baztandarrek eta proiektuaren kontrako taldeetako partaideak ere.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ehun bat lagun bildu ziren abenduaren 24ean Erdiz Bizirik deitutako elkarretaratzean.

## ERDIZ BIZIRIK KONTRA

«Magnak Zilbetiko Antzerin egin nahi duen harrobia Erdizen egin nahi duenarekin estuki lotua dago. Alde batetik, Antzerikoaren memoriari, egitasmo hau Erdizen muturra berriz sartu artekoa bertzerik ez dela izan diotelako. Bertetik, Antzeri, Erdizengisa, Aldude Mendi izeneko Zainketa Bereziko Eremuan dagoelako». Halaxe adierazi du Erdiz Bizirik plataformak. Antzerikoaren tramitazio prozedura, herri-lurren desjabetzea eta Baztango zenbait alderdiren jarrerara «aski kontu larriak» direla uste du.

Antzeriko proiektua zela eta, Erdiz Bizirik-ek Zilbetiko Aldude Mendi Koordinakundearekin,

Udalez Gaindiko Plan Sektorialaren aurkako alegazioak bildu zituen herritarren artean. Gobernuak baztertu egin zituen eta gaia administrazioarekiko auzi epaitegian dago.

Bitartean, Antzeriko proiektua egiteko eta materiala garraiatzeko Magnak Zilbetin tunela egiteko pausuak eman dituela salatu du Erdiz Bizirik-ek. Tunel horretarako Kintoko herri-lurretan 1.600 metro koadroko eremua desafektatu nahi zuten, baina Udalak Batzar Nagusian erabakitakoarekin, Kintoko Mankomunitatean baimena ematearen aurka egin zuen. Magnak, bere aldetik, Kintoko lur horiek desjabetzeko eskatu omen dio Gobernuari, eta hori «au-

rrekari larritzat» jo dute Erdiz Bizirik-en. «Herriko erakundeei hitza kendu bidenabar, herri-lurrak desjabetu nahi dituzte. Eta tokiko erakundeen eskumenak eta herri-lurrak defendatu beharrean UPN, PSN eta Ezkerra proiektuaren alde agertu direla» kritikatu du taldeak. Aipatzen da zenbait herrietako batzarretan desafektazioaren gaia aztertu dutela. Almandoz, Ziga, Berroeta, Azpilkueta eta Oronoz-Mugairi desjabetzearen alde agertu dira eta Anizen kontra.

Erdiz Bizirik Plataformak gaineratu duenez, «komunalak kendu eta enpresa pribatu baten eskuetan utzi nahi dituzte, bazter guztiak xehatzeko». Erdiz91 neka-

zarik erabiltzen dutela ere azaldu du: «urtero 406 behik, 229 zaldi-behorek eta 611 ardik alaitzen dute bertan». Hain zuzen, *komunalen defentsan: ez PSIS-ik eduki desjabetzearen erria; Erdiz Bizirik!* lelopean elkarretartzea egin zen abenduaren 24rako Elizondon.

## NABAI ERE MAGNAREN EGITASMOAREN ALDE

NaBai taldeak ohar bidez jakinarazi du, bere garaian egitasmoaren alde agertu zela eta orain ere Magnak Zilbetin egin nahi duen egitasmoa babesten duela: «Zilbetiko kontzejuko eta Erro eta Esteribarko bizilagun eta instituzioendako interes orokorrekoa delako», adierazi du NaBaik, eta gaineratu du «gure balle-rako eta hemen lan bila dabilzanendako onuragarria delako».

NaBairen erranetan, «Magnaren meategi proiektuak Zilbetiko eta Erroko bizilagunen eta Esteribarko udalbatzaren (kontrako botorik gabe) babes osoa dauka, baita enpresa horretan ari diren Baztango langileena ere».

NaBai bezalaxe, UPN eta udal gobernu taldean Bildurekin batera lanean ari den Baztango Ezkerra ere proiektuaren alde agertu dira.

**MENDI ostata**  
Santiago 25  
945 500 312  
ELIZONDO

TTIPI-TTAPA ALDEZKARIA SARE SOZIALEAN  
**facebook**  
www.facebook.com/TTIPI-TTAPA

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatu**  
Santiago, 39 20 ELIZONDO  
T. 945 593 441 M. 630 364 810

**MENDIA**  
T. 945 500 312 AMAJUR

## GIZARTEA

IKASTAROAK → CEDERNAREN ESKUTIK DONEZTEBEN

# Dinamizazioaz eta turismoaz enplegu-tailerra lantzen ari dira

Azaroan hasi eta apirilera bitarte ari dira 15 lagun

## TTIPI-TTAPA

Komunitate-dinamizazioari eta turismoa suspertzeari buruzko enplegu-tailerra lantzen ari dira Donezteben. Enplegu-tailerra azaroan hasi zen, eta 2012ko apirilera arte luzatuko da. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez bultzatutako eta finantzatutako prestakuntza eta enplegu-tailerra da, Cederna Galarur Elkarteak sustatua, eta Espainiako Enplegu Zerbitzu publikoaren eta Europako Gizarte Funtsaren baterako finantziazioarekin. Bidasoako lau toki-erakundeek babesten dute (Doneztebe, Lesaka, Baztan eta Bera), eta Prestakuntzarako, Birziklapenerako eta Enplegurako Nafarroako Institutuko Sustapen eta Ga-



rapen Unitatearen aholkularitza teknikoak du.

Eremuko 15 lagun prestatzen ari dira komunitate-dinamizazioaren eta turismoa suspertzearen inguruan. Asmoa da, prestakuntza bukatzerakoan, gaitatea kultura eta turismo-proiektuak dinamizatzeke eta kudeatzeke, eta aukera izatea lan-merkatuan txertatzeko turismo eta kul-

tura lantzen dituzten enpresen edota toki-erakundeen bitartez.

Prestakuntzak irauten dituen sei hilabete horietan, enplegu-tailerreko ikasleek zenbait prestakuntza ikagaitzako dute, hala nola Komunitatearen dinamizazioa (Metodologia, teknikak eta tresnak, elkar-teei sostengua, eta turismoa suspertzea (tu-

rismoa suspertzeko proiektuak, aisia-egoe-ratan daudenen artean taldeak sortzea eta dinamizatzea, jolas-jarduerak eta jardura fisikoak eta ludikoak turismo-animazioan, eta tailerrak eta kultur jarduerak turismoa eta jolasak suspertzeko).

Parte hartzen ari diren ikasleek praktikak eginen dituzte hainbat erakunde, elkarte, eta abarretan.

## LANA

1.200

langabaturekin hasi da urtea

## TTIPI-TTAPA

2011. urte bukaeran 1.200 langabetezuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak, azaroan baino 54 gehiago (%4,71ko igoera) eta 2010eko abenduaren 31n baino 70 gehiago. 2011ko abenduko gorabeherak kontuan hartuz, 327 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegun Bulegoaren bitartez, horietatik 35 bakarrik mugagabeak.

## 2011KO DATUAK

2010. urtea 1.130 langabaturekin bukatu ondok, 2011ko urtarrilean 83 lagun gehiago ziren langabezian, 1.213. Otsailean 1.215era igo zen; martxoan 1.198 (-17); apirillean 1.148 (-50); maiatzean 1.110 (-38); ekainean 1.046 (-64); uztaillean 1.071 (+25); abuztuan 1.095 (+24); iraillean 1.101 (+6); urrian 1.117 (+16); azaroan 1.146 (+29) eta abenduan 1.200 (+54).

ANZABAL INMOBILIARIA

Konsumoaren Erantzulea

Bonilla Inarre 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

ANZABAL INMOBILIARIA

- Zuzen Anzabalak Auzo, etxebizitza, hiribiz eta hirira enpresak
- Lan-erabileraren Berriraketa eta Argopuru Soziala
- Abokatuaren bitartez Eremu Dikontinua, SEZA...
- Inbentarioa, Baserri, Borda, etab... salmentza eta alkatariak
- Inbentarioa

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



# baztanoil



T. 948 452 309 | M. 677 310 009 | [www.baztanoil.com](http://www.baztanoil.com)

# GASOLIOA ETXERA



**AUTOMOZIOA**  
**A GASOLIOA**

**NEKAZARITZAKOA**  
**B GASOLIOA**

**BEROKUNTZA**  
**C GASOLIOA**

REPSOL  
**Diesel e+**

REPSOL  
**AgroDiesel 10e**

REPSOL  
**Energy e+**

# SENPERE

HERIOTZA → OROITARRIA EZARRI DUTE ELIZAN

## Mende erdia bete da Théophile Bonnet Ibarrungo eliz gizona hil zutela Vietnamen

**Franck DOLOSOR**

Gan den abenduaren 13an, 50 urte bete ziren Théophile Bonnet herriko apez gaztea tiroz hil zutela Vietnamen. Bere bizia gogoratzeko, familiak oroitarri bat ezarri du Senpereko eliza sartzeko nagusian. Théophile 1926an sortu zen Ibarrungo Bonnet familia ezagutuan. Ikasketak Hazparnen eta Uztaritzen egin eta, 1945ean Pariseko Kanpo Misioen seminarioan sartu zen. 5 urte geroago apeztu zen eta ondoko urtean Kontumerat igorri zuten.

Graxi Jeannou Théophile zenaren arreba ongi oroitzen da urrats guziri horietaz. Bere betiko umorearekin dio: «Anaia

zaharrena zen. Gaztetik apeza eta pilotaria izan nahi zuen, ez zuen berterrik! Hura segitu behar genuen Ibarrundik Senpererat eskolaratgaitako, eta zalu!».

Vietnamen 10 urtez egon zen senperrara. Taldean bizi behar zuen gizon langiletzat zuten denek. Jainkoaren berri ona hedatu nahi izan zuen. Gizon maitatua izanagatik mehatsuak ere jasan zituen, heriotz mehatsuak barne. Dena den, ez zuen sekulan amore eman eta ez zuen behin ere ihes egin nahi izan. Azkenean, 1961eko abenduaren 13an, VietCong-ek 35 urteko senperrara tirokatu eta hil zuten. Ingaruan zituen girixtinoek



ARGAZKIA: BONNET FAMILIAREN ARTXIBATEGIA

Théophile Bonnet Ibarrunen bere familiarekin. Eskuinean Graxi bere arreba ageri da.

haiek ere tirokatzea galdetu zieten hiltzaileeri bainan ez zuten onetsi.

Mende erdia geroago, Bonnet familiak eta bere lagunak etsenplutzat dute Théophile. Diribarne apez bardoztarrak hari zor omen dio apez izatea: «Bazekien zertarat kondenatua zen bainan ez zuen bere artaldea abandonatu!» Graxi arrebak zera dio «memoria atxiki behar da bainan ez borondate tzarra ez baita harekin ainitz aitzinatuko». Gan den urtean, Vietnameratik bidaiatu izan zuten

Graxik bainan ezin izan zuten Théophilen hilotza ikusi amerikarrek desegin baitute dena. Han, anaia zena ezagutu zuten zorbait jendeez zuten denek zioten orain ere hobe zela ahal bezain diskretua izatea. Ez zuten baitezpada erakutsi nahi fededunak direla. Aurten ere Théophilen ilobak harat joatekoak dira.

### 14garren Hatsaren poesia

Aurten ere euskarazko

olerki bilduma osatuko du Hatsa elkarte kulturalak. Bete bezala itxaropen haundi batekin pentsatzen da olerkari askoren partehartzeak ez duela huts egingo: izan idazle atrebitua, haurra, edo heldua. Euskaraz idatzizko izatea da baldintza bakarra! Testuak urtarillaren 31a aitzin igorri behar dira helbide huntarat: [hatsaelkarte@aol.com](mailto:hatsaelkarte@aol.com) Gero, Hatsaren poesiarren eguna eta olerki bildumaren aurkezpena apirilaren 1ean ospatuko da Larraldean.

**SUMINISTROS**

**YANCI**

*35 urteko esperientzia*

**ITURGINTZA eta BEROKUNTZA**  
**ENERGIA BERRIZTAGARRIAK**

Baimendutako instalatzaile eta mantentzailea

- BIOMASA
- AEROTERMIA
- GEOTERMIA
- EGUZKI ENERGIA
- TERMIKOA

IRTENBIDE ENERGETIKO BERDEAK

**Pellet eta egurrezko kalderen erakusketa**

Zaldubia Industrialdea, 2 - IRURITA

Tfnoa: 948 580 109

**TATANO**

enpresa beretzagomaila

ZERBITZU  
TEKNIKO eta  
BANATZAILE  
OFIZIALA

# URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → 'SORGINKERIA IZUA EUROPAN. KONDAIRAK ETA MITOAK'

## Ehunka lagunen bisita izan eta gero Bilbora joan da erakusketa



Abenduan Sorginen Museoan egona da

### Koro eta Margari

Zugarramurdiko Sorginen Museoan eta abenduko hilabete osoan, *Sorginkeria izua Europan. Kondairak eta mitoak* izeneko erakusketak ikusgai izan da.

Ospe handiko eta sorginkeriaren gaian aditua den Gustav Henningsen izan zen erakusketa hunen egileetako bat, eta lehendabiziko aldiz, 1984an Kopenhageko Errege Liburutegian ikusi zen. Geroztik erakusketa ibiltaria izan da eta batetik bertzerara ibili da, Danimarkako eta kanpoko museo, liburutegi eta



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Bisitariak arretaz irakurri dituzte erakusketako kontuak.

eskoletatik pasatuz. Gan den urte osoan, Logroñon egon zen, Logroñoeko fede autoaren 400. urteurrenaren kariatarat. Zugarramurdiko egonaldiaren ondotik, erakusketa Bilbora eraman dute.

### Etxelekua gasnategia saritua

Bertze behin ere, Etxelekuko gasnak sarituak izan dira. Aldi hontan, Ingalaterratik ekarri dute saria, *World Cheese Awards* txapelketatik, hain zuzen. Zorio-

nak Manolo eta Maribeli egiten ari duten lan bikainagatik.

### Herriko eraikinen garbiketa

Orain arte udal eraikinak garbitzeko beti herritarren bat agertu

### HERIOTZA Jesus AGERRE

30 urtez alkate izandakoa hil da

Eguberri bezperan hil zen azken 30 urte baino gehiagotan Zugarramurdiko alkate izan den Jesus Agerre Indaburu, 56 urte zituela. 25 urtekin sartu zen lehen aldiz zinegotzi, beti Akelarre taldearekin eta eskualde osoan alkatetzan urte gehi-zen zeramana zen.

izan da interesatua. Baina aldi hontan, ez da hala izan. Hortaz, Lesako USI empresa izanen da urte batez Urdazubi eta Zugarramurdiko Herriko Etxeak, eskolak eta mediku kontsultak garbituko dituen.

**DIANA INIESTA BENEIMETO**  
Mintzairaz eta Irudiak.

**Nork ez du (noiz) laguntzarik behar izan?**  
Bereak bere burua laguntzarik behar izan duenak.

Aske guztian zehar, haur eta helduentzat margo talerrak (ordutegi ezberdinak)  
<http://dianainiesta.blogspot.com>  
655 945 926 - 948 453 478

CAFÉ DE LA MAIRIE  
GARA

ARMUA JAITEKIA

**MONTXO OSTATU**

Dantzarinetik 2 km-tara

**ТАВЛКО-ДЕНДЛ  
АНЗЛН-БОРДЛ • УРДАЗУБИ**  
Egunero iratze 10.30etik 02.30ora.

**VENTA PEIO**

T. 902 210 800 • [www.venta-peio.com](http://www.venta-peio.com)

## SARA

KULTURA → ABESBATZA

# Herriko ondarearen korala muntatzeko kurtsoa egiten ari dira

Hilabeteen bi aldiz elkartzen dira hogoi lagun Claude Lafitterekin

**Joana GUERENDIAIN**

Plrailaren bukaeratik 20 pertsonak segitu dituzte Claude Lafitteren kurtsoak, korala baten muntatzeko xedearekin. Kurtsoak 2012ko eraroaren bukaera arte emanak izanen dira, hilabeteen bi aldiz. Momentu honetan Elizanbururen kantutik batzuk lantzen dituzte, azpimarratzekoa da kurtso denboretan kantuen itzulpen bat proposatua dela euskara ez dakitenentzat. Heldu den errepikak urtarrilaren 19an, otsailaren 2 eta 23

an, martxoaren 8 eta 22 an egiten dira, gaueko 8etan Denen etxean (2. estaian). Edonork taldearen kide izan nahi badu, informazioak ukaiten ahal ditu mailez: [sara-koondarea@yahoo.fr](mailto:sara-koondarea@yahoo.fr) edo webgunean: [www.sara-koondarea.com](http://www.sara-koondarea.com)

## Haurren jolas parke berria

Herriko etxea haurrentzako jolas parke berria eraikitzen ari da Lur berrigelaren ondoan. Jandirik bat bazen Omordiako beheko aldean, baina berria handiagoa da bada xirrista bat, bilintxi balantxak, etxola tiki bat haurrentzat eta gainera zola berezi bat badu haurrak babesteko, zaharreak harriak zi-



ARGAZKIA: JOANA GUERENDIAIN

## Abenduren 31ko elkarretaratzea

Urtats gauez jende multxo polit bat bildu da elkarretaratzera, gau berezi hortan ere presoak gogoan dituztela erakusteko. Usaian bezala 7etan hasi da eta oren erdi batez jendea egon da arkupe azpian.

ren. Oraindik obretan da baina agian egun ederrretako idekia izanen da.

## Y es-tu ikusgarria

Urtarrilaren 11n Y es-tu ikusgarria emana izanen da Lur Berri gelan eta 6 urte baino gehiagokoei zuzendua da. Y es-tu ikusgarriak gogoe-ta bat proposatzen digu gure beldurrei buruz. Ikusgarri original hori oihanean pasatzen da,

baina oihan hori gure kezken oihana da. Eskoletako haurrentzat emandaldi bereziak emanak izanen dira urtarrilaren 12 eta 13an, goizean 10:30ean eta arratsaldean 14:30ean.

Tokiak erreserbatzeko deitu Communauté des Communes Sud Pays Basque: 06.35.16.25.91 telefonoa. Xehetasun gehiago atxemanen dituzue

[www.kultura.ccsppb.fr](http://www.kultura.ccsppb.fr) web gunean.

## Herriko Etxeko Edantegiko mus txapelketa

Urtero bezala Herriko Etxeko Edantegiak bere mus txapelketa egiten du. Urtarrilaren 13an hasiko da txapelketa eta izenak emateko epea urtarrilaren 8ra artekoa zen. 10 euro galdetua da bikoteka.



Zubitan jai zinez gero  
zubitar sentitu zera,  
ikatza egiten gazte gaztetan  
zenun bizia atera.  
handik baso lanera,  
Errokanari aldera,  
gero lantoki Palmera,  
Zubitan jai zinen ta honat  
zatoz atseden hartzera.

Bizitzak eman dizu umorea  
sasoia ta osasuna,  
ta familian zik landu duzu  
gogotik malgutasuna,  
abertzaleen laguna,  
iritsi da eguna,  
hau da eman diguzuna,  
senar maitea zuegandik aita  
jaso dugu maitasuna.

**ETXEKOAK, IRUN-ZUBIETA 2011-11-26**



**Francisco  
ESCUDERO  
SANTESTEBAN  
Patxi**

Bizitzan izan duzu soberan  
umorea eta gñazi,  
zer nola bizi zer nola goza  
diguzu ongi irakatsi  
dantzari ona izaki,  
musean denak nahasi,  
gizon ona zinen Patxi,  
gure gogoan zaudete betiko  
maite zaitugu ataxi.



**Mª Josefa  
GANBOA JORAJURIA**

Berakoa, 2011ko abenduaren 25ean, 77 urte

Zure begien dizdira  
eta expainetako irria  
beti gurekin egonen dira

Gure saminarekin bat egin duzuen eta  
bere aldeko elizkizunetan parte hartu  
duzuen guztiei, MILA ESKER

**ZURE FAMILIA**



**Jesus AGERRE INDABURU**

2011ko abenduaren 24an hil zen Zugarramurdin,

56 urte zituela

Zugarramurdiko Udalak  
eta bere senideek  
lerro hauen bitartez

benetan eskertzen dizuzte  
samin-agurra bidali zenutenei, baita  
hiletara etorri zineten guztiei ere



## SORTZEAK

**Ander Etxegarai Maiz**, Arantzakoa, abenduaren 14an.  
**Mattin Fernandez Bidegain**, Arizkungoa, abenduaren 11n.  
**Janire Elizalde Telletxea**, Zubietakoa, abenduaren 6an.  
**Aitor Ariztegi Maillot**, Zugarramurdiakoa, abenduaren 13an.  
**Nahia Alzuiet Oartzabal**, Urdazubikoa, abenduaren 14an.  
**Ibai Ariztegi Suhas**, Urdazubikoa, abenduaren 19an.  
**Markel Mariñelarena Egues**, Leitzaakoa, abenduaren 26an

**Xabi Larçabal**, Sarakoa, abenduak 4.  
**Oier Alzuguren Barberena**, Zigakoa, azaroaren 15ean.  
**Urko Prieto Gogorza**, Ezkurra-Behobiakoa, abenduaren 27an.  
**Aimar Bertiz Etxeberria**, Elgorriagakoa, abenduaren 14an.  
**Xalbat Santesteban Iriarte**, Sarakoa, abenduaren 17an.  
**Beñat Irazoki Caramazana**, Lesakakoa, azaroaren 25ean.  
**Adur Sanchez Elisalt**, Lesakakoa, azaroaren 30ean.  
**Katixa Goizueta Narbarte**, Goizuetakoa, abenduaren 4an.  
**Araia Andueza Azpiroz**, Doneztebekoa, abenduaren 19an.  
**Ander Etxegarai Maiz**, Arantzakoa, abenduaren 14an.  
**Iraia Arotzena Bergara**, Arantzakoa, abenduaren 21ean.  
**Iker Arotzena Bergara**, Arantzakoa, abenduaren 21ean.  
**Cristina Ordoñez Gomez**, Narbarteakoa, azaroaren 4an.  
**Aitor Irazoki Eizagirre**, Narbarteakoa, azaroaren 28an.  
**Alize Petrikorena Salbotx**, Elizondokoa, abenduaren 8an.

## HERIOTZAK

**Francisco Agesta Larretxea**, Arantzakoa, abenduaren 3an, 79 urte.  
**Agustin Lazkano Ubiria**, Lesakakoa, abenduaren 3an, 92 urte.  
**Juanito Eguzkiagirre Zozai**, Igantzikoa, abenduaren 3an, 77 urte.  
**Felix Mendikoa Apezetxe**, Elbetekoa, abenduaren 3an, 80 urte.  
**Manuel Jaunarena Etxenike**, Arizkungoa, abenduaren 5ean, 76 urte.  
**Carmen Larralde Gaztelumendi**, Lesakakoa, abenduaren 5ean, 87 urte.  
**Josefa Ziganda Legarreta**, Doneztebekoa, abenduaren 7an, 96 urte.  
**Francisco Lazkano Sestorain**, Leitzaakoa, abenduaren 8an, 78 urte.  
**Irene Zia Gaztelu**, Anizkoa, abenduaren 10ean, 82 urte.  
**Maria Teresa Iribarren Elizetxe**, Elizondokoa, abenduaren 16an, 97 urte.  
**Angel Mª Apeztegia Genberena**, Arantzakoa, abenduaren 18an, 60 urte.  
**Andres Olaizola Mitxelena**, Goizuetakoa, abenduaren 2an, 75 urte.  
**Jesus Agerre Indaburu**, Zugarramurdiakoa, abenduaren 24an, 56 urte.  
**Conchita Migeltorena Irigoien**, Sunbillakoa, abenduaren 18an, 72 urte.  
**Nicolasa Galainena Barbesuri**, Urdazubikoa, abenduaren 21ean, 80 urte.  
**Juliana Marisko Santxotena**, Erratzukoa, abenduaren 21ean, 74 urte.  
**Ana Arriada Etxeberria**, Urdazubikoa, abenduaren 26an, 88 urte.  
**Maria Josefa Ganboa Jorajuria**, Berakoa, abenduaren 25ean, 77 urte.  
**Agustin Mendikoa Apezetxe**, Iruritaakoa, abenduaren 23an, 78 urte.  
**Juan Angel Artazkoz Urtxulutegi**, Doneztebekoa, abenduaren 23an, 88 urte.  
**Leonor Ibarra Idigoras**, Narbarteakoa, abenduaren 23an, 77 urte.  
**Eugenio Santesteban Elizondo**, Etxalarkoa, abenduaren 24ean, 86 urte.  
**Josefina Zugarramurdi Gonzalez**, Elizondokoa, abenduaren 24an, 94 urte.  
**Mercedes Alzugarai Lazkano**, Arantzakoa, abenduaren 26an, 86 urte.  
**Francisco Elizalde Deskarga**, Eratsungoa, abenduaren 27an, 88 urte.  
**Julio Sagardia Ernet**, Gaztelukoa, abenduaren 29an, 76 urte.  
**Augustin Gorosurreta**, Sarakoa, azaroaren 29an, 73 urte.  
**Jean Michel Leizagoyen**, Sarakoa, abenduaren 3an, 56 urte.  
**Antonio Garrido Golvez**, Sarakoa, abenduaren 19an, 80 urte.  
**Jose Mari Goizueta Ondarrola**, Goizuetakoa, abenduaren 31n, 75 urte.

## EZKONTZAK

**Iñaki Perez Ripa** eta **Estibaliz Mutuberria Mendikoa**, Narbarteakoa, abenduaren 10ean.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



### Juanita ARIZTEGI SANZBERRO

Etxalarkoa, 2011ko abenduaren 1ean,  
89 urte zituela

*Hostoak arboletik erortzen diren bezala,  
udazkeneko egun batean joan zara.*

*Geroztik gure bihotzak egunero  
zure oroitzapenarekin betetzen dira.*

ZURE FAMILIA



### Andres OLAIZOLA MITXELENA

Goizuetan, 2011ko abenduaren 2an

*Umorez eta alaitasu  
egoten ginen elkarrekin  
eta oroitzapen ahazterin horiek  
beti geldituko dira gurekin.*

UMORE ONA ELKARTEA

1998ko apirilaren 12an debutatu zuen Aimar Olaizolak (Goizueta, 1979) pilotari profesionalen munduan, 18 urte baino ez zituela. Geroztik bederatzitxi txapel eskuratu

ditu txapelketa ofizialetan, eta beste bost alditan finalera ailegatu eta azpitxapeldu izan da. Joan den abenduan lau t'erdiko bere bosgarren txapelketa irabazi zuen eta

horrela, historian modalitate horretan txapel gehien lortu dituen pilotaria bilakatu da goizuetarra. Orain, berriz, binakakoan ari da Beroiz atzelari duela.

Aimar OLAIZOLA | Goizuetako pilotaria

# «Kontratua 2018 bukaera arte dut eta hori betetzea izanen da helburua»

G. PIKABEA | GOIZUETA

Pilotari profesional gisa, 2011 urte borobila izan da Aimar Olaizolarentzat, «beharbada, eduki du dan hoberena». Halaxe adierazi digu Goizuetako pilotariak. Eta ez da gutxiagorako. Hiru txapelketa ofizial jokatu zituen 2011n, hiruretan finalean izan zen eta bi txapel irabazi zituen: binakakoa eta lau t'erdikoa. Eta hori guztia 2010ean belauneko lesio larri bat izan zuela kontuan hartuz.

Palmaresa ere ederki hornitzen ari da. 1998an debutatu zuen 18 urteko gazteak bederatzitxi txapel irabazi ditu dagoeneko: banaka bi (2005 eta 2007), binaka beste bi (2008 eta 2011) eta lau t'erdian bost (2002, 2004, 2005, 2008 eta 2011). Lau t'erdian, gainera, historia egin du, orain arte Retegi II. arekin berdindua zuen marka-launa txapel- hobetuz: «Gauza horie ez diot garrantzia gehiegirik ematen, baina polita da. Historian izan den pilotaririk haundienarekin berdinduanengoan lau t'erdiko tituluetan eta orain, berak baino txapel bat gehiago irabazteak ilusioa egiten du», esan digu.

Abenduaren 11n jantzi zuen bosgarrena, Irujori irabazita. Txapel «beretzia» izan zela aitortu digu, finalaren aurreko egunak ez baitziren xamurrak izan: «behatzeko lesioa zela, baina batez ere, hiru



ARGAZKIA: ROSA OLAIZOLA

Aimar Olaizola, gustora lau terdiko bere bosgarren txapelarekin.

egunetan osaba eta atta galdu... Horrelako partidetan oso zentratua egon behar da eta beldur hori nuen». Baina hasieratik bukaerara partidaren sartuta ikusi zuen bere burua. 22. tantora ailegatzean, «zerbait diferentia sentitzen» omen du, baina azken finala are «diferenteagoa» izan zen. Txapela atari eskaini zion: «berari dedikatu nahi nion eta agian horregatik indar gehiagorekin ateratu nintzen».

Lau t'erdikoa pasatuta, eta atseden hartzeko denborarik gabe—2011n ez zuen aste batez ere deskantsatu—, binakakoan dabil orain burube-

**LAU T'ERDIKO FINALA**  
«Horrelako partidetan oso zentratua egon behar da eta lau t'erdiko finalean beldur hori banuen aurreko egunetan pasatukoagatik (...) Txapela atari dedikatu nahi nion eta agian horregatik indar gehiagorekin ateratu nintzen»

**SEMEA PILOTARI?**  
«Semeak pilotaria izan nahi badu lagunduko diot, baina ez dut arazorik ez bazaio gustatzen edo beste kirolen bat nahiago badu»

larri. Beroiz atzelari duela, «oso gustura» dagoela aipatu digu, baina bere ustez, «irabaztea oso zaila izanen da». Irujo-Barrionla bikotea ikusten du faboritoen artean, nahiz eta ez duen erraz uzteko asmorik: «lana gogor jarritzen saiatuko gara».

Gaur egungo pilotari hoberenatarikoa da, baina pilotari bezala, bere zein ezaugarri nabarmenduko lukeen galdetuta, «hori besteak esatea hoberena!», erantzun digu irribarrez. «Ez dut uste gauza batean nabarmen izan naizenik. Nahiko konpletua naizela esanenuke, gauza batean na-

barmendu gabe». Alde batera edo bestera, egunero entrenatzen duela ere kontatu digu: «batzuetan pilotan, besteetan fisikoa... Ez da ordu asko izaten, baina egunero zer bait». Hortik aparte, elikadura «pixka bat» zaintzea gustatzen omen zaio.

Pilotan ongi konponetzen dela gauza jakina da. Baina, zer moduz moldatzen ote da ataren papelean? «Niretzako gauza berria da, eta oso polita. Momentuz inongo arazorik gabe, baina beno, hori andreaki galdetu behar kol!», dio. Egunen batean semeak pilotari izan nahi duela esanenuke, «gustura» hartuko lukeela dio, baina «garbi dut berak ez badu frontoira joan nahi eta ez badu afiziorik, ez dudala behartuko. Gustatzen bazaio, lagunduko diot, baina ez dut arazorik, ez bazaio gustatzen edo beste edozein kirol nahiago badu». Hori, ordea, denborak erakutsiko du. Bitartean, Aimar bera da pilotan segitu nahi duena: «Ni ere urtetan aurrera noa eta kontratua 2018 bukaera arte dudanez, helburua hori betetzea da. Eta oraingo maila ematen badut, hobe». Asier bere anaiak esana da, Aimar «pilotari jaioa» dela, alegia, berrezkoa duela, eta horregatik edo ez dakigu zergatik, baina bide honetatik segituz gero, txapel gehiago ere jantziko ditu.

**MOTORRA** → NAFARROA ETA EUSKADIKO ZIRKUITUAN

## Asier Lekuona eta Iñaki Ubiria gidari lesakarrek denboraldi bikaina osatu dute

Nafarroako zirkuituko Open Kopan 2. eta Euskadiko karting txapelketan 3. izan dira

**Aitor AROTZENA** | LESAKA

Asier Lekuonak Citroen Saxo 1.6 bat gidatzen du. Iñaki Ubiriak kart bat. Ez dute elkarren arteko lehiarik izaten, baina gehienetan elkarrekin mugitzen dira, «Lesakan ez dago elako motorrerako afizio handiegirik». Gustora daude osatu duten

denboraldiekin, beraien konpetizioetako sailkapen orokorrean podiumean akautu baitute.

Asier Lekuonak, Nafarroako zirkuituko Open Kopan aritu da. Proba gehienak Nafarroan izan badira ere, Aragoiko Alcañizen ere aritu da. Bortz asteburutan hamar karreretan parte hartu du eta horietako bi irabazi ditu, bitan bigarren izan da eta bertze bitan hirugarren. Hain zuzen, erregulartasun horri esker lortu du bigarren postua, 1.600 zentimetro kubiko bitarteko autoei zuzendutako Clase 1ean. Citroen Saxo 1.6



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Asier Lekuona eta Iñaki Ubiria, beraien ibilgailuekin.

bat gidatu du eta «ez dut inoiz Orik atera, karrera guztiak bukatu ditut eta hori ez da bate-erreza, istripuak direla, aberiak direla... Erregulartasun horri esker lortu dut bigarren postua».

Iñaki Ubiriak, berriz, kart dotore bat gidatzen du. Euskadiko karting txapelketan parte hartu du hirugarren urtez eta orain arteko emaitzarik onena lortu du, hirugarren postuan sailkatuz KZ2 kategorian. Halere, nafarra izanik, bada emaitza hori errekurritu duenik. Iñakik

umorez hartu du: «Orain dela hiru urte hasi nintzenetik denek bazekiten nafarra naizela, baina orain arte ez da arazorik izan, ez nintzelako aitzinean ibiltzen. Orain hasi dira bueltak». Karrera irabazterik izan ez badu ere, bere kasuan ere erregulartasuna izan da hirugarren postua eskuratzeko giltza: «Nik ere karrera guztiak bukatu ditut eta ni baino piloto eta kart horbeak gibelean uztea lortu dut». Banaz bertze orduko 140 kilometro hartzen dute kart apal hauek, «baina zirkuitu-

ren batean 170 km ere hartzen ahal dira eta hain beheiti zaudenez, abiadura sentsazioa ikaragarria da» dio Ubiriak.

Lesakako bi pilotok gustora daude emaitzarekin, baina aitzine- ra begira eta garai zailak direla jakin arren, patrozinatzailearen bat beharko dutela azpimarratu dute. «Karrera dugun asteburu bakoitzean zuzenean joanda 1.200 bat euro joaten dira eta aitzineko egunetik joan eta entrenatu nahi baduzu, afaldu, gaua pasatu... goiti egiten du aurrekontuak».

**ARTE MARTZIALAK** → ABENDUAREN 10EAN

## Nafarroako Kenpo Kairen bilgunea izan zen Bera

Gerriko berriak lortzeko azterketak egin ziren

**TTIPI-TTAPA**

Berako Toki Ona kiroldegian Kenpo Kai-ko azterketak egin ziren abenduaren 10ean. Beran eta inguruan arte martzial hau praktikatzen duten 80 lagun inguru bildu ziren proba honetara, beraien

gerriko berriak lortzeko. Tribunalaren buru Shihan Vidal izan zen, gerriko beltza eta 8. Dena dena eta Nafarroako Karate Federazioko Kenpo Departamentuko zuzendaria. Tribunalaren gainontzeko irakasleak Pilar Martinez, Koro Iriarte, Modesto Ordoki, Jorge Velez, Edorta Iturria eta Ana Mitxelena izan ziren. Tribunalak, lortutako gerriko berriak akreditatzen dituen diplomak ema-



terakoan, kenpolariak zoriondu zituen erakutsitako maila altuagatik.

Duela 10 urte inguru hasi zen Berako Kenpo eskola lanean, denbo-

ra honetan Nafarroako arte martzialen «erreferente» bihurtu da. 10 urte hauetan nazio nahiz internazional mailan arrakasta handia lortu

dute, baina dudarik gabe handiena, gaur egun Berako Kenpo eskolan 4 eta 65 urte arteko 100 lagun inguru lanean ari direla da.

**AIOROA, Joakin**

Bigarren urtez jokatu den Euskal Herriko ingude-jasotze txapelketa irabazi zuen iturendarrak azaroaren 18an Donezteben, 91 jasoaldi eginda.

**AMAIUR**

Sokatira taldeak Nafarroako txapel guztiak irabazi ditu, gizonezkoetan nahiz mistoan. Euskal Herriko 4x4 txapelketa, berriz, txapeldun eta azpitxapeldun izan da 300 kiiloaz beheitik kategorian.

**ARANGUREN, Xabi**

Ez da lasterketa, baina hogeigarren edizioa betetzen zuen La Miguel Indurain proban ibilaldi luzeena osatzen bizkorrena izan zen txirrindulari igantziarra ekainaren 25ean Beran.

**ARIZTEGI, Maika**

2000.ean irabazi zuen Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa lehen aldiz eta urriaren 9an lortu zuen hamekagaren Asteasun. 2004an

huts egin zuen, Aizarnazabal topatu ez zuelako.

**ARPANA**

Urriaren 1ean Igantzin jokaturako Nafarroako arpana txapelketa Amaia Gartzia eta Nerea Sorondo beratarrak surertatu ziren txapeldun,

Lezaungo Ana Lopez eta Itziar Nuñezi 19 segunduko aldera ateratu ondotik.

**BAZTAN F.T.**

Baztan Futbol Talde nagusiak Nafarroako Preferente mailara bueltatzea lortu du, denboraldi bikain baten ondotik (30 partidetatik 22 irabazi, 5 berdindu eta 3 galdu zituzten).

**BERTIZ, Unai**

Nafarroako txapelketa irabazi ez ezik, errekor berri bat ere egin zuen harrijasotzaile sunbil-darrak.

**Baztan Futbol Taldeak Nafarroako Preferentera bueltatzea lortu du.****Amaia Gartzia eta Nerea Sorondo beratarrak, Nafarroako txapeldun arpanan.****BETI GAZTE**

Lesakako futbol talde nagusiak Gipuzkoako Ohorezko Mailara igotzea lortu du eta aurten ere denboraldi hasiera bikaina egin du. Futbol lehen berri txarra Leitzaiko Aurrerak eman du, Nafarroako Erregionaleko lehen mailara jau-tsi baita.

**DONEZTEBE**

Nafarroa eta Euskal Herriko Herriarteko pilota txapelketak irabazi ditu Patxi Ordoki buru duen Doneztebe pilota taldeak. Nafarroakoan Iruñari irabazi zion finala uztailearen 3an Labriten eta Euskal Herrikoan Hernaniri uztailearen 22an Muskizen (Bizkaia).

**ERRUGBIA**

Euskal Herriko zazpi herrialdetako lehen

errugbi txapelketa jokatu zen Saran maiatzaren 28an eta Donapaleu nagusitu zen, finalen Gasteizko Gaztediri irabazita. Sara hirugarren izan zen.

**EZKURRA, Koteto**


Hamaikagarren aldiz jantzi du erremonteko buruz buruko txapela, hamalagarren finalean. Irailaren 3an Galarrretan 30-22 irabazi zion Migel Mari Urrutia saldiastarrari.

**INDART, Iñaki**

Desagertutako gazte legasarraren izena hartu du Doneztebeko udal futbol zelai berriak. Kasik zortzi denboraldiz etxeko partidak Taxoaren, Uhartaren eta Elizondoren jokatu ondotik, Doneztebe Futbol Taldea osatzen duten 204 jokalariek azkenean badute herritik mugitu gabe entrenatzeko eta jolasteko aukera. Abenduaren 8an egin zen inaugurazio ofiziala.

**IRURITA**

Baztan-Errekako laxoa txapelketaren 33. edizioan bere zortzigarren txapala jantzi zuen Iruiritak Joseba Urtsun, Guillermo Etxenike, Jesus Etxenike eta Migel Bidegainekin. Abuztuaren 6an Iruritan jokaturako finalean herriko bertze talde bat izan zuten arerio.

**LARRETXEA, Donato**

Nafarroako aizkolari txapelketa berreskuratu zuen segundu bakarreko aldearekin. Azaroaren 18an Donezteben jokaturako finalean ez zen Floren Nazabal izan eta saio osoan Lopezen gibeletik ibili bazen ere, azken enborrean erakustaldia emanda jantzi zuen txapela.

**MARIEZKURENA, Javier**

Krisi urtea izanagatik, kamioi gidari doneztebarrak Europako txapelketa bere lehen garaipen historikoa lortu zuen Nogaron (Frantzia) ekainaren 18an.





Doneztebek Nafarroako eta Euskal Herriko Herriarteko pilota txapelketak irabazi ditu.




**NIEVE, Mikel**

Txirrindulari leitzarrak 2010eko Espainiako Vueltako etapa nagusi-an lortu zuen profesionaletako lehen garaipena. 2011n ere bikain ibili da eta Italiako Giroko etaparik menditsuena ere maiatzaren 22an, kaskik zazpi ordu terdi bizikleta gainean eman ondotik. Etxera bueltan herritarren omenaldia emozioz jaso zuen maiatzaren 30ean.



**OLAIZOLA, Aimar**

Urte zaila zuen Olaizola II.ak, sei hilabetez min hartua egon ondotik, baina hiru final handietan sartuz erantzun du. Binakakoa Beginorekin bikote eginez irabazi ziren Xalari eta min hartutako Barriola ordezkatu zuen Beroizi eta buzur burukoa galdu egin zuen Xalaren kontra. Lau terdikoan, berriz, aita galdu berrikan, Irujo menperatu zuen (22-12).



**PILOTA LUZEA**

Europako klub arteko zuzeneko esku pilota txapelketa jokatu da lehen aldiz. Europako 13 talderen arteko lehia (tartean Valentzia, Belgika, Holandakoak...) Elizondon hasi zen irailaren 3an. Baztan-Errekako boskoteak Iruñean jokatu zen azken faserako sailkatzea lortu zuen, baina Alakanteko Campello taldea serratatu zen txapeldun.



Iñaki Indart futbol zelaia inauguratu zuten Donezteben abenduaren 8an.



**SAIZAR, Judit**

17 urte besterik ez izan arren, senior nahiz junior mailako Nafarroako Triatloi txapelketak irabazi zituen kirolari leitzarrak uztailaren 10ean Tuteran, XI. Reto del Ebro Triatloian. Olinpiadetako distantzian ere (1,5 km igerian, 40 km bizikletan eta 10km lasterka) Nafarroako Triatloi txapelketa irabazi zuen abuztuaren 7an Iruñean.



**SALDIAS, Andoni**


Oizko erremontista, 19 urterekin, abuztuaren 13an debutatu zuen profesionaletan Hernaniko Galarretan, Oriamendi enpresarekin.

**SARALEGI, Eneko**

Euskal Herriko gazte mailako aizkolarari txapelketa irabazi zuen irailaren 11n Leitzan. Minutu bat eta 23 segunduko aldea atera zion Eneko Otañori.

**SOUZA, Xanta**

Nafarroako nahiz Euskal Herriko txinga eramate txapelketak irabazi zituen lesakar-brasilarrak. Nafarroakoa uztailaren 11n Iruñean



**Xanta Souza Iturenen.**

eta Euskal Herrikoa atsetebete beranduago Iturenen.

**SUKUNTZA, M.Anjel**

Gizonezkoen Nafarroako txinga eramate txapela ere eskualdean gelditu zen, Mielanjel Sukuntza leitzarraren buruan. Uztailaren 12ko finalean, Patxi Baraibar herritarrari nagusitu zitzaion.

**UNTXALO, Arkaitz**

Nafarroako gazte mailako buruz buruko txapelketa irabazi zuen Txarutako pilotari iturrendarrak. Urriaren 12an Labriten jokaturako finalean 18-9 irabazi zion San Migueleko Garaori. Aurrerako Sagastibeltza azpitzapeldun izan zen kadete maian.

**URRUTIA, Josetxo**

Nafarroako gurdi altxatze txapelketa irabazi zuen leitzarrak uztailaren 10ean Iruñean. Harrijasotzen ere Nafarroako azpitzapeldun izan zen.

**URTASUN, Gorka**

Frontoi laburreko Martiko txapelketa irabazi zuen iruritarrek, Errege Eguneko finalean Iñaki Lizasori 30-25 irabazita. Profesionaletan denbora gutti darama, baina bidea egiten ari da.

## urtarrilak 12-26

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58**Bertso-antzerkiak**

BERA | 2012.01.21

**«Erregea eta bufoia» bertso eta antzerki ikuskizuna**

Ander Lipus eta Sustrai Colinaren eskutik, antzerkia eta bertsoa uztartzen duen ikuskizuna izanen da Kultur Etxean, 22:00etatik aitzinera.

**Ospakizunak**

AMAIUR | 2011.01.14

**Fabaren Erregearen koroatze ekitaldia Amaiurko Elkartearen**

Muthiko Alaiak elkartearen eskutik, Erdi Aroko antzezpena, desfilea eta koroatze zeremonia eginen dira larunbatean Amaiurren.

**Inauteriak**

LEITZA | 2011.01.21-25

**Atsauratuen pesta kalean eta baserrietan hedatuko da**

Aurretik Eratsunen eta ondotik Elgorriagan eta Leitzaan. Abiatu dira aurten ere eskualdeko inauteriak, etxez etxeko puxka biltze eta mozzorroekin.

tik aitzinera. Sarrerak: aitzinetik 8 euro, bertan 10 euro.

**Emanaldiak**

BERA

**Antzerkia eta bertsoa ikuskizun berean**

**Urtarrilaren 21ean**  
*Erregea eta bufoia* antzerki eta bertso ikuskizuna eskainiko dute Ander Lipus eta Sustrai Colinak Kultur Etxean 22:00etan. 5 euro.

SARA

**Y-es tu ikusgarria**

**Urtarrilaren 11, 12 eta 13an** *Y-es Tu* ikusgarria Lur Berri gelan.

**Erakusketak**

LEITZA

**Guatemalako argazkiak Peritzan**

Mikel Zabaletak Guatemalako indigenei ateratako argazki erakusketa zabalik da Peritzan.

**Ospakizunak**

LESAKA

**San Anton Eguna**

**Urtarrilaren 22an** ospatuko da erromeria Endara auzoan.

ELIZONDO

**San Anton Eguna**

**Urtarrilaren 17an** ospatuko da urteroko zozketarekin.

ZUBIETA

**San Anton Eguna**

**Urtarrilaren 17an** ospatuko da.

AMAIUR

**Fabaren Erregearen koroatzea**

**Urtarrilaren 14an** eginen da Muthiko Alaiak elkarteak antolatzen duen ekitaldia. 18:00etan Erdi Aroko antzezpena. 18:30ean desfilea. 19:00etan koroatzea zeremonia.

**Inauteriak**

ELGORRIAGA

**Gazteak puxka biltzen**

**Urtarrilaren 20 eta 21ean.** Xehetasunak 22. orrian.

ERATSUN

**Asteburu honetan**

**Urtarrilaren 13tik 15era.** Xehetasunak 28. orrian.

LEITZA

**Atsauratuen pesta**

**Urtarrilaren 21etik 25era.** Xehetasunak 11-14. orrialdeetan.

**Ikuskizunak**

BERA

**Magia ikuskizuna**

**Urtarrilaren 29an** magia ikuskizuna eskainiko du Asier Kidam-ek Kultur Etxean 17:00etan. Antolatzailea: Ricardo Baroja Eskola Publikoko Guraso Elkarte. Laguntzailea: Berako Kultur Batzordea.

**Kontzertuak**

BERA

**Gitarra entzunaldia**

**Urtarrilaren 24an** gi-

tarra entzunaldia antolatu du Isidoro Fagoaga Musika Eskolak, 18:30ean.

**Txistu entzunaldia**

**Urtarrilaren 25ean** txistu entzunaldia antolatu du Isidoro Fagoaga Musika Eskolak, 16:30ean.

ELIZONDO

**Hesian eta Jare Lur aretoan**

**Urtarrilaren 21ean** Hesian eta Jare (Idi Bihotz ohiak) kontzertua eskainiko dute Lur dantzalekuan gauerdian.

## PROPOSAMENA

ELIZONDO

**San Anton eguneko zozketa**

Abeltzainen zaindaria izaki, San Anton eguna eskualdeko hainbat lekutan ospatzen da, baina Elizondon modu berezian egiten dute. Aurten ere Fco Joaquin Iriarte erresidentziaren aldeko zozketa egiten da. Lehen saria aretzea izanen da eta txartelak salgai daude euro baten truke. Neska-mutikoek aterako dituzte zenbakiak Bal-leko Etxeko balkoian.

**Mendi ateraldiak**

BAZTAN

**Baztango Mendigoizaleak**

**Urtarrilaren 15ean** Arizkun-Ezkerreta-Otsasko-Soalar-Pausogaxto-Burga-Maulitx-Aintzialde-Arizkun ibilaldia egiten da (08:00).

**Urtarrilaren 22an**

Beintza-Labaienera ateraldia antolatu da (07:30).

BERA

**Agerra Mendi Taldea Goizuetara**

**Urtarrilaren 15ean** Bera-Goizueta mendi ibilaldia antolatu du Agerra Mendi Taldeak.

LESAKA

**Beti Gazterekin San Antonera**

**Urtarrilaren 22an** San Antonera ateraldia antolatu du Beti Gazte elkarteak.

**Zinema**

LEITZA

**Bertsolari zineman**

**Urtarrilaren 13 eta 15ean** *Bertsolari* filma eskainiko da.



# Eguberri iraunkor batzuen alde. Birziklatu zentzuz.

Enpresako afariak, otarduak senitatekoekin, ospakizunak lagunekin...  
eta gero botilla pliak, bilgarriak, ontziak eta kaxkak... gure aldean jarri behar badugu, zentzuz jokatzekoa badugu,  
aprobetziatzeko ahaz ezin diren hondakinak.

**Gogoan izan, beira botatzeko edukiontzian:**

**100% PLASTIKAZA | POTSAK | BIRAZKO BOTILLAK** **12 EDALONTZIAK | BORNILAK | SAPOAK | TAPAK**

Erezele liburu dugu oporlan Eguberri hauetarako, [www.crana.org](http://www.crana.org)  
helbidean edo zure **mankomunitatearen webgunean** eskuragarri.

ESTADISTIKAK

SOZIALAK

LEZIOKUTIA



ECOVIDRIO



HONDAKIEN  
MANKOMUNITATEAK

**ETXEBIZITZAK****salgai**

**DONEZTEBE.** Ogiberri okindegiaren gainean, pisua salgai. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta trastelekua. 36m<sup>2</sup>ko terraza bikaina, oso eguzkitsua. Dena hegoaldera. ☎656 770373.

**IRUN.** Hiri erdian pisua salgai. 3 logela, egongela haundi bat, sukaldea, komuna eta terraza. Zuk paratuko duzu prezioa. ☎662 382700.

**ELIZONDO.** 84,5 m<sup>2</sup> erabilgarri dituen pisua salgai. Garajeko plaza eta trastelekuarekin. Sukaldea mobleztatua. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. 170.000 euro. ☎619 875749.

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**BERA.** 100 m<sup>2</sup>ko pisu erreformatua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukalde mobleztatua. Igoailua eta gas naturala ditu. Mobleztatua saldu daiteke. Prezio interesgarria. Konpromisurik gabe erakusten da. ☎948 5802929-637466110.

**ANZABAL**  
**INMOBILIARIA****BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

**ETXEBIZITZAK****errentan emateko**

**DONEZTEBE.** 98 m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko. Dena mobleztatua. Sukaldea, egongela, 2 bainugela eta 3 logela. ☎660 036182.

**ETXALAR.** 2 logela errentan emateko. ☎653 706614.

**IRUÑEA.** Aralar kalean, 2. zabalgunean, 4 logelako pisua errentan emateko. ☎618 963055.

**DONEZTEBE.** Intzakardi karrikan mobleztatutako pisua errentan emateko. Sukaldea, egongela, 3 logela, bainugela eta 35 m<sup>2</sup>ko terraza. ☎699 212421.

**DONEZTEBE.** Mobleztatutako pisu berria errentan emateko. Sukaldea, egongela, 3 logela, 2 bainugela eta trastelekuarekin. ☎679 568030.

**BERA.** Bidasoa karrikan etxebizitza errentan emateko. 2 logela eta garajea. ☎647 840210.

**GARAJEAK/LOKALAK****salgai**

**ARRAIOZ.** 45 m<sup>2</sup>ko bagera salgai. Prezio ezin hobean. ☎629 317086.

**LURRAK/ORUBEAK****errentan hartu**

**BAZTAN**en 5.000 m<sup>2</sup>ko lur saila errentan hartu nahi da baratze bat aitzinerat ateratzeko. ☎646 377080.

**LANA****eskariak**

**LEITZALDEA eta INGU-RUA.** Neska euskalduna umeak edo adinekoak zaintzen eta garbiketan ere ariko litzateke. ☎695 716894.

**MALERREKA.** Hemen-go emakumeak egunean 3-4 orduz garbiketarak egiten lan egiten luke: etxeetan, ostatueta... ☎661 006327.

**BAZTAN ETA INGU-RUA.** Neska euskalduna umeak zaintzeko edo klase partikularak emateko prest dago. ☎678 309025.

**Emakumea** lanean ariko litzateke. Euskera, frantsesa eta ingelesa dakizkiena eta gida-baimen guztiekin. ☎679 210910.

**LANA****eskaintzak**

Pertsona euskalduna eta esperientziaduna behar da **adineko gizona zaintzeko** interna moduan. Interesa dutenek bakarrik deitzea eskertuko da. ☎948 580853.

Pertsona bat behar da arratsaldez **bi haur zaintzeko** Beran, 3 orduz. ☎697 246131.

**MOTORRA****salerosketak**

**Opel Combo** salgai, 1996koa. Ibilgailu mistoa. 100.000 kilometro. 600 euro. ☎636 497345.

**Honda sportrax EX 400** motorra salgai. 2004koa. Oso egoera onean. 2.400 euro. Probatu konpromisorik gabe. ☎686 279252 edo 948 451530.



**Volkswagen California Coach** furgoneta salgai. 2.5 TDI. 1999koa. 250.000 kilometro. Berogailua, karrorako bola eta abar. 17.800 euro. ☎629 317086.

**Peugeot 306 1.9 TD** auttoa salgai, NA-AV matrikuladuna. Modu onean. ☎685 794682.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(azaroaren 8tik 25era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 38,00 € (+1,00)

**Zerri gizena**  
1,185 € kilo. (-0,005)

**Zerramak:**  
0,450€ Kg/bizirik. (+0,040)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,43 (+0,05)

**1.koa** 4,13 (+0,05)

**2.koa** 3,89 (+0,05)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,49 (+0,05)

**1.koa** 4,29 (+0,05)

**2.koa** 4,11 (+0,05)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 100,00 (=)  
idixkoak 180,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 110,00 (=)  
idixkoak 120,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 2,91/3,01  
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01  
**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 8,00/8,70  
8-10 kilokoak: 6,80/7,00



# urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitzak: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekea; 4) www.ttipi.net bitartez




Abenduaren 3an Arantzako **EGORTZ GOÑI OSKOTZ** etxeko jauntxoak 5 urte bete ditu. Kontent oparikin? Muxu bat, Oiz eta Arantzako familiak.



**AROA MARTIN ALDUNTZIN** beratarrek 10 urte bete ditu abenduaren 27an. Zorionak eta muxu handi bat attuna, amona eta osabaren partetik.



Elko, Nevadako **MICHELE IGOAK** 17 urte bete ditu abenduaren 26an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**GARAZI SANTETEBAN OTXANDORENA** zubietarrak urteak bete ditu abenduaren 16an. Aunitz urtez eta muxu bat Naroa, Uxue, Iker eta Ekaitz.



Doneztebeko **ENAITZ GOÑI IGUZKIAGIRRE** gure pottoko maitagarriari muxu handi bat lehenbiziko urtebetetzean Imanol eta Andrearen partetik.



Doneztebeko **ENAITZ GOÑI DE RUEDA** lehengusuek urtea eta 15 urte bete dituzte abenduaren 24an eta urtarrilaren 4an. Zorionak familia guztiaren partetik. 16 muxu handi zuentzat.




Lesakako **JAIONE GOÑI MITXELENAN** 9 urte bete ditu abenduaren 19an. Aunitz urtez Arantzako familiaren partetik. Gauza bat; ez ahantzi tarta ekartzeaz, *Moxorra* eta *Marixu* esperoan baitaude. Muxu aunitz.



Ainhoako **JUAN ESTEBAN HARDOYK** urteak bete ditu abenduaren 12an. *Lauetan hogoi eta bortz urte/ iragan dira gargero/ Zuk urte hauek atxematea/ Ez omen zinuuen espero/ Ospa ditzagun denok batera/ Bertze andana bat, urtero/ Gu zoriontsu izan gaitzeri/ elkarrekin ta luzero.* Joseba eta Ixabel, Markel eta Gorka.



**MANEX ETXEBERRI PACHECO** saratar mutiko honek 5 urte bete ditu abenduaren 1ean. Zorionak Berako familiaren partetik.



Berako **JON IPARRAGIRRE IRIARTE** gure nekazariak 12 urte bete ditu abenduaren 28an. Zorionak eta muxu handi bat Berako familiaren partetik.




Goizuetako **ARITZ AIZKORBE HERRERAK** abenduaren 29an urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat Uxue, amatoxo eta aitaxorenen partetik.



Iruritako **ARITZ BIKONDO ARRETXEAK** urtarilaren 7an 7 urte bete ditu. Zorionak Uxue, aita, ama, amaxi, aitaxi eta izeba-osabaren partetik. Muxu handi bat.



Irungo **NORA PALENZUELA INDABURU** eta Etxalarko **LEIRE IRIBARREN INDABURU** lehengusuek urteak bete dituzte abenduaren 21ean eta 26an. Zorionak eta muxu handi bai familiaren partetik.



Zorionak **MIKEL!** Aurten ere ez dugu aukerarik izanen elkarrekin ospatzeko baina ziur egon gure bihotzak zurekin egonen direla. Familia guztiaren partetik besarkada bero-bero bat. Matte zattugu! Euskal preso eta iheslari guztiak etxera!




Zorionak osaba **JEXUX ZELAIETAI**. Segi ni zaintzen beti bezain ongi eta ez zaizu oparirik faltako! Pa handi bat. Eneko.



Goizuetako **LOREA SALDIAS MAKAZAGA** gure iloba politik 2 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak osaba Karlos eta izeba Naiararen partetik.



Goizuetako **LOREA SALDIAS MAKAZAGA** 2 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak iturengo amaxi eta aitaxiren partetik. Muxu printzesa!



Isarriko **LOREA SALDIAS MAKAZAGA** 2 urte bete ditu abenduaren 31n eta bere attona Plok abenduaren 30ean. Zorionak familiaren partetik!



Leitzako **SAIOA** eta **IERA BULDAIN ALDUNTZINEK** 3 urte bete dituzte urtarrilaren 7an. Zorionak eta txokomarrubizko muxutoak beren lehengusu Naroa eta Uxueren partetik.



Zorionak Igantziko **INIGO** eta **JONE TXOPERENA SALDIAS**-i abenduaren 28an eta urtarrilaren 19an urteak bete dituztelako. 6 muxu Igantzi eta Urroztik.



**IZARO** eta **JOSU LARRAIOZ ALZURRI** ibeltzaren 14 eta 28an 6 eta 2 urte egiten dituztelako aunitz urtez attatto, amatto, Arantzako, Urrozko, Oizko eta Donostiko familiaren partetik, bereziki Ihintza eta Aritzen partetik. Txokoltezko eta marubizko muxuk, pikaro parial!



**ANDER LARBURU ELIZALDE** etxalartarrak urtarilaren 21ean 2 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren eta berexiki Aritzen partetik.



Leitzako **ALAIJA TELLETXEA BULDAINEK** abenduaren 25ean urtebete bete zue-nez, zorionak eta muxutoak familiaren partetik, pottoki!



Sunbillako **OIHANE LAZKANO ALTZURIK** 2 urte bete zituen abenduaren 22an. Leitzeta eta Sunbillako familiaren partetik zorionak gure saltxerani!




Eratsungo **NAROA** eta **ARATZ RETEGI ESKUDEROK** urtarilaren 18 eta 31n 4 eta urte bat beteko dute. Zorionak eta muxu handi bat Aurtiztik. Berendu goxoa prestatu.



**LEXURI PEREZ ALEJOS** beratarrek urtarilaren 8an 2 urte bete ditu. Zorionak etxeokoen partetik eta berexiki bere ahizpa Eneritzen partetik.




**GARAINA** eta **IRAIDE IRIARTE PETRIRENA** Sunbillako bi printzesa hauek urtarilaren 19an 3 urte beteko dituzte. Aunitz urtez familia guztiaren eta berexiki attatto eta amattoaren partetik. 3 mila muxu goxo-goxo.



Sunbillako **BITTORIK** urtarilaren 16an 85 urte beteko ditu. Aunitz urtez bere familia guztiaren partetik, baina berexiki argazkiko bi brujita hoiaren partetik. 85 mila muxu. Ongi pasatu eguna amatxi.



Zorionak Lesakako **VANESSARI**. Urtarrilaren 1ean 13 urte bete ditu. Muxuak familiaren eta berexiki Xabier eta Enekoen partetik, zorionak "Tata".



Zorionak **ENERITZ**, espero opari asko izan zula ta aber zure postre goxo hoiakato bat noiz egiten zun ee! Espero ongi pasatzea. Anonimo.



**GURUTZE PIKABEAK** urteak bete ditu urtarilaren 14an. Tipiko guztien partetik zorionak eta muxu handi bat.



Sunbillako **GARAINA** eta **IRAIDE IRIARTE PETRIRENAK** urtarilaren 19an 3 urte beteko dituzte. Aunitz urtez Berako osaba-izeba eta lehengusuen partetik. Ongi pasatu eguna eta txokolate goxo-goxoa prestatu. Muxuk.



Sunbillako 2 lore hauek urtarilaren 19an 3 urte beteko dituzte. Aunitz urte osaba Xantux eta Zubito, izeba Nerea, atautxi Pako, matxi M<sup>o</sup> Kruz, amaxi Bittori eta nola ez lehengusu Ibairen partetik. Ongi pasa eguna eta berendu goxoa prestatu.



Lesakako **MADDI HOYOS EGUZKIAGIRREK** 3 urte beteko ditu urtarilaren 12an. Zorionak berriro eta segi beti bezain alai. Muxu handi bat etxeokoen partetik. Muuuua!!!



**ENERITZ** eta **MANEX ZAPIAIN ABUIN** beratarrek urteak bete dituzte abenduaren 19 eta 22an. Zenbat urte? *No xe xabe, bueno... xi xe xabe*, 9 eta 14. Zorionak guapoak! *Un abrazo* eta muxuak.



**URTARRILAK 14 LURDJOTAK**  
01:00 - 02:00 : DOHAJNIK  
02:00etatik aurrizitera 9€ eta kontsumitzaile bati dohaia 03:30ak arte

**URTARRILAK 21 HESIAN+JARE (IDI BIHOTZ OHIAK)**  
00:00 - 01:00etik 10€ Bertan  
Sabina eta Beñat, Antxon eta Txoska (Elizola), El Inherente Guitar Shop (Iruña), Añaso (Leizaola)

**URTARRILAK 28 LURDJOTAK**  
01:00 - 02:00 : DOHAJNIK  
02:00etatik aurrizitera 9€ eta kontsumitzaile bati dohaia 03:30ak arte




garagardotegia

Leizaola, Antxon eta Txoska, Sabina eta Beñat  
Iruña, Añaso eta El Inherente Guitar Shop



**ERREGEA  
ETA  
BUFOIA**

Erregea: **SUSTRAI COLINA**  
Bufoia: **ANDER LIPUS**

**BERA • Kultur Etxean**  
**URTARRILAK 21, larunbata**  
**22:00etan • Sarrera 5€**



Antolatzailea:  Laguntzailea: 

# TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

556. ALEKO IRABAZLEA

\* GABONETAKO SASKIA 1

M<sup>a</sup> Dolores Angiade Bertiz | ETXALAR

\* GABONETAKO SASKIA 2

Maitte Mitxelena Basterrika | ELIZONDO

ttipi txartela

948 63 54 58

Alkara Mendogia

40120 AT-2

Telefonoa: 948 63 54 58

h. 21618

DESKONTUAK | ZOZKETAK  
ALDIZKARIA MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan



IRRIEN LAGUNAK DVDa  
Pirri, Porrotx eta Marimotots  
[www.kaboporreta.com](http://www.kaboporreta.com)



AQUARIUM 2 SARRERA  
Donostiako Aquarium-a  
[www.aquariumhss.com](http://www.aquariumhss.com)

## TTIPI SASKIA



PRODUKTUAK:  
LANKU ARGITALETXEA  
IBAIZABAL ARGITALETXEA  
EREIN ARGITALETXEA



KAMISETA BAT  
Oninart denda  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)



GALTZAGORRIE! TO, INAXITO! LIBURUA  
Lanku argitaletxea  
[www.lanku.com](http://www.lanku.com)

## DESKONTUAK

kukuka

%10 garrantzi eta berruko arropetan

EZ Zaldua

%10 produkzioan

Alustiza

%10. 30tik geroako gastuan

elika

%5 kontsumoan



POSADA  
OITZ

%10eko deskontua